



EMAKUME ETA GIZONEN
EGOERARI BURUZKO

DONOSTIAKO

DIAGNOSTIKOA

**Donostiako Emakume eta gizonen egoerari buruzko
Diagnostikoa**
2019ko martxoa



**DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN**

**Berdintasuna
Igualdad**



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

Argitalpena: Berdintasun Bulegoa, Donostiako Udala

Ikerlari-taldea: Daiteke Gizarte Aholkularitza

2019ko martxoa



Berdintasuna Donostia @berdintasuna.donostia



BerdintasunaDonostia @DSSberdintasuna



943 48 34 64
Emakumeen Etxea



Eduki hau Creative Commons baimenaz babesturik dago, zehazki Aitortu - Partekatu Berdin (bysa) baimenpean. Baimen horrek aukera ematen du lan hau eta lan honen ondorioz sor daitezkeenak merkataritza-xedeetarako erabiltzeko eta banatzeko, betiere edukien jatorrizko lizentzia bera erabiliz.

Aurkibidea

1. Sarrera	5
1.1. Metodologia	6
1.2. Diagnostikoaren lan ildoak	7
1.3. Lan prozedura	8
2. Arau-Esparrua	9
3. Datu orokorrak	10
3.1. Demografia	10
3.2. Familia ereduak	11
3.3. Biztanleen adina	14
3.4. Biztanleen kopurua auzoen arabera banatuta	16
3.5. Ikasketa maila	17
3.6 Maila ekonomikoa	17
3.6.1. Generoaren araberako errenta pertsonalaren desoreka	19
3.6.2. Familia errentaren araberako desoreka	24
3.6.3. Donostiako desorekak auzoen arabera	24
3.6.4. Hiritarren pertzepzioari buruzko inkestak eta maila ekonomikoa	33
4. Ikerlan arlo bakoitzaren datu nagusiak	33
4.1. Berdintasuna eta emakumeen aurkako indarkeria	34
4.1.1. Donostiako Emakumeen Etxea	34
4.1.2. Sexu aniztasuna	36
4.1.3. Indarkeria matxista	37
4.1.4. Emakumeentzako hiri segurua	49
4.1.4.1. Eraso sexistak jaien testuinguruan	41
4.1.4.2. «Gau Txori» esperientzia pilotua	41
4.1.5. Emakumeen prostituzioa Donostian	42

4.2. Enplegua, Erantzunkidetasuna eta Turismoa	44
4.2.1. Enplegua	45
4.2.1.1. Ekintzailetasuna	47
4.2.1.2. Erantzunkidetasuna	48
4.2.1.3. Berdintasunerako Lankidetzak Erakundeak Hiri mailan	51
4.2.2. Turismoa	52
4.3. Gizarteratzea eta Migrazioa	53
4.3.1. Migrazioa	53
4.3.2. Gizarteratzea	54
4.3.2.1. Gizarte-laguntzako baliabideak	54
4.3.2.2. Adinekoak	57
4.3.2.3. Pentsioak	57
4.3.2.4. Txirotasuna	57
4.4. Hezkuntza arloa eta Gazteria	59
4.4.1. Gazteria	61
4.4.1.1. Udal Haurtxoko eta Gaztelekuko hezitzaileak	61
4.4.1.2. Ekipamenduetako erabiltzaileak	62
4.5. Hirigintza, Mugikortasuna eta Etxebizitza	64
4.5.1. Mugikortasuna	64
4.5.2. Etxebizitza	66
4.5.2.1. Etxebizitzaren alokairu prezioa merkatuan	67
4.5.2.2. Alokabide zerbitzua	67
4.6. Kultura, Euskara eta Kirola	68
4.6.1. Kultura	69
4.6.1.1. Donostiako Kulturako Bazkideak	70
4.6.1.2. Formazioak/ Kultur Ekintzak	70

4.6.1.3. Kultur Ekitaldiak	71
4.6.1.4. Festak	72
4.6.1.5. Musika	73
4.6.1.6 Beste batzuk	76
4.6.2. Gastronomia	77
4.6.3. Kirola	79
4.6.3.1. Lizentzia Federatuak	84
4.6.4. Euskara	85
4.7. Parte Hartzea eta Elkartegintza	86
4.7.1. Aurrekontu parte hartzaileak genero ikuspegitik	89
5. Informazio iturriak	94
I. ERANSKINA	95
Eztabaida taldeak	
II. ERANSKINA	106
Galdetegiari buruzko datu nagusiak	

1. Sarrera

Berdintasun Bulegoak ikerlan-diagnostiko bat enkargatu zuen 2013an hiriko emakumeen eta gizonen egoera ezagutzeko. Diagnostiko horretan lortutako emaitzak ardatz izanik, Donostiako III. Berdintasunerako Plana idatzi zen.

Ondorengo orrialdeetan hainbat adierazle bildu dira, gaur egungo egoera ezagutzeko eta Donostiako emakume eta gizonen berdintasunaren egoeraren ikuspegi integrala izateko. Hortaz, diagnostiko honen helburu nagusienak hauek dira:

- Aurreko ikerlan-diagnostikoa ardatz izanik, aldaketak agerian jarri eta datuak eguneratu.
- Informazio baliagarria ematea Berdintasun Bulegoari erabaki zuzenak hartu ahal izateko IV. Berdintasun Planari begira.
- Donostiako bertako herritarrei informazioa ematea emakumeen eta gizonen egoerari buruz, eta, horrela, sentsibilizazioa handitu.

Lan honekin ahalegindu gara DONOSTIAKO ARGAZKI orokor bat lortzen, Donostiako emakume eta gizonen egoeraren azterketa zabala egiten, honek dakartzan oztopoekin. Batetik, badira aztergai izan daitezkeen eta ikertu ez diren hainbat lerro, esate baterako, osasunarekin edo dibertsitate funtzionalarekin lotutako diskriminazioak. Bestetik, berdintasuna zeharka landu beharreko arlo bat da eta udaleko hainbat sail daude lanean integratzeko, zaila da dokumentu bakar batean alderdi guztiak barne hartzea.

Orokorrean, esan dezakegu azkeneko urteetan jendartea aurrera doala berdintasunerantz, baina garrantzitsua da atzerapausoak ez ematea eta berdintasunerako eskubide formala errealitate bihurtzea, izan ere, aztertu diren esparru guztietan emakumeen egoera gizonena baino okerragoa da eta horrek zer pentsatu ematen du. Halaber, ezin da esan Donostiako hiriak beste hiriek baino egoera okerragoa duen baina bai berezko ezberdintasun egoerak dituela eta hauei aurre egin behar zaie. Hitz batez, aurrerapausoak eman badira ere, Donostia parekidea lortzeko asko dugu egiteko.

Bukatzeko, eskerrak ematen dizkiegu Diagnostiko honetan, era batean edo bestean parte hartu duten hiritarrei. Era berean, eskerrak eman nahi dizkiogu udaleko sail ezberdinetako langileei eskainitako denboragatik.

Gure eskerrik beroena Donostiako Udaleko Berdintasun Bulegoari eta bere teknikariei, bidean eskaini diguten laguntza eta beren jarrera adeitsuagatik.

1.1. Metodologia

Diagnostikoa burutzeko erabilitako metodologia mistoa izan da, teknika kuantitatiboak eta kualitatiboak bateratu dira.

Bost informazio iturri nagusi erabili dira azterlan hau egiteko:

1) Estatistika datuak: Eustat, Lanbide, Gipuzkoako Foru Aldundia, Emakunde, etab.

Datu ugari Udaleko barne-dokumentazioaren analitiko lortu dira, memoriak, diagnostiko sektorialak, datu-baseak, web-orriak, etab. (5. atalean dokumentazioaren zerrenda erantsita doa.)

2) Eztabaida taldeen ekarpenak eta gogoetak; 3 eztabaida-talde espezifiko antolatu dira, III. eranskinean erantsita dago hauen jarraipena.

3) Herritarrei eginiko inkestaren emaitzak: herritarren artean zabalduko galdetegia II. eranskinean erantsita.

4) Elkarrizketa pertsonalak eragile zehatz batzuekin: datu batzuk teknikari eta eragile ezberdinekin kontrastatu dira.

Gauza jakina da berdintasunerantz aldaketak epe ertain-luzean ematen direla eta datuak ez direla gehiegi aldatzen hamarkada batean. Hala ere, eremu zehatz batzuetako datuetan joera-aldaketak ikus daitezke.

Esate baterako, aipatu nahi dugu 2013an egindako Diagnostikoan, kasu askotan arazo handiak izan zirela sexuaren arabera bereizitako datuak eta espezifikoak lortzeko. Oraindik ez dago guztiz finkatuta datu guztiak sexuaren, adinaren eta jatorriaren arabera bereizteko erabateko ohitura, baina nabariko da, neurri handi batean datuak jasotzerakoan, sexuaren arabera bereizteko ahalegina egiten dela. Ezin dugu esan beti horrela denik baina bai aurrerapausoak eman direla.¹

2013an egindako diagnostikoan aipatzen zen:

Zailtasun handiak izan ditugu estatistika datuak lortzeko. Kasu askotan, datuak ez zeuden sexuen arabera bereizita. Maiz, datuak oso puntualak ziren, eta ez dugu modurik izan epe luzeago edo historiko orokortuago bati erreparatzeko. Kasu batzuetan, ez zetozen bat eskura genituen datuak eta nahi genituen datak (2011), kontsultatutako azterlan batzuen periodizitatea ez delako urtekoa, handiagoa baizik, eta desberdina kasu bakoitzean.

¹ III. Berdintasun Planaren neurri bat estatiketan genero-ikuspegia txertatzea zen.

1. Lerroa: Gobernantza

4. Estatistika eta azterlanetan genero-ikuspegia txertatzea.

4.1. Aplikazio informatiko egokiak garatzea.

4.2. Arloetako diru laguntzen fitxetako datuak baliatzea.

4.3. Iraunkortasunerako Memorian Berdintasunaren Adierazleak txertatzea.

4.4. Hiri Behatokian Berdintasunaren Adierazleak txertatzea.

Hala ere, ezinbestekoa ikusten dugu, bide honetan lanean jarraitzea. Nahiz eta sexuaren arabera bereizitako datuak aurkitu, hau ez da beti horrela izaten eta batzuetan ezin izan dugu soilik Donostiari buruzko daturik aurkitu, eta Gipuzkoakoak edo autonomia erkidegokoak erabili behar izan ditugu.

1.2. Diagnostikoaren lan ildoak.

Diagnostikoan landu diren alorrak hauek dira:

- . 1.lan-ildoak: Berdintasuna eta Emakumeen aurkako Indarkeria: indarkeria matxistaren prebentzioa, salaketa, babes neurriak, laguntza neurriak, erasoen kopurua... Bikote eta sexu harremanak.
- . 2lan-ildoak; Enplegua, Turismoa eta Erantzunkidetasuna: Lan merkatura sarbidea, lan merkatuaren aukerak, baldintzak, krisiaren eragina, ezkutuko ekonomia, langabezia tasa, ostalaritza, turismoaren inpaktua emakumeen bizitzan, gastronomia, emakumeek eta gizonak eguneroko zereginetan erabiltzen duten denbora, lana eta familia bateratzeko lan arloko neurriak...
- . 3.lan-ildoak; Gizarteratzea eta Migrazioa: Herritar etorkinak, egoera legala, lan egoera, egoera familiarra, beraien arteko laguntza sareak. Biztanleria autoktonoak dituen aurreiritzi eta estereotipoak pertsona migratzaileen kolektibo eta jatorriari buruz.
- . 4.lan-ildoak; Hezkuntza arloa eta Gazteria: Hezkuntza ez formalean, neskei zuzendutako jarduerak, hauen partaidetza, azpiegituren erabilera. Haurtxoko eta Gaztelekuko langileen Berdintasun formazioa.
- . 5.lan-ildoak; Hirigintza, Mugikortasuna eta Etxebizitza: Emakumeek hirian duten segurtasuna; pertzepzioa, eragina eta segurtasuna. Emakumeen presentzia sinbolikoa. Garraio publikoaren erabilera, garraiobideak, joan-etorriak. Auzoak. Etxebizitza erosteko ahalmena.
- . 6.lan-ildoak; Kultura, Euskara eta Kirola: Kultur jarduera eta baliabideak, hiriko festa eta ospakizunak, jaialdiak, festibalak. Aisialdi pasiboa eta aisialdi aktiboa. Hizkuntzaren normalizazioa eta erabilera. Kirol instalakuntzen erabilera. Kirol ekitaldiak, Kirol taldeak. Kirol elkarte, klub, federazioen antolakuntza..
- . 7.lan-ildoak; Parte Hartzea eta Elkartegintza: Erakunde publikoetan parte hartzea, partiduak, sindikatuak. Erabaki guneetan parte hartze prozesuak, mugimendu asoziatiboa, mugimendu feminista. Elkarte mistoetan osaketa eta bereizketa bertikala.

1.3. Lan prozedura

Diagnostikoa burutzeko jarraitu den prozedura, honako hau izan da:

→ 1. Fasea: Proiektuaren hasiera

Informazioa biltzea eta dokumentazioaren azterketa: aurretik aipatzen genuen bezala, Udaleko hainbat sailek azkenengo urteetan, ikerlan ugari burutu dituzte beraien esparruetan (Estrategia Bulegoak, Gazteria Sailak..). Beraz, batetik, ohiko estatistika iturriak aztertu dira (Eustat, Lanbide..) eta bestetik Udaleko barne-dokumentazioaren azterketa egin da.

→ 2. Fasea: Komunikazio Kanpaina

Hirian Diagnostikoa martxan jartzearen berri eman.

→ 3. Fasea: Inkesta on line herritarrekin

Prozesu honen helburuak bi ziren, batetik herritarren iritzia jasotzea, baina bestetik, diagnostikoaren prozesuaren berri ematea. Horretarako galdetegi digital eta elebiduna sortu zen. Galdetegi on line izatearen abantaila nagusia hedatzeko erraztasuna da, izan ere, sare sozialen bitartez dohainik zabaldu liteke. Baina oztopoen artean, erantzunen fidagarritasuna eta eten digitala dago (galdetegi erantzuteko mugikorra edo ordenagailua izatea beharrezkoa baita).

Galdetegi, Berdintasun Bulegoaren sare sozialen bitartez zabaldu zen eta baita hainbat elkartei bidali egin zitzaion (Donostiako Emakumeen Etxeko bazkideei, talde feministak, aisialdi taldeak, etab).

Bestalde, Donostiako komunikabideetan ere zabaldu egin zen (Irutxuloko Hitza..) eta 1000 ale inprimatu ziren galdetegiaren esteka eta QR kodea txertaturik zituela. Ale hauek hiriko kultur etxeetan, liburutegietan, tabernetan, unibertsitatean.. banatu ziren.

Honekin batera eta partaidetza motibatu aldera, partaideen artean zozketa bat egin da. Sariak 3 kultur bono izan dira, hiriko merkataritza bultzatzeko asmoz, 3 liburu-denda aukeratu eta bertan emakume euskaldun egile baten obra erosteko bonoa izan dute irabazleek.

Guztira 129 pertsonak parte hartu dute galdetegian, 101 emakume, 24 gizon eta 4 pertsona ez binariok.

→ 4. Fasea: Eztabaida taldeak

3. fasean bildutako informazioa kontrastatzeko eztabaida taldeak burutu dira.

→ 5. Fasea: Herritarrei zuzendutako TOPAKETA eta diagnostikoa balidatzea

2019ko martxoaren lehenengo astean diagnostikoaren inguruko emaitza nagusiak hedatu dira.

2. Arau-Esparrua

Jarraian aurkezten den diagnostikoak hainbat ardatz nagusi hartzen ditu lan-gida moduan:


EREMUA	ERAKUNDEA	ARAU/PROGRAMA
UDALERRIA	Donostiako Udala	<ul style="list-style-type: none"> • Donostiako Udalaren Berdintasunerako III Plana (2014-2018). • Donostiako Emakume eta Gizonen egoerari buruzko Diagnostikoa (2013). • Donostiako udalaren prebentzio eta jardute protokoloa, sexu jazarpenaren eta jazarpen sexistaren aurkakoa (2015).
EAE	Eusko Jaurlaritza	<ul style="list-style-type: none"> • 4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzkoa. • EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana (2018-2021)
	Gipuzkoako Foru Aldundia	<ul style="list-style-type: none"> • 2/2015 Foru Araua, martxoaren 9koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako. • Gipuzkoan emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko Aurre!! Foru Plana. • Gipuzkoako kontziliazio erantzunkiderako Foru Plana.
ESTATUA	Espainiako Gobernua	<ul style="list-style-type: none"> • 3/2007 Lege Organikoa, Emakumeen eta Gizonen Benetako Berdintasunari buruzkoa. • 1/2004 Lege Organikoa, Genero-Indarkeriaren Aurka Oso-Osoko Babesa Emateko Neurriei buruzkoa. • 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena, udalerriek «emakumeak sustatzeko» politiken esparruan jarduera osagarriak egin ditzaketela ezartzen duena. • Genero Indarkeriaren Aurkako Estatu-Ituna, 2017ko abenduan onartua.
EUROPA	Europar Batasuna	<ul style="list-style-type: none"> • Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2016-2019ko Konpromiso Estrategikoa eta genero-identitateagatiko diskriminazioaren aurka duen ibilbide-orriari buruzkoa (2014). • Istanbuleko Hitzarmena, emakumeen aurkako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren prebentzioari eta indarkeria horien aurkako borrokari buruzkoa (Estatu espainiarrak 2014an berretsi zuen).
NAZIOARTEA	NBE	<ul style="list-style-type: none"> • Garapen Jasangarrirako 2030eko Agenda (garapen jasangarrirako xedeak) (2015). • Emakumeei buruzko Nazioarteko IV. Biltzarra (Beijing, 1995) eta Beijingo adierazpena eta ekintza-plataforma, New Yorken 2015ean berrikusi eta eutsi zena (Pekin+20). • Emakumeen Aurkako Diskriminazio Mota Guztiak Deuseztatzeko Hitzarmena. (CEDAW) (1979, Estatu espainiarrak 1983an berretsi zuen).

3. Datu orokorrak

3.1. Demografia

Donostian 186.667 pertsona bizi dira; 98.910 emakume (%53) eta 87.757 gizon (%47). Hiriko biztanleriak egonkor jarraitzen du % 0,16ko hazkundearekin. Emakumeen kopurua handiago da, hiritarren %53 eta batez ere 65 urtetik gorako adin tartean, non %60 emakumeak diren.²

1.Grafikoa: Donostiako Demografia



Iturria: Donostiako Udala

Donostiako biztanleen ezaugarri garrantzitsu bat biztanle atzerritarren hazkundera da. Beste hiri eta lurralde batzuen ehunekoa baino txikiagoa bada ere, krisiak moteldutako hazkunde-aldi bizia izan du.

Biztanle etorkinen kopurua biztanleria osoaren % 1,7 zen 2001ean, eta % 9,5 izatera heldu zen 2015ean (2015ko urtarrilean, 17.742 atzerritar zeuden erroldatua, eta, generoari dagokionez, % 46,09 gizonak ziren eta % 53,91 emakumeak, EIN, *Biztanleen erroldak*).

Atzerritarrak biztanle guztien % 7 dira, eta 130 herrialdeetatik etorriak dira. Honduras eta Nicaragua dira, gaur egun, jatorriko bi herrialde nagusiak, ondoren Marruecos, Italia eta Colombia daude.

Auzoei dagokienez, Amara Berri da jendetsuena, eta baita aurten gehien hazi dena ere (242). Biztanle gehien galdu duen auzoa, berriz, Gros izan da(169).³

Auzorik jendetsuena Amara Berri da, ia 29.000 biztanlerekin. Jarraian Erdialdea, Altza eta Gros datoz, 20.000 biztanle ingururekin. Horien atzetik ageri dira Intxaurren, Antigua, Egia eta Aiete. Lau horiek 15.000 biztanle bultan. Ibaetak eta Mirakruzek 9.000 biztanle inguru dituzte eta gainerako auzoak 5.000 biztanletik behera.⁴

² <http://www.donostia.eus/ataria/web/donostia-data/demografia>

³ *idem*

⁴ <https://labur.eus/O4JZI>

2.grafikoa. Donostiako demografia



Iturria: Donostiako Udala (2016/12/15)

3.2. Familia ereduak

Biztanleriaren zati handiena familian bizi da. Familia erduei dagokienez, seme-alabak dituen familia nuklearra da oraindik nagusi (% 37,0), kopurua beherantz badao ere.

Aldiz, urtetik urtera, ugarituz doaz pertsona bakarreko etxeak (% 23), seme-alabarik gabeko familia nuklearrak (% 16) eta guraso bakarreko familiak (% 11).

1.Taula . Familia ereduak

	Familia kopurua	Pertsona bakarrekoa	Konposatua	Gunea seme-alabarik gabe	Gunea seme-alabekin	Guraso bakarrekoa	Handitua	Gune askotarikoa
Donostia	66.026	15.370	2.836	10.655	24.503	6.975	4.719	968
	%100	%23	%4	%16	%37	%11	%7	%2

Iturria: Eustat. 2004ko Apirilaren 14a


Gipuzkoan, familia tradizionalak, guraso biek eta seme-alabek eratuak, galdu egin du nagusitasuna familia-egituran: halakoak %51,5 familia ziren 1996an, %44,4 familia 2001ean eta %43 familia 2016ean.

Familia tradizionalak, guraso biek eta seme edo alaba batek nahiz gehiagok eratuak, familia guztien %63 biltzen zituen 1981ean; %57, 1991n; %44,4, 2001ean. Era berean, txikitzen jarraitzen du haien batez besteko tamainak: 4,4 kidekoak ziren 1981ean; 4,1ekoak 1991n; eta 3,8koak azken zentsuan.

Nahiz eta bost familia gurasobakarretatik lautan familiaburua emakumezkoa izan, familiaburu gizonezkoa dutenak bizkorrago ari dira hazten, baina oraindik ere, bien arteko ezberdintasuna izugarria da.

- . Gipuzkoako aita bakarreko familia kopurua 4.100 (%17)
- . Gipuzkoako ama bakarreko familia kopurua 20.500 (%83)

3.grafikoa: Gipuzkoako gurasobakarreko familia kopurua (2018)



Iturria: Eustat 2018

2.Taula. Gipuzkoa: Familiak, motaren eta batez besteko tamainaren arabera (milakotan)

	Familiak	Batez besteko tamaina
Guztira	290,8	2,46
Pertsona bakarrekoa	81,3	1,00
Konposatua	9,3	2,22
Gunea seme-alabarik gabe	61,0	2,00
Gunea seme-alabekin	99,3	3,67
Guraso bakarrekoa	24,6	2,36
Handitua	12,2	3,90
Gune askotarikoa	3,0	5,18


Iturria: Eustat. Inkesta demografikoa. 2016

3.Taula. Familiak erreferentziako pertsonaren mota eta legezko egoera zibilaren arabera (milakotan). 2016

	Guztira	Ezkontgabea	Ezkondua edo bizikidea	Alarguna	Dibortziatua	Legez banandua
Gipuzkoa	290,8	53,6	168,8	48,0	16,4	3,9
Pertsona bakarrekoa	81,3	41,8	2,6	27,5	7,4	2,1
Konposatua	9,3	6,3	0,2	2,0	0,6	0,2
Gunea seme-alabarik gabe	61,0	0,3	59,9	0,3	0,5	0,1
Gunea seme-alabekin	99,3	0,3	98,6	0,0	0,5	0,1
Guraso bakarrekoa	24,6	3,5	1,0	12,2	6,5	1,3
Handitua	12,2	1,3	4,2	5,6	0,9	0,2
Gune askotarikoa	3,0	0,2	2,3	0,5	0,0	0,0

Iturria: Eustat. Inkesta demografikoa. 2016

4.grafika: Donostiako familia ereduak



Iturria: Donostiako haur, nerabe eta gazteen diagnostikoa. 2014

Amatasunaren⁵ atzerapen progresiboa eta ondorengo kopuruaren beherakada (gero eta nabarmenagoak dira familia eta lana bateratzeko zailtasunak) fenomeno hedatuak dira euskal jendartean, mendebaldeko gizarte-ereduaren erakusgarri (Donostiako Estrategia Bulegoa; 2017).

Donostiako emakumeek gero eta beranduago izaten dituzte umeak. Mende honetako lehen 12 urteetan, 1,3 urte atzeratu da umeak edukitzeko adina. Gipuzkoan, berriz, urte erdia atzeratu da. 2000. urte arte hiriburuko emakumeek gazteago izaten zituzten umeak herrialdekoek baino. 2001etik aurrera alderantzizko joera hartzen du eta gainera, aldea handitzen joan da. Batez beste, egun, urte erdi baino gehiagoko aldea dago hiriburuko emakumeen eta herrialdekoen artean.

Aztertutako lurralde eremu guztietan, joera antzekoa da: gero eta beranduago izaten dituzte umeak emakumeek. Dena dela, Europako datuari erreparatuta, 3,3 urteko aldea dago (Europar gazteago izaten dituzte) Donostiako datuarekin alderatuta.⁶

Ezaugarri demografiko adierazgarrienen artean, nabarmendu dezakegu Donostiako jaiotza-tasa progresiboki txikitu dela azken hamarkadetan (2008an ‰ 9,9 izatetik 2015ean ‰ 8,07 izatera); era berean, EAEn ere antzera txikitu da (1975ean ‰ 19,1 izatetik 2015ean ‰ 8,7 izatera). Horrek esan nahi du 28 herrialdeen Europar Batasunaren (EB28) tasaren azpitik dagoela (‰ 10 2015ean).⁷

3.3. Biztanleen adina

Donostiako biztanleria zahartuz doa pixkanaka⁸: 85 urte edo gehiagoko lau pertsonatik 3 emakumeak dira.

Gipuzkoako hiriburuak alderatzerakoan, Baiona nabarmentzen da gazteena bezala. Donostia, aldiz, bigarren zaharrena da. Eta ez dirudi gazteenen kopuruak, epe laburrean, joera horri buelta emango dionik.⁹

Donostiako batez besteko adina

EMAKUMEAK * 47,55

GIZONAK * 43,6

⁵Euskadiko ugalkortasunaren indize sintetikoa 2,67tik (1975/76) 1,33ra jaitsi zen 2010/11n, eta, era berean, denbora-tarte horretan, 28,6 urtetik 32,4 urtera igo zen amatasunaren batez besteko adina.

⁶<https://labur.eus/O4JZI>

⁷http://www.donostiafutura.com/media/uploads/publicaciones/Estrategia_E2020DSSren_eguneratze_dokumentua.pdf

⁸ Jaiotzen kopurua pixkanaka txikitzearen eta Donostiako biztanleen bizi-itxaropena handitzearen ondorioz gertatu da hala.

⁹<https://labur.eus/O4JZI>

4. Taula. Biztanleria piramidea urteko errolda datuen arabera

	Adin Tarteak	Gizon	Emakume
1	95 - >=	121	569
2	90 - 95	513	1633
3	85 - 90	1473	3304
4	80 - 85	2491	4369
5	75 - 80	2952	4269
6	70 - 75	4418	5614
7	65 - 70	5279	6272
8	60 - 65	5860	6850
9	55 - 60	6686	7538
10	50 - 55	6998	7717
11	45 - 50	6996	7239
12	40 - 45	7146	7092
13	35 - 40	6268	6526
14	30 - 35	5254	5458
15	25 - 30	4464	4622
16	20 - 25	4313	4107
17	15 - 20	4305	4063
18	10-15	4237	4042
19	5-10	4154	3801
20	0 - 5	3710	3654

Iturria: Donostiako Udala (2016/12/15)

Hirian emakume gehiago bizi dira gizonak baino (% 53 eta % 47, hurrenez hurren), eta adin piramideak adierazten duenez, zenbat eta zaharragoa biztanleria orduan eta handiagoa da alde hori. Hau da, gizon baino emakume gehiago dago, adin handiagoko tartetan bereziki. 2013ko diagnosiak joera berdina erakusten zigen.

3.4. Biztanleen kopurua auzoen arabera banatuta

Donostiako auzoetako hiritarren banaketa ondorengo da:

Auzo guztietan, Landarbaso auzoan izan ezik bertan 13 pertsona besterik ez direla bizi, emakumeen presentzia %50 eta %54 artean dago. Auzorik jendetsuenak Amara Berri (30.352 biztanle) eta Erdialdea (21.833 biztanle) dira, bestalde, Zubieta (289 biztanle), Igeldo (1.071 biztanle) eta Añorga (2.135 biztanle) dira biztanle gutxien dituzten auzoak.

Emakume baino gizon gehiago bizi dira aldaparik gabeko auzoetan eta etxebizitza zaharragoetan.

Adinari begira, Erdialdea eta Gros dira auzo *zaharkituenak* eta bertako etxebizitzak zaharragoak eta azalera handiagoko etxeak dira oro har, irisgarritasun arazoekin, igogailu gabeak edo igogailura iritsi aurreko zatian zailtasunak dituzten etxeak dira.

5.Taula . Biztanleen kopurua auzoen arabera banatuta

Urtea	Auzoa	Pertsonen Kopurua	Emakumeak	E%	Gizonak	G%	Batez Besteko Adina
2017	Amara Berri	30352	16410	54	13851	46	45,57
	Erdialdea	21833	12054	55	9780	45	49,06
	Altza	20318	10380	51	9938	49	44,36
	Gros	18480	10185	55	8295	45	49,02
	Intxaurreondo	15482	7993	52	7517	48	44,54
	Egia	15060	8114	54	6946	46	46,68
	Antiguo	14580	7812	54	6768	46	46,9
	Aiete	14410	7.350	51	7.151	49	41,57
	Ibaeta	9851	5112	52	4739	48	41,78
	Miracruz - Bidebieta	8931	4664	52	4267	48	46,65
	Loiola	4914	2460	50	2454	50	43,79
	Ategorrieta - Utia	4045	2075	52	1942	48	45,57
	Martutene	2704	1395	52	1309	48	43,8
	Miramon - Zorroaga	2199	1128	49	1074	51	42,52
	Añorga	2135	1089	51	1042	49	44,83
	Igeldo	1071	533	50	538	50	43,72
	Zubieta	289	151	52	138	48	43,31
Landerbaso	13	---	---	---	---	---	

Iturria: Donostiako Udala 2016

3.5. Ikasketa maila

Maila guztietan emakumeen ikasketa maila oso altua da, baina ikasketa gabeko talde handiena ere emakumeen artean dago.

6. Taula. Ikasketa maila Donostiako biztanleen artean sexuaren arabera banatuta

	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Bigarren mailako ikasketa orokorrak	12263	12582	24845
Bigarren mailako ikasketa profesionalak	6025	5971	11996
Ikasketarik gabe eta analfabetoak	3108	2333	5441
Informaziorik gabe	13309	14323	27632
Lehenengo mailako ikasketak	37619	30510	68129
Unibertsitateko ikasketak	26197	21822	48019

Iturria: Donostiako Udala

Generoen araberako begiradak erakusten duenez (Gipuzkoa osorako datuak, EUSTAT 2015), lanbide-ikasketetan izan ezik (horrelakoetan % 60,8 gizonak eta % 39,2 emakumeak dira), prestakuntza-estratu bakoitzeko gizonen eta emakumeen arteko proportzioan emakumeak dira nagusi; bereziki nabarmentzekoa da prestakuntza-mailaren bi muturretan dagoena, hau da, biztanle analfabeto edo ikasketarik gabekoetan (emakumeen ehunekoak % 63,3 da, EAEko batez bestekoa -% 65,2- baino txikiagoa, halere) eta unibertsitate-ikasketak dituzten biztanleen artean (ehuneko hori % 58ra iristen da, EAE osokoa -% 57,3- baino handixeagoa, beraz).¹⁰

3.6. Maila ekonomikoa

Donostiako etxeen errenta euskal hiriburuen¹¹ artean handiena da, baita estatuko handienetakoa ere. EAEko batez besteko errenta pertsonalaren eta Donostiaren errentaren artean, 4.584€ko aldea dago.

¹⁰http://www.donostiafutura.com/media/uploads/publicaciones/Estrategia_E2020DSSren_eguneratze_dokumentua.pdf

¹¹ EAE=100 oinarritzat hartuta, Donostiako 2014ko errenta pertsonala 116,5 izan zen; Bilboko eta Gasteizkoa, aldiz, 101,97 eta 100,9, hurrenez hurren.

7. Taula. 18 urteko eta gehiagoko biztanleriaren batez besteko errenta pertsonala, errenta motaren eta sexuaren arabera. 2016 (€, batez beste) Euskal Autonomia Erkidegoan eta Donostian.

	GUZTIRA	EMAKUMEAK	GIZONAK	G-E aldea
EAE				
Errenta guztira	19.968	15.175	25.152	9.977
Lan-errenta ¹²	11.950	8.990	15.151	6.161
Kapital higigarrien errenta	1.246	1.044	1.465	421
Kapital higiezin errenta	400	434	364	-70
Jardueren errenta	952	583	768	768
Transferentziak	5.419	4.124	6.820	2.696
Errenta erabilgarria	16.731	12.965	20.804	7.839
DONOSTIA				
Errenta guztira	24.552	19.903	29.984	10.081
Lan-errenta	13.447	10.681	16.677	9.014
Kapital higigarrien errenta	2.226	1.699	2.842	1.143
Kapital higiezin errenta	842	911	763	-148
Jardueren errenta	1.355	839	1.958	1.119
Transferentziak	6.682	5.773	7.743	1.970
Errenta erabilgarria	20.206	16.668	24.340	7.672

Iturria: EUSTAT Errenta Pertsonal eta Familiarraren Estatistika.

Donostiako familien aberastasun-maila nabarmen handitu zen krisiaren aurreko urteetan: 2001etik 2009ra artean, batez besteko familia-errentaren hazkundera $\Delta\%$ 44,9ra iritsi zen (49.539 €), eta denboraldi berean are handiagoa izan zen errenta pertsonalaren hazkundera, $\Delta\%$ 54,8koa, zehazki (23.054 €). Familia-errentak beherakada izan zuen hurrengo urteetan ($-\Delta\%$ 7,2, 2009-2013), eta batezbestekoa 45.987 € zen 2013an (EAEn baino handiagoa, batezbestekoa 40.179 € baitzen).

Hala ere, nabarmentzekoa da desoreka handiak daudela hiri mailan, desoreka aipagarrienak hiru dira, hala ere ez dira bakarrak, adinak, ikasketa mailak, jatorriak.. ezberdintasunak eragiten dituzte:

1. Generoaren arabera errenta pertsonalaren desoreka
2. Familia errentaren arabera desoreka
3. Donostiako auzoen arteko desorekak

¹² Lan-errentatzat hartuko da enplegatzaileak bere konturako langileari, honek sarreraren aldirian zehar egin dituen lanaren ordain gisa, ematen dion guztizko ordainsaria (diruzkoa izan zein ez). Etekin gordinak hartzen dira kontuan, hau da: Diruzko sarrerak, gauzako sarrerak, kontura egindako sarrerak, gizarte Segurantzaren gastuak, joan-etorriengatik dietak eta bidaiak-gastuak, kaleratzearen kalte-ordainak, nazioarteko misioetan parte hartzeagatik aparteko haborokin publikoak, atzerrian egin den lanaren etekinak, salbuetsita badaude.

3.6.1. Generoaren araberako errenta pertsonalaren desoreka

Lehenik eta behin, generoaren araberako errenta pertsonalaren desorekari dagokionez, esan behar da emakumeen batez besteko errenta pertsonala 18.176 € zela 2013an, eta gizonena, aldiz, 27.065 €¹³ (genero-desparekotasunaren indizea¹⁴ 2009an 62,7 izatetik 2013an 67,2 izatera igaro zen; hau da, handitu egin zen).

Donostiako emakumeen batez besteko errenta pertsonala 2016an 1.792 euro areagotu zen 2013ko datuekin alderatuz. Haatik, batez besteko 24.552 euroko errenta gizonen batez besteko errenta baino 10.000 euro baxuagoa da ia. Emakumeek gizonek baino batez besteko errenta baxuagoa jaso dute errenta mota guztietan, kapital higiezinetik datorrena salbuetsita, nahiz eta aldea ez den oso garrantzitsua, izan ere, batez besteko errentan ekarpen gutxien egiten duena da (errenta osoaren % 2,8 emakumeen kasuan eta errenta osoaren % 1,4 gizonen kasuan).

Errenta pertsonalaren geruza aztertzen badugu, errenta pertsonalaren estratu bakoitzean emakume eta gizonen portzentajea bereiziz, Gipuzkoan inolako errentarik gabeko 18 urte eta gehiagoko emakumeen % 12,9 ikus daiteke (gizonek baino portzentajezko 3,8 puntu gehiago).

Gipuzkoako emakumeen % 40,9k 9.001 eurotik beherako errentak ditu, eta tarte horretan gizonekiko aldea ia % 20koa da (18,5). Aitzitik, soilik emakumeen % 2,7k ditu 57.000 eurotik gorako errentak, eta portzentaje hori % 7,2koa da gizonen kasuan.

¹³ E2020DSS ESTRATEGIAREN EGUNERATZEA; Gizarte Kontseilua – 2017ko Uztailaren 3an.

¹⁴ Genero-desparekotasunaren indizea=emakumeen batez besteko errenta pertsonala*100/gizonen batez besteko errenta pertsonala.

8. Taula . EAEko eta Gipuzkoako 18 urteko eta gehiagoko biztanleria, errenta pertsonalaren geruzaren eta sexuaren arabera (%). 2016

	EAE			Gipuzkoa		
	Guztira	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Guztira	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Errentarik gabeak	12,5	10,3	14,6	11,1	9,1	12,9
<= 1500	8,1	4,1	11,9	7,3	3,8	10,6
1.501 - 4.500	4,8	3,5	5,9	4,4	3,3	5,5
4.501 - 9.000	9,3	6,6	11,9	9,1	6,2	11,8
9.001 - 15.000	14,8	11,6	17,8	13,7	10,5	16,8
15.001 - 21.000	12,6	13,3	12,1	12,5	12,2	12,9
21.001-27.000	10,3	13,3	7,6	11,2	13,6	8,7
27.001 - 33.000	7,9	10,6	5,5	8,8	11,6	6,2
33.001-39.000	7,0	9,5	4,7	7,5	9,9	5,2
39.001 - 45.000	4,5	6,0	3,1	4,8	6,3	3,5
45.001-51.000	2,5	3,3	1,8	2,9	3,9	1,9
51.001-57.000	1,4	2,0	0,9	1,8	2,5	1,1
57.001-63.000	1,0	1,3	0,6	1,1	1,6	0,7
63.001-69.000	0,7	1,0	0,4	0,8	1,1	0,5
69.001-75.000	0,5	0,7	0,3	0,6	0,8	0,4
75.001-81.000	0,4	0,6	0,2	0,4	0,6	0,3
81.001-87.000	0,3	0,4	0,2	0,3	0,5	0,2
>=87.001	1,3	2,0	0,6	1,5	2,3	0,7

Iturria: EUSTAT Errenta Pertsonal eta Familiarraren Estatistika.

Donostiako datuak aztertzen baditugu, errenta pertsonalak adin-tartearen arabera ikus daitekeenez, 60-64 urte bitarteko emakumeak dira batez besteko errenta handiagoak dituztenak (28.075€), nahiz eta lan arloko errenta gehienak aurreko tartean ematen diren (50-54 urte bitartean), 20.339 euroekin.

Adin tarte guztietan daude ezberdintasunak, baina adina handitu ahala desoreka handiago da. 65-75 urteko gizon eta emakumeen artean dago errenta pertsonalaren arteko ezberdintasun handiena (32.100€ izanik) eta 55-65 urteko gizon eta emakumeen artean ere desoreka handia da.

Oro har, gazteen artean daude ezberdintasun txikiak, hala ere, gazteen artean ere badaude, 35 urtetik gora errenta pertsonalaren arteko ezberdintasuna handitzen doa.

Errenta pertsonala handien duten emakumeak 60-64 eta 55-59 urteko emakumeak dira (28.075€ eta 26.469) eta errenta pertsonala txikiak duten emakumeak¹⁵ 25-29 urteko emakumeak (10.537€) eta 95 urtetik gorako emakumeak dira (15.967€).

¹⁵ 18-19 eta 20-24 urteko neska eta mutilak kontuan izan gabe, errenta pertsonala oso txikia baitute.

Gizonen kasuan errenta pertsonala handien duten gizonak 60-64 urte eta 65-69 urte bitarteko adina dute (43.566€ eta 40.321€). 30-34 urte eta 25-29 urteko gizonak dira errenta pertsonala txikiagoa dutenak (19.367 eta 10.927).

Aipagarria da adineko emakume eta gizonen artean ematen den ezberdintasuna, 85 urte baino gehiago duten gizonen batez besteko errenta 75.425€koa da, eta emakumeen kasuan 49.649€koa da, bien arteko aldea 25.776€koa izanik.

9. Taula. Donostiako batez besteko errenta pertsonala, sexu, adinaren (bosturteko) errenta-motaren arabera (euro). 2016

	Errenta osoa	Lanaren errenta	Kapital higigarrien errenta	Kapital higiezinaren errenta	Jardueren errenta	Transferentziak	Errenta erabilgarria
Guztira	24.552	13.447	2.226	842	1.355	6.682	20.206
18-19 urte	500	231	73	8	8	180	464
20-24 urte	2.725	2.033	60	40	60	531	2.496
25-29 urte	10.730	9.643	113	62	313	599	9.239
30-34 urte	17.737	15.452	346	90	828	1.021	14.782
35-39 urte	22.299	18.505	654	305	1.442	1.394	18.439
40-44 urte	25.362	20.998	740	542	1.843	1.239	20.700
45-49 urte	28.394	22.374	1.869	666	2.245	1.240	22.885
50-54 urte	31.518	24.296	2.451	801	2.409	1.561	24.877
55-59 urte	32.965	24.370	2.788	889	2.529	2.390	25.946
60-64 urte	35.284	20.091	3.970	1.040	2.238	7.945	28.101
65-69 urte	31.201	4.531	4.071	1.371	1.321	19.907	25.958
70-74 urte	26.097	757	4.864	1.710	556	18.210	22.189
75-79 urte	23.090	399	3.781	1.574	246	17.090	20.027
80-84 urte	20.974	272	3.094	1.607	233	15.768	18.615
85-89 urte	19.962	134	2.561	1.509	293	15.465	18.041
90-94 urte	18.781	47	2.335	1.424	96	14.878	17.201
95 urte eta gehiago	17.747	16	1.874	1.551	12	14.294	16.432

Iturria: EUSTAT Errenta Pertsonal eta Familiarraren Estatistika.

10.Taula. Donostiako gizonen batez besteko errenta pertsonala, sexu, adinaren (bosturteko) errenta-motaren arabera (euro). 2016

GIZONA	Errenta osoa	Lanaren errenta	Kapital higigarrien errenta	Kapital higiezinaren errenta	Jardueren errenta	Transferentziak	Errenta erabilgarria
Guztira	29.984	16.677	2.842	763	1.958	7.743	24.340
18-19 urte	478	247	31	3	0	197	454
20-24 urte	2.738	2.096	63	40	90	450	2.489
25-29 urte	10.927	9.840	140	57	363	528	9.376
30-34 urte	19.367	17.043	565	98	919	742	16.094
35-39 urte	25.143	21.021	990	295	1.801	1.037	20.599
40-44 urte	29.511	24.506	972	557	2.367	1.108	23.741
45-49 urte	34.422	26.522	2.946	667	2.988	1.299	27.453
50-54 urte	38.087	29.249	3.018	773	3.387	1.659	29.582
55-59 urte	40.313	28.929	4.072	876	3.765	2.671	31.419
60-64 urte	43.566	25.383	4.439	963	3.396	9.386	34.292
65-69 urte	40.321	6.771	5.148	1.267	2.103	25.033	33.156
70-74 urte	34.581	1.285	6.292	1.628	849	24.528	29.159
75-79 urte	32.090	796	5.331	1.406	354	24.203	27.433
80-84 urte	28.123	629	3.942	1.439	358	21.755	24.723
85-89 urte	26.531	339	3.555	1.448	624	20.564	23.576
90-94 urte	24.116	116	3.008	1.244	173	19.575	21.779
95 urte eta gehiago	24.778	57	2.605	2.723	51	19.342	22.184

Iturria: EUSTAT Errenta Pertsonala eta Familiarraren Estatistika.

11. Taula. Donostiako emakumeen batez besteko errenta pertsonala, sexu, adinaren (bosturteko) errenta-motaren arabera (euro). 2016

EMAKUME A	Errenta osoa	Lanaren errenta	Kapital higigarrien errenta	Kapital higiezinaren errenta	Jardueren errenta	Transferentziak	Errenta erabilgarria
Guztira	19.903	10.681	1.699	911	839	5.773	16.668
18-19 urte	523	215	118	13	16	161	475
20-24 urte	2.710	1.967	57	40	28	618	2.504
25-29 urte	10.537	9.452	86	66	265	669	9.106
30-34 urte	16.201	13.953	140	82	742	1.284	13.546
35-39 urte	19.523	16.049	325	316	1.091	1.742	16.330
40-44 urte	21.308	17.571	513	526	1.331	1.367	17.729
45-49 urte	22.462	18.293	809	665	1.514	1.181	18.391
50-54 urte	25.568	19.809	1.937	826	1.524	1.472	20.615
55-59 urte	26.469	20.339	1.653	900	1.436	2.141	21.108
60-64 urte	28.075	15.484	3.563	1.108	1.230	6.691	22.712
65-69 urte	23.483	2.636	3.160	1.459	659	15.569	19.866
70-74 urte	19.319	335	3.723	1.776	323	13.163	16.622
75-79 urte	16.576	112	2.658	1.697	168	11.941	14.667
80-84 urte	16.612	54	2.577	1.710	156	12.115	14.888
85-89 urte	16.708	32	2.068	1.540	129	12.940	15.301
90-94 urte	16.974	24	2.108	1.485	70	13.287	15.651
95 urte eta gehiago	15.967	6	1.689	1.254	2	13.016	14.976

Iturria: EUSTAT Errenta Pertsonal eta Familiarraren Estatistika.

Taula 12. Donostiako gizonen batez besteko errenta pertsonala, sexu, adinaren (hamarurteko) errenta osoaren arabera (euro). 2016

GIZONAK		EMAKUMEAK		G- E aldea
18-24 urte	3.216	18-24 urte	3.233	17
25-34 urte	30.294	25-34 urte	26.738	3.556
35-44 urte	54.654	35-44 urte	40.831	13.823
45-54 urte	72.509	45-54 urte	48.030	24.479
55-64 urte	83.879	55-64 urte	54.544	29.335
65-74 urte	74.902	65-74 urte	42.802	32.100
75-85 urte	60.213	75-85 urte	33.188	27.025
+85 urte	75.425	+85 urte	49.649	25.776

Iturria: EUSTAT Errenta Pertsonal eta Familiarraren Estatistika.

3.6.2. Familia errentaren arabera desoreka

Errenta pertsonalari erreparatu beharrean errenta familiarrari so egiten denean, ikus daiteke Euskadiko familien batez besteko errenta 42.464 eurokoa dela eta Donostiako familien batez bestekoa handiagoa dela (50.656 eurokoa), 8.192 euroko aldea dago.

Familiako batez besteko errenta hartzaile nagusia emakume bat denean errenta 36.819 eurokoa da, hau da, hartzaile nagusia gizon bat duten familietan baino 9.890 euro baxuagoa. Alde hori areagotu egiten da errenta erabilgarriari so, bertan, aldea 8.007 eurokoa izanik. Hartzaile nagusiaren sexuaren arabera alderik handiena erakusten duten errenta motak dira lan-errenta eta transferentziak (4.000 euro inguruko aldea).

Gipuzkoako familia ereduari erreparatzen badiogu, familia gurasobakarretatik ama bakarreko familia kopurua 20.500 (%83) aita bakarreko familia kopurua 4.100 (%17) baino handiago da.

13. Taula.EAeko eta Donostiako batez besteko familiako errenta hartzaile nagusiaren sexua¹⁶ eta familiaren tamaina kontuan hartuz, errenta motaren arabera 2015 (€, batez beste)

	Errenta osoa	Lanaren errenta	Kapital higigarrien errenta	Kapital higiezinaren errenta	Jarduerearen errenta	Transferentziak	Errenta erabilgarria
EAE							
Guztira	42.464	25.367	2.571	883	2.008	11.634	35.603
Gizonak	46.709	26.960	3.017	951	2.229	13.551	39.040
Emakumeak	36.819	23.248	1.979	793	1.713	9.086	31.033
DONOSTIA							
Guztira	50.656	27.805	4.615	1.745	2.813	13.678	41.656

Iturria: EUSTAT Errenta Pertsonal eta Familiarraren Estatistika.

3.6.3. Donostiako desorekak auzoen arabera

Donostiako etxeen errenta euskal hiriburuen artean handiena bada ere, ezberdintasun handiak daude hiri mailan. Ezberdintasunak maila guztietan ematen dira, auzoen artean, auzo bakoitzeko auzokideen artean, auzo bakoitzeko emakume eta gizonen artean eta hiri mailan, lehen ikusi dugun bezala, Donostiako emakume eta gizonen artean.

Auzo aberatsenaren errenta (*aberatsa*, arrazoi ekonomikoak aintzakotzat hartuta) (Miramon-Zorroaga) errenta txikieneko auzoarena (Altza) baino 2,5 aldiz handiagoa da, eta zazpi auzok udalerriko batez bestekoa baino errenta txikiagoak dituzte (Añorga, Intxaurrondo, Egia, Loiola, Mirakruz-Bidebieta, Martutene eta Altza). Lau auzok hiriko batez besteko familia-errenta baino % 20 handiagoa dute (Miramon-Zorroaga, Aiete, Antigua eta Ibaeta) Errenten mailak ekialdearen eta mendebaldearen artean zatiketa dagoela erakusten du.

¹⁶ Donostiako kasuan ez dago datua sexuaren arabera jasota.

14. Taula. 2016. Donostiako batez besteko pertsona-errenta, lurralde eremuen arabera, auzoari, sexuari eta errenta motari jarraiki (euroak)

		Errenta osoa		Lanaren errenta	
Donostia	Batezbesteko	24.552	---	13.447	---
	Gizona	29.984	---	16.677	---
	Emakumea	19.903	---	10.681	---
	G-E aldea	---	%20,22	---	%21,81

Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta etxebizitzaren estatistika.

Auzo bakoitzaren errenta pertsonalak aztertzen ditugunean, emakume eta gizonen arteko ezberdintasun handienak, auzo aberatsetan aurkitzen ditugu.

Donostiako errenta pertsonalaren batez bestekoa 24.552 eurokoa da, gizonen kasuan 29.984 eurokoa da eta emakumeen kasuan, 19.903 eurokoa, beraz, gizonen errenta pertsonala 10.081 euro handiago da. Beste era batera esanda, gizonen batez besteko errenta %20 handiago da.

Miramon-Zorroaga auzoan bizi diren gizonen errenta pertsonalaren batez beste 57.824 eurokoa da, eta bertako emakumeena 24.704 eurokoa, bien arten %57,2ko aldea dago. Miramon-Zorroagaren ostean, ezberdintasun handienak, Ategorrieta-Ulia eta Aieteko emakume eta gizonen errenta pertsonalen artekoak dira hiri mailan (%42,8 eta %42). Ezberdintasun txikienak, Egia, Gros eta Igeldoko emakume eta gizonen artean topatzen ditugu, %27,9, %27,8 eta %25,6, hurrenez hurren.

15. Taula. 2016. Donostiako batez bestekoa pertsona-errenta, auzoari eta sexuari jarraiki (euroak). Emakume eta gizonen arteko ezberdintasun handien dituzten auzoen arabera ordenatuta (ezberdintasun handienetik txikira)

1	Miramon-Zorroaga	Batezbestekoa	40.850
		Gizona	57.824
		Emakumea	24.706
		G-E Aldea	%57,2
2	Ategorrieta-Ulia	Batezbestekoa	27.995
		Gizona	36.146
		Emakumea	20.640
		G-E Aldea	%42,8
3	Aiete	Batezbestekoa	31.950
		Gizona	40.767
		Emakumea	23.634
		G-E Aldea	%42
4	Altza	Batezbestekoa	16.575
		Gizona	20.920
		Emakumea	12.493
		G-E Aldea	%40,2
5	Antiguo	Batezbestekoa	31.141
		Gizona	39.837
		Emakumea	23.823
		G-E Aldea	%40,1
6	Antorga	Batezbestekoa	21.919
		Gizona	27.251
		Emakumea	17.042

		G-E Aldea	%37,4
7	Miracruz-Bidebieta	Batezbestekoa	18.937
		Gizona	23.477
		Emakumea	14.947
		G-E Aldea	%36,3
8	Zubieta	Batezbestekoa	22.603
		Gizona	27.353
		Emakumea	18.260
		G-E Aldea	%33,2
9	Loiola	Batezbestekoa	19.288
		Gizona	23.158
		Emakumea	15.497
		G-E Aldea	%33
10	Ibaeta	Batezbestekoa	27.928
		Gizona	33.766
		Emakumea	22.655
		G-E Aldea	%32,9
11	Martutene	Batezbestekoa	18.707
		Gizona	22.430
		Emakumea	15.338
		G-E Aldea	%31,6
12	Amara Berri	Batezbestekoa	24.672
		Gizona	29.689
		Emakumea	20.649
		G-E Aldea	%30,4
13	Intxaurreondo	Batezbestekoa	19.290
		Gizona	22.820
		Emakumea	16.020
		G-E Aldea	%29,7
14	Erdialdea	Batezbestekoa	29.839
		Gizona	35.746
		Emakumea	25.261
		G-E Aldea	%29,3
15	Egia	Batezbestekoa	20.420
		Gizona	24.116
		Emakumea	17.365
		G-E Aldea	%27,9
16	Gros	Batezbestekoa	24.898
		Gizona	29.509
		Emakumea	21.297
		G-E Aldea	%27,8
17	Igeldo	Batezbestekoa	23.274
		Gizona	26.672
		Emakumea	19.827
		G-E Aldea	%25,6

Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta etxebizitzaren estatistika.

Auzo bakoitzeko unitate txikiagoak aztertzen baditugu, maila horretan ere ezberdintasunak agertzen dira. Miramon-Zorroagako batez besteko errenta pertsonala 40.850 eurokoa da, baina bertako Miramon kalean batez besteko errenta pertsonala 84.252 eurokoa da. Aieten batez besteko errenta pertsonala 31.950 eurokoa da, eta bertako Bera-Bera kaleko batez besteko errenta 78.545 eurokoa da.

Emakume eta gizonen batez besteko errenta pertsonalaren artean ezberdintasun txikienak dituzten auzoetan, Egia, Gros eta Igeldo, ezberdintasun handienak jaiotze lekuaren arabera aurkitzen dira.

16. Taula. Batez besteko errenta pertsonalari so, gizon eta emakumeen artean errenta ezberdintasun handienak dituzten hiriko 3 auzoak, unitate txikien eta jaiotze lekua gorabehera (eurotan) 2016

Miramon- Zorroaga		40.850
Ospitaleak	Guztira	20.876
	Espainia	23.838
	Atzerritar	6.062
Iyola	Guztira	33.707
	Espainia	34.920
	Atzerritar	5.076
Miramon	Guztira	76.074
	Espainia	84.252
	Atzerritar	12.942
Oriamendi	Guztira	36.704
	Espainia	38.122
	Atzerritar	16.486
Zorroaga	Guztira	35.797
	Espainia	34.779
	Atzerritar	47.041
Ategorrieta-Ulia		27.995
Ategorrieta	Guztira	27.212
	Espainia	29.155
	Atzerritar	10.526
Manteo	Guztira	21.048
	Espainia	22.317
	Atzerritar	8.066
Ulia - Barren	Guztira	37.159
	Espainia	38.612
	Atzerritar	20.867

(.../...) 16. Taula. Batez besteko errenta pertsonalari so, gizon eta emakumeen artean errenta ezberdintasun handienak dituzten hiriko 3 auzoak, unitate txikien eta jaiotze lekua gorabehera (eurotan) 2016

Aiete		31.950
Arbaizenea	Guztira	29.167
	Espainia	30.376
	Atzerritar	11.725
Bera - Bera	Guztira	41.404
	Espainia	38.949
	Atzerritar	78.545
Errondo	Guztira	24.747
	Espainia	26.095
	Atzerritar	14.480
Etxadi	Guztira	26.473
	Espainia	27.554
	Atzerritar	12.622
Lugaritz	Guztira	34.129
	Espainia	36.744
	Atzerritar	11.998
Mirakontxa	Guztira	42.249
	Espainia	45.221
	Atzerritar	12.240
Munto	Guztira	30.582
	Espainia	32.067
	Atzerritar	13.083
Pagola	Guztira	26.114
	Espainia	27.981
	Atzerritar	12.114
Aiete jauregia	Guztira	27.788
	Espainia	29.750
	Atzerritar	9.893
Puio - Lanberri	Guztira	27.685
	Espainia	28.311
	Atzerritar	14.491

Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta etxebizitzaren estatistika.

17. Taula. Batez besteko errenta pertsonalari so, gizon eta emakumeen artean errenta ezberdintasun txikienak dituzten hiriko 3 auzoak, unitate txikien eta jaiotze lekua gorabehera (eurotan) 2016

Egia		20.420
Aldakoenea	Guztira	19.425
	Espainia	20.614
	Atzerritar	9.172
Atotxa	Guztira	21.492
	Espainia	22.901
	Atzerritar	6.870
Iruresoro	Guztira	17.809
	Espainia	19.578
	Atzerritar	5.218
Jai - Alai	Guztira	21.555
	Espainia	23.117
	Atzerritar	5.962
Urumea pasealekua	Guztira	28.898
	Espainia	30.137
	Atzerritar	14.154
Tolaregoia	Guztira	26.424
	Espainia	26.579
	Atzerritar	21.790
Gros		24.898
Gros	Guztira	25.049
	Espainia	27.460
	Atzerritar	6.786
Sagües	Guztira	21.542
	Espainia	23.721
	Atzerritar	8.682
Igeldo		23.274
Amezti	Guztira	32.594
	Espainia	34.385
	Atzerritar	15.357
Igeldo	Guztira	20.380
	Espainia	21.856
	Atzerritar	9.866

Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta etxebizitzaren estatistika.

Hiriko datuak orokorrean begiratzen baditugu, Erdialdean bizi diren emakumeek dituzte batez besteko errenta pertsonal handienak, 25.261 eurokoak; Miramon-Zorroaga (24.706 euro), Antiguu (24.706 euro) eta Aieteko (23.823 euro) auzoetan bizi diren emakumeak izango dira hirian errenta pertsonal handienak dituztenak. Ostera, Alzako (12.493 euro), Miracruz-Bidebieta (14.947 euro) eta Martuteneko (15.338 euro) auzoetan bizi diren emakumeek dituzte errenta pertsonal txikienak.

Altza, Miracruz-Bidebieta, Martutene eta Loiola auzoetako emakumeen errenta pertsonalen batuketa 57.191 eurokoa da eta Miramon-Zorroagoko gizonen batez besteko errenta pertsonala 57.824 eurokoa, beraz, auzo aberatsetako gizonek, 4 auzoetako emakumeek hainbesteko errenta daukate. Kasu horretan, Miramon-Zorroagako gizonen errenta, hiriko errenta handien duten emakumeen baino 2,2 aldiz handiagoa da, Erdialdeko emakumeak dira hauek, 25.261 euroko errenta dutenak.

Gizonen kasuan, Miramon-Zorroaga (57.824 euro), Aiete (40.767 euro) eta Antiguu (39.837 euro) auzoetan bizi diren gizonak dira batez besteko errenta pertsonal handienak dituztenak. Aitzitik, Altza (20.920 euro), Martutene (22.430 euro) eta Intxaurrondo (22.820 euro) auzoetan bizi diren gizonek dituzte batez besteko errenta pertsonal txikienak.

Gizonen errenten artean ematen diren ezberdintasunak emakumeen artean ematen diren ezberdintasunak baino handiagoak dira, baina arrakala handiena hiriko emakume eta gizonen artean dago, izan ere, errenta handiena duen emakumea, errenta txikien duen gizonetik hurbil dago. Erdialdeko auzoetan bizi diren emakumeak 25.261 euroko batez besteko errenta dute, eta Intxaurrondoko gizonek 22.820 eurokoa, 1,2 aldiz txikiagoa bakarrik.

Taula 18. (2016) Hiriko auzoen emakume eta gizonen batez besteko errenta pertsonala handienetik txikira ordenatuta.

		Errenta osoa			Errenta osoa
Erdialdea	Emakumea	25.261	Miramón-Zorroaga	Gizona	57.824
Miramón-Zorroaga	Emakumea	24.706	Aiete	Gizona	40.767
Antiguo	Emakumea	23.823	Antiguo	Gizona	39.837
Aiete	Emakumea	23.634	Ategorrieta-Ulia	Gizona	36.146
Ibaeta	Emakumea	22.655	Erdialdea	Gizona	35.746
Gros	Emakumea	21.297	Ibaeta	Gizona	33.766
Amara Berri	Emakumea	20.649	Landarbaso*	Gizona	33.210
Ategorrieta-Ulia	Emakumea	20.640	Amara Berri	Gizona	29.689
Igeldo	Emakumea	19.827	Gros	Gizona	29.509
Zubieta	Emakumea	18.260	Zubieta	Gizona	27.353
Egia	Emakumea	17.365	Antorga	Gizona	27.251
Antorga	Emakumea	17.042	Igeldo	Gizona	26.672
Intxaurrondo	Emakumea	16.020	Egia	Gizona	24.116
Loiola	Emakumea	15.497	Miracruz-Bidebieta	Gizona	23.477
Martutene	Emakumea	15.338	Loiola	Gizona	23.158
Miracruz-Bidebieta	Emakumea	14.947	Intxaurrondo	Gizona	22.820
Landarbaso*	Emakumea	14.413	Martutene	Gizona	22.430
Altza	Emakumea	12.493	Altza	Gizona	20.920

Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta etxebizitzaren estatistika.

3.6.4. Hiritarren pertzepzioari buruzko inkestak eta maila ekonomikoa

Hiritarren pertzepzioari buruzko inkestak¹⁷ 10etik 8,75eko batez besteko nota ematen dio Donostian bizitzearen gogobetetze mailari.

Inkestak, hirian gutxien baloratzen diren edo inkestarietara gehien arduratzen dieten zenbait alde agerian jartzen ditu: etxebizitza bat arrazoizko prezioan aurkitzeko ezintasuna eta Donostia bizitzeko hiri garestia dela.

Era berean, inkesta honetan, elkarrizketatu bakoitzaren familia egoerari eta egoera pertsonalari buruzko emaitzak aurkezten dira eta hobeto baloratzen diren alderdiak ingurunea eta bizimodua dira; lanbide-egoera eta familia-unitateko finantza-egoera balorazioa okerragoa dute. Emakume izateak eta 30 eta 44 urte artean izateak eragin negatiboa dute azken bi alderdi hauetan.

¹⁷ Hiritarren Pertzepzioari buruzko Inkesta, Donostiako 2020 Plan Estrategikoaren segimenduaren esparruan kokatzen da. Hiriari buruz, hiriaren etorkizunari buruz eta hiriak dituen erronkei buruz herritarrek dituzten sentipenak neurtzeko tresna baliagarria da.

Hiritarren Pertzepzioari buruzko Inkesta 2017. Lehen zatia

Egilea: Estrategia Bulegoa

HIRIARI BURUZKO IKUSPUNTUAK¹⁸

Hemeretzi alderdiri buruzko gogobetetze maila ebaluatu da, eta horietako zazpik balorazio garbiki positiboa izan dute. Zeharo iritzi negatiboak eragin dituzten bi baieztapen kenduta (erraza da etxebizitza arrazoizko prezio batean aurkitzea eta Donostia EZ da hiri garestia bizitzeko), gainerako baieztapenen batez bestekoa 6,15 puntukoa da (10etik). Lau alderdik batez besteko horren inguruko balorazioa izan dute, eta gainerako seik, berriz, 6 puntu baino gutxiago izan dituzte

(...) Aipatu den bezala, guztizko desadostasuna eragin dute baieztapen hauek: erraza da etxebizitza bat arrazoizko prezioan aurkitzea eta Donostia EZ da hiri garestia bizitzeko¹⁹.

Hiritarren Pertzepzioari buruzko Inkesta 2017. Lehen zatia

Egilea: Estrategia Bulegoa

GOGOBEETZE MAILA: EGOERA PERTSONALA²⁰

Gogobetetze-maila handienetik txikienera, hona hemen ebaluatutako alderdiak:

- . Bizi zaren ingurunea
- . Duzun bizimodua
- . Zure lanbide-egoera
- . Zure familia-unitateko finantza-egoera

(...) Lau adierazleen emaitza garbiki positiboa izan da. Lehen bi alderdiek (bizi zaren ingurunea (8,1) eta bizimodua (7,7) gogobetetze-maila handiagoa lortu dute lan-egoerari (6,7) eta finantza-egoerari (6,4) buruzkoek baino.

Langabezia-egoerak eta zailtasun ekonomikoek eragin negatiboa dute lau alderdietan; halaber, emakume izateak eta 30 eta 44 urte artean izateak eragin negatiboa dute azken bi alderdietan.

¹⁸http://www.donostiafutura.com/media/uploads/publicaciones/Hiritarren_pertzepzioari_buruzko_inkesta_2017_lehen_zatia.pdf

¹⁹ Donostia EZ* da hiri garestia bizitzeko (* «Donostia hiri garestia da bizitzeko» baieztapenarekiko adostasun maila zein den galdetuta,emaitza alderantzizkoa da)

²⁰http://www.donostiafutura.com/media/uploads/publicaciones/Hiritarren_pertzepzioari_buruzko_inkesta_2017_lehen_zatia.pdf

4. Ikerlan arlo bakoitzaren datu nagusiak



4.1. Berdintasuna eta Emakumeen aurkako Indarkeria



<<Donostian emakume eta gizonak berdintzatzen al dira?>> galderaren aurrean, %65,9-ek ezetz erantzun du burututako galdetegian, baina, galdera honek, beste galdera batera garamatza, izan ere, ba al da Donostia beste hiriak baino ez parekidegoa? Ezinezkoa da hiri bat, sistema matxista globalizatutik kanpo egotea. Bestalde, Donostiako hiriak baditu bere berezitasun matxista eta ez parekideak; horiek identifikatzea eta eraldatzea izango da erronka.

4.1.1. Donostiako Emakumeen Etxea

ZER DA EMAKUMEEN ETXEA?²¹

Donostiako Emakumeen Etxea hiriko mugimendu feministaren eta emakumeen talde askoren eskaera historikoa izan da. 2010eko azaroaren 10ean, Emakumeen Etxea ireki zen. Hala, talde feministek, emakumeen elkarteek eta Berdintasun Bulegoak partekatzen zuten ametsa errealitate egin zen.

Emakumeen Etxearen oinarrian kudeaketa-eredu aitzindari bat dago, izan ere, 3 erakunde dira Etxea elkar kudeatzen dutenak: Emakumeen Etxea elkarteak, Donostiako Udaleko Berdintasun arloak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Udalak proiektuaren egoitza den ekipamendua hornitu eta esparruaren dinamizazioa finantzatzen du. Lanaldi osoan aritzen diren bi langilek dinamizatzen dute esparrua; haietako bat Berdintasun arloko langilea da eta bestea, Emakumeen Etxea elkartekoa. Gipuzkoako Foru Aldundiak lantegiak, ikastaroak... eta, oro har, Emakumeen Etxea elkarteak diseinatzen eta bultzatzen dituen jarduera guztiak finantzatzen ditu.

Emakumeen Etxearen elkarteak, esparru hori administrazioarekin batera kogestionatu nahi duten emakume desberdinei ahotsa emateko tresna juridiko gisa jaio zen eta gaur egun 1200 bazkide ditu.

Donostiako Emakumeen Etxearen datu batzuk:

- 2010eko azaroaren 10ean, Emakumeen Etxea ireki zen. Hasieratik bisitarien kopurua mantendu egin da. Emakumeen Etxearen elkarteak, sortu zenetik izandako gorakada, esanguratsua da.
- 2013. urtetik, 141.004 bisitari izan ditu Donostiako Emakumeen Etxeak.
- 119 formazio ibilbide antolatu dira eta hauetan 1520 emakumek parte hartu dute.
- Urtero burutu diren proiektuetan, 763 emakumek parte hartu dute eta hainbat tailer, hitzaldi, jabeakuntza ikastaro.. egon dira Emakumeen Etxea sortu zenetik.

²¹ <https://www.donostiakoemakumeenetxea.com/lacasa>

Taula 19. Emakumeen Etxearen erabiltzaileen datuak

	Bisita Kopurua	Hileroko batz bestekoa	Eguneko	Bazkide kopurua
2013	40.042	3.336	110	-
2014	33.521	2.794	92	-
2015/2016	33.652	2.822	95	600
2016/2017	33.789	2.816	93	843

Iturria: Donostiako Emakumeen Etxearen urteko memoriak

Taula 20. Emakumeen Etxearen zerbitzuen inguruko datuak

	Zerbitzuak	Proiektuak	Ikastaroak	Hitzaldiak	Erakusketak	Bestelakoak
2012	-	8	25	27	4	70
2013	5 zerbitzu; 968 partaide	6 proiektu; 96 partaide	25 ikastaro; 399 partaide/16*	30 hitzaldi; 631 partaide	3	6 beste; 78 partaide
2014	5 zerbitzu; 766 partaide	4 proiektu; 80 partaide	28 ikastaro; 434 partaide/16*	16 hitzaldi; 290 partaide	3	5 partaide
2015/ 2016	5 zerbitzu; 1182 partaide	2 proiektu; 171 partaide	24 ikastaro; 330 partaide/14*	-	-	-
2016/ 2017	5 zerbitzu; 1205 partaide	3 proiektu; 408 partaide	17 ikastaro; 357 partaide/21*	-	-	-

Iturria: Donostiako Emakumeen Etxearen urteko memoriak

Zerbitzuak kontuan hartzen baditugu, 2013.urtetik, Aholkularitza juridikoa eta gizarte esku-hartzea zerbitzuetik 1348 emakume pasa dira, Biluzik mundura zerbitzuetik 543, "Iguálate" Ikasketak homologatzeko kanpainatik 771, Norbanakoaren jabekuntzarako gunetik 887 eta Etxeko langileentzat aholkularitza 141 emakume pasa dira, azken zerbitzu honen datuak 2016/2017koak direlarik.

Beraz, esan daiteke, Aholkularitza juridikoa eta gizarte esku-hartzea zerbitzua dela gehien erabiltzen den zerbitzua, gainera, zerbitzu hau martxan jarri zenetik gorakada izan du urtero.

Donostiako Emakumeen Etxea lurraldean eredu

Berdintasunaren aldeko lanari dagokionez adostasun handia dago emakumeen jabekuntzaren alde lan egiteko beharraren inguruan, emakumeek bizitzako esparru guztietan parte hartze eta eragin handiago izatea lor dezaten.

Emakumeen Etxe bakoitza desberdina dela bistakoa da, hemengo berezitasunen artean agian, mugimendu Feministaren eta Donostiako Udaleko Berdintasun sailaren arteko kudeaketa partekatua izan daiteke. Edonola, Emakume asko eta askotarikoen topaketarako, formaziorako, pentsamendurako eta ekintzarako sortutako gunea da Emakumeen Etxea.²²

2017an, Emakumeen Etxeak 33.789 bisitari izan zituen eta hiritar askoren aldarrikapena da etxe berri bat izatea, Okendo kaleko eraikina txikia geratu baita aurrera eramaten diren proiektu eta ekimenak ikusita.

4.1.2. Sexu aniztasuna

Sexu-genero harremanaren arabera, sexu desberdineko bikoteak edo bikote heterosexualak dira gehien-gehienak. Guztira, %81,1 izatera iristen dira. Hego Euskal Herriko eta Gipuzkoako datuak antzekoak dira, baina hiru puntu apalagoak.

Edonola ere, azken hamar urte hauetan, bai Hego Euskal Herrian bai Gipuzkoan eta bai Donostian ere, horrelako bikoteetan ehunekoa puntu bat jaitsi da. Datu hauen arabera, Donostian 300 bikote homosexual egongo lirateke, 2001ean baino 143 gehiago.²³

Sexu-genero sistema binarioa, sistema patriarkalaren ondorio zuzena, desparekotasun-iturri bortitz bat da, sexu-aniztasuna eta genero ez-normatiboak ukatzen dituen aldetik. LGTBIQ+ pertsonen eragiten dieten edo pertsona horiek bizi dituzten askotariko errealitateak, arazoak, beharrak eta aldarrikapenak kontuan izan behar dira, berdintasunerako politikak diseinatzen direnean.

Generoaz gain, ezin dira ahaztu —are gehiago, ez dira ahaztu behar— desparekotasunak sortzen dituzten egiturazko beste iturri batzuk, hala nola adina, kultura-jatorria, administrazio-egoera, gizarte-klasea eta aniztasun funtzionala.

²² Memoria 2016-2017. Donostiako Emakumeen Etxea

²³ DONOSTIAKO HAUR, NERABE ETA GAZTEEN DIAGNOSTIKOA. 2014

4.1.3. Indarkeria matxista

Indarkeria gizon batzuek baliatzen dute emakumeen kontra, emakumeak izateagatik baino ez, eta hainbat modutara esaten zaio: indarkeria sexista, genero-indarkeria edo emakumeen aurkako indarkeria. Gizonek emakumeen gainean botere-sistema asimetrikoa dutela ulertzen dutelako gertatzen da, generoan oinarritutako bereizketa eragiten duena. Dokumentu honetan, indarkeria matxista terminoa erabiliko da²⁴, indarkeria matxista termino orokor moduan erabiltzen da, eta definizio hau ematen da: sozializazio bitarrean eta genero ezberdintasunean jatorria duen indarkeria. Termino horren barruan, bi indarkeria mota daude:

- . indarkeria sexista, hau da, emakumeek emakume izateagatik jasaten duten indarkeria; duen helburua emakumeen kontrola eta haien gaineko nagusitasuna betikotzea da.
- . beste indarkeria matxista batzuk, hau da, atxikita daukaten genero bitarra eta sexualitate eginkizun sozialei erantzuten ez dieten pertsonen pairatzen dituztenak. Homofobia, lesbofobia eta transfobia lirateke.

Euskal Autonomia Erkidegoko datuek erakusten digute, 2016. urtean zehar, guztira indarkeriaren biktima izandako 3.774 emakume erregistratu zirela.

Biktima horietako gehienek beren bikote edo bikote-ohien eskutik pairatzen dute indarkeria hori, zehazki, egoera hori kasu guztien % 74,1ean gertatu da (2.797 emakume).

Aldi berean, emakume horien % 19,8k beren familiako gizonen baten eskutik erasoak pairatu ditu (746 emakume) eta gainerako % 6,1, hots, 231 emakume, sexu-askatasunaren aurkako delituen biktima izan da.²⁵

²⁴ Gipuzkoan emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko I. Foru Plana Aurre!

²⁵ Zifrak: Emakumeak eta gizonak Euskadin (2017)

Gipuzkoa lurraldeko datuek erakusten digute bilakaeraren ikuspegia kontuan hartuz, geroztik emakumeen aurkako indarkeria areagotuz joan dela.

22. Taula . Indarkeria matxista. Oinarrizko adierazle eta aldagaiak

Oinarrizko adierazle eta aldagaiak. Gipuzkoa

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
A01 Indarkeria matxistaren emakume-biktimak (10.000 emakumekiko tasa)	Daturik gabe	Daturik gabe	29,84	31,39	32,08	31,35	33,58	33,44	30,78	32,93
A02 Indarkeria matxistaren 18 urte baino gutxiagoko emakume-biktimak (18 urte baino gutxiagoko 10.000 emakumekiko ta..)	Daturik gabe	Daturik gabe	Daturik gabe	Daturik gabe	14,65	15,68	19,05	22,21	13,32	20,77
A03 Emakumearen biktimizazioa indarkeria matxistaren ondorioz (10.000 emakumekiko tasa)	36,73	38,79	36,28	40,86	42,26	40,66	43,03	43,3	38,49	40,87
A04 Indarkeria matxistaren heriotza-biktimak (100.000 emakumekiko tasa)	Daturik gabe	0,28	0,56	0,28	0,28	0	0	0	0	0
A05 Emakumearen Gaineko Indarkeriaren arloko Epaitegian jasotako salaketak (10.000 emakumekiko tasa)	28,14	29,87	28,45	32,08	26,83	26,46	29,69	31,14	35,63	35,73
A06 Salaketak/Emakumearen Gaineko Indarkeriaren arloko Epaitegian jasotako salaketak ratioa: emakumeak guztira	19,44	24,16	26,24	19,12	22,05	22,93	23,25	15,18	5,74	4,79
A07 Salaketak/Emakumearen Gaineko Indarkeriaren arloko Epaitegian jasotako salaketak ratioa: herritartasun espainiarra..	Daturik gabe	Daturik gabe	Daturik gabe	19,02	21,04	19,88	21,02	13,74	6,03	4,11
A08 Salaketak/Emakumearen Gaineko Indarkeriaren arloko Epaitegian jasotako salaketak ratioa: herritartasun atzeritarra..	Daturik gabe	Daturik gabe	Daturik gabe	19,28	23,76	29,21	27,81	19,2	5,24	6,14
A09 Emakumearen Gaineko Indarkeriaren arloko Epaitegian auzipetu eta kondenatutako gizonen kopurua (10.000 g..)	3,77	3,58	5,04	4,83	4,45	3,55	4,4	4,13	5,47	6,35

Iturria: Gipuzkoako Gizarte Behatokia 2016

Biktima eta biktimizazioak²⁶ lurralde historikoaren arabera aztertuz beren artean antzeko banaketa ikus daiteke. Bizkaian biktimizazio-kasuak % 55,0era iristen dira, %54,6 biktimen artean; Gipuzkoan % 30,1era, % 29,9 biktimen artean; eta, azkenik, Araban % 14,9ra, % 15,5 biktimen artean.

Datuak, 2016koak, adin-taldetan banatuta aztertuz ikus daitekeenez, adin txikiko emakumeen artean (18 urte bete arte) familia barneko indarkeria nagusitu da, nahiz eta 14-17 urte bitarteko biktimen % 32,0k bikoteak edo bikote-ohiak eragindako indarkeria pairatu duen.

Era berean, 18-64 urte bitarteko emakumeen multzoan egungo bikoteak edo bikote-ohiak eragindako indarkeria nagusitzen da argiro. 65 urtetik gorako emakumeen multzoari dagokionez, berriro ere familia barneko indarkeria azaltzen da gehienbat.²⁷

²⁶ Biktimizazioa ematen da emakumeak lege-hauste penala (mehatxuak, lesioak, etab.) jasan duen bakoitzean, epealdi luze baten barruan.

²⁷ Emakunde_zifrak 2017

Indarkeriaren biktima izan diren emakumeen jaiolekuaren arabera ikus daitekeenez, erdia baino gehiago, % 53,6, EAEn jaiotakoa da, % 12,8 beste Autonomia Erkidegoren batean jaio ziren eta hiru emakumetik bat (% 33,6) atzerrian jaiotakoa da. Nabarmendu behar da, emakumeak leku ezberdinetan jaio arren, kasu guztietan bikoteak edo bikote-ohiak eragindako indarkerian ematen direla tasa handienak.²⁸

Espainiako Estatuko Fiskaltzak 2009tik 2016rako emandako datuen arabera, urte horietan 1.055.992 salaketa jarri ziren indarkeria matxistagatik. Horietako 194 salaketari espedientea ireki zieten salaketa faltsuak zirelakoan. 79k zigorra jaso zuten salaketa faltsuak izateagatik. Beraz, espedientea irekitako kasuak kontuan hartuta salaketa faltsuak guztiaren %0,18 lirateke eta jada zigorra jaso dutenak kontuan hartuta %0,0075.

2016an 142.893 salaketa jarri ziren. 16 salaketari espedientea ireki zieten faltsuak zirelakoan. Bi kasu artxibatu egin ziren eta beste 14ak tramitazioan daude.

INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMEN ARRETA PROGRAMA²⁹

Programa honek informazioa eta laguntza ematen dizkie indarkeria matxistaren biktima izan diren pertsoneri, Gizarte Ekintzaren Zuzendaritzaren eta beste departamentu edo instituzio batzuen baliabideak erabilia. Programaren arduradunek kasu bakoitzaren diagnostikoa egin eta esku-hartze plan bat adosten dute biktimarekin, hainbat bitarteko erabil ditzakeena: laguntza psikologikoa, aholkularitza juridikoa, laguntza ekonomikoa, hezkuntza mailako laguntza, kulturen arteko bitartekaritza eta bizileku baliabideak.

Donostian, 2017.urtean, 166 emakumek jaso dute arreta, horietatik 123 indarkeria matxistaren biktimak ziren, 5ek familia barneko indarkeria pairatu zuten eta 16ek sexu indarkeria.

Taula 21. Artatu diren emakume kopurua

	... emakumek jaso dute arreta	Indarkeria matxistaren biktimak	Familia barneko indarkeria	Sexu indarkeria	Beste kasu batzuk
2017an	166	123	5	16	22
2016an	153	114	13	9	17
2015ean	149	97	13	--	39
2014ean	148	148	11	--	28

Iturria: Donostiako udaleko Gizarte Ongizateko zerbitzua 2017

²⁸ Emakunde_zifrak 2017

²⁹ Gizarte Ongizate_ Memoria 2017

2017an, Tratu txar mota hauek identifikatu dira indarkeria matxistaren biktimen artean:

- Tratu txar fisikoa 80
- Tratu txar psikologikoa 98
- Tratu txar ekonomikoa 8

Oharra: Emakumeek tratu txar mota bat baino gehiago pairatu ohi dutenez, tratu txarren batura handiagoa da laguntza jaso duten emakumeen kopurua baino.

Ondoko taulan, programara jo dutenek 2017an jaso dituzten laguntzak eta baliabideak ikus daitezke:

- Laguntza psikologikoa 60
- Laguntza soziojuridikoa 18
- Aholkularitza eta informazioa 166
- Abegi etxebizitzak 8
- GFAREN etxebizitzak - Egonaldi labur, ertain eta luzeko harrera 11
- Larrialdiko txekoa 15
- Eusko Jaurlaritzaren diru laguntza (*) 7
- Emakumeei lagun egitea 22
- (*) Laguntza hauez gainera, hala badagokie, Gizarte Ekintzaren Zuzendaritzak izapidetu edo kudeatzen dituen gainerako diru laguntzak ere eskura ditzakete emakumeek (gizarte larrialdietarako laguntzak, eta Lan Partekatuaaren Planeko laguntzak).

Datuek erakusten digute, artatutako emakume kopurua handitu dela azken urteetan, baina datu honen irakurketa bikoitza izan liteke, izan ere, biktinek askotan ez dituzte zerbitzuak edo laguntza eskatzen, arrazoi anitzak direla medio. Horregatik, biktima kopurua berdina izan daiteke baina emakume gehiago izan indarkeria matxistaren aurka agertu direnak.

4.1.4. Emakumeentzako hiri segurua

Donostiako Udalak 2013an egindako Diagnostikoaren arabera, hirian seguru sentitzen ez ziren emakumeen kopurua gizonena halako bi zen: %62 eta %32, hurrenez hurren. Gainera, emakumeek maizago sentitzen zuten segurtasun falta (hiru aldiz maizago), beren auzoan batez ere (%35), baina baita beste auzoetan ere; lurpeko pasabideetan (%39); aparkalekuetan (%17), geltokietan (%12), etxean bertan (%11)... Emakume askok segurtasun eza sentitzen zuen bakarrik ibiltzeagatik (%47), gauez irteteagatik (%44), argiteria eskasagatik (%35), emakume izateagatik (%27), adinagatik (%10)...

2018an burututako galdetegiak erakusten digu, aurrerapausoak eman direla emakumeentzako hiri segurua bilakatzen. <<Emakumeentzako hiri segurua dela esango zenuke?>> galderaren aurrean, %57,4 Donostiako hiria seguru dela uste du, emakumeen 55%-ak eta gizonen %67-ak. Hala ere, emakumeen artean, *beldurrak* mantentzen dira: leku ilunak, gauez jenderik gabeko gunek, leku isolatuak, tunelak... %37k aipatzen du: Donostiako puntu kritiko batzuk arriskutsutzat jotzen dituztela <<Bertatik igaroz gero eta erasoren bat gertatuz gero, nire burua defendatzeko

eragozpenak daudelako (argi falta, irteerarik ez, jenderik ez inguruan laguntza eskatzeko...)>> eta %11k << agresioak gertatu izan direlako.>>

%34ek <<kalean>> segurtasun eza bizi izan du noizbait eta %10ek <<portalean>>; horien %33ak emakume izategatik bizi izan du segurtasun eza.

Hala ere, Donostiako segurtasuna 1etik 10era baloratzekoan, %33,1-ak 7batekin baloratzen du, %18,9-ak 8batekin eta %9,4-k 9batekin.

Lehenago aipatutako pertzepzio inkestak, tendentzia berdina erakusten digu:

Hiritarren Pertzepzioari buruzko Inkesta 2017. Lehen zatia

Egilea: Estrategia Bulegoa

HIRIARI BURUZKO IKUSPUNTUAK

(...) Oso positiboki nabarmentzen da gaur egun ez ezik, 2008an ere puntuazio handiena izan zuen alderdia: hiriko segurtasun-sentipena (+1,2).

BATEZBESTEKOA	TXIKIAGOA	HANDIAGIA
7,72	7,50 Emakumezkoa	ERDIALDEA (3) 8,39
	7,67 > 10 urte daramatza auzoan bizitzen	Gizonezkoa 7,95
	7,31 Oso gutxitan dituzte hilabete amaierara iristeko zailtasunak	*Ikaslea 8,25
		*Inoiz ez dute hilabete amaierara iristeko zailtasunik 7,98

Hala ere, emakumeen balorazioa (7,50) Gizonena baino baxuagoa da (7,95).

Ondorioztatu dezakegu, Udalak lan handia egin duela zentzu honetan, Puntu Kritikoaren Maparen egitasmoan islatzen dena:

(...) 1996an Plazandreok taldeak Hiri Debekatuaren mapa argitaratu zuen, hiriko gune arazotsuenak ikusaraziz. Donostiako Udalak, 2013. urtean departamentuen arteko talde bat sortu zuen, gune arazotsuen mapa hori eguneratzeko.

Egitasmo horren harira urtero herritarrekin kontraste prozesuak burutu dira; sentsibilizazio kanpaina anitzak egin dira, arautegia aldatu egin da (eraso sexista asko etxe atarietan gertatzen direla jakinda, segurtasuna handitzen dituzten neurriak gehitu dira eraikuntza ordenantza osagarrien 3. eta 22.artikuluetan), hirigintza eraldatu egin da (ispiluak kokatu dira hainbat puntuetan, igogailu gardenak..).

4.1.4.1. Eraso sexistak jaien testuinguruan

Donostiako udalak 2018ko Aste Nagusian, Donostiako Aste Nagusiko jai-inguruneetan emakumeen kontrako indarkeriaren esparruko egoeretan jarduteko aholkuak eta Protokoloa argitaratu zuen eta horrekin batera FESTAK GUZTIONTZAKO SEGURUAK! EMAKUMEEN KONTRAKO ERASORIK EZ! Kanpaina martxan jarri zuen. Hala ere, Aste Nagusiko lehenengo astebukaeran 2 eraso sexista gertatu ziren.

Festetan erasoak ugaritu egiten dira eta parekidetasuna zailtzen duten hainbat puntu daude oraindik ere jaietan, espazio publikoaren erabilera bera adibidez. Sentsibilizazioak eta prebentzio lanak ezinbesteko garrantzia du.

4.1.4.2. <<Gau Txori>> esperientzia pilotua

2018ko azaroan, DBus-ek gaueko zerbitzua <<Gau Txori³⁰>> esperientzia pilotu gisa martxan jarri du. Zerbitzu honek, eskaripeko geldialdi sisteman datza, emakumeek eta 18 urtetik beherakoak, gidariari eskatu ahal diote autobusa gelditzeko geltoki ez den segurtasunezko puntu batean.

Esperientzia hasi zenetik, 55 pertsonak erabili dute zerbitzua, 48 emakume heldu eta 6 adin txikiko (5 mutil eta 2 neska). Zerbitzuaren balorazioa oraindik ez da egin.

4.1.5. Emakumeen prostituzioa

Prostituzioaren inguruan aurreiritzi ugari dago jendartean, bibliografia gutxi eta topiko gehiegi³¹. Donostian gero eta ikusezinagoa da prostituzioa, fenomeno konplexua eta ezkutukoa izanik, ez da erraza prostituzioari buruzko datu zehatzak lortzea.

Emakundek argitaratutako emakumeen prostituzioaren inguruko azken txostena 2007ko abendukoa da, harrezkero ez da beste informerik argitaratu.

Dokumentu honetan jasotako datuak informe horretatik lortu dira:

- Hiru esparru edo gunere berezitan gauzatzen da prostituzioa: kalean, klubetan eta pisuetan. Horien arteko bakoitzak berariazko ezaugarriak ditu.
- Guztiz kontrastatutako daturik ez egon arren, EAEn prostituzioan diharduten emakumeen % 85-90 inguru atzerritarrak dira, prostituzioan diharduten pertsonekin zuzenean lan egiten duten elkarteen zenbatespenen arabera.
- EAEn, beraz, prostituzioa toki pribatuetan (klubetan eta pisuetan) gauzatzen da gehien; apenas jarduten da publikoki.

Donostian kaleko prostituzioaren beheranzko joera etengabea ikusi da eta gaur egun, klubetako prostituzioa eta pisuetako prostituzioa dira jarduera eremu nagusiak.

³⁰file:///C:/Users/Usuario/Downloads/DBUS%20tr%C3%ADptico%20PARADAS%20A%20LA%20DEMANDA.pdf

³¹EMAKUMEEK GAUZATURIKO PROSTITUZIOA EAE-N, Emakunde, 2002.

22. taula. Prostituzioaren presentzia EAEn udalerrietan

	Kopurua	EAEn udalerrien guztizko kopuruan duen pisua
Prostituzioa	25	% 10
Kaleko prostituzioa	3	% 1
Klubetako prostituzioa	21	% 8
Pisuetako prostituzioa	11	% 4

Iturria: Emakunde

- 77 klub daude martxan EAEn, eta haietan emakumeek dihardute prostituzioan. Klub gehienak (% 45) Bizkaiko Lurralde Historikoan daude, Gipuzkoan klubak herena dago eta Araban % 20 inguru.
- Ia 1.200 emakumeek dihardute klubetako prostituzioan EAEn. Emakumeen ia erdia (% 46) Bizkaian daude, heren bat (% 43) Gipuzkoan eta gainerako % 20a Araban.
- EAEn 211 pisu daude emakumeek prostituzioan dihardutenekoak; pisu horiek Bizkaian (% 51) eta Gipuzkoan (% 40) daude nagusiki.
- Pisuetako prostituzioak 2002. urtetik gaur egunera arte izandako bilakaerak pisuen kopuruan goranzko joera argia dagoela islatzen du, % 60 igo baita EAEn oro har, eta % 100etik gora Araban eta Gipuzkoan. Gipuzkoan gertatutako igoera bereziki hautemangarria da, pisuen kopurua 37tik 84ra handitu baita 5 urtetan eta, beraz, EAEn pisuen % 28a biltzetik % 40a biltzera igaro baita.
- 570 emakumeek dihardute EAEn pisuetan prostituzioan, gehienbat Bizkaian (% 51) eta Gipuzkoan (% 40).

Aukera zerbitzua

Aukera Programa laguntza psikosoziala eta osasun programa da. Gipuzkoan (kalean, pisuetan, klubetan) prostituzioan euren borondatez jardun duten emakumeak, emakume transexualak eta gizonezkoak. Berdin dio zein den beren jatorria (EAE, beste autonomia-erkidegoak, Estatutik kanpokoa) eta zein den euren administrazio-egoera (legezkoak nahiz paperik gabekoak).

2018.URTEAN ARTATUTAKO PERTSONA KOPURUA

Guztira, Aukera programatik 1023 pertsona artatuak izan dira, kopuru handiena klubetan lanean diharduten pertsonak izan dira eta gehiengo emakumeak izan dira.

Pisuetan lanean diharduten pertsonak %	147	221	237
% emakumeak	69 %	77 %	73,00%
% transexualak	23 %	19 %	19,00%
% gizonak	8 %	4 %	8,00%
Klubetan artatuak izan diren pertsonak %	767	609	642
% emakumeak	100 %	100 %	100,00%
% transexualak	-		
% gizonak	-		
Lokaletan artatuak izan diren pertsonak %	133	131	144
% emakumeak	76 %	73 %	75,00%
% transexualak	12 %	12 %	13,00%
% gizonak	12 %	15 %	12,00%

Klubetako prostituzioan plazen sistema ematen da; plazen sistema³² emakumeak zenbait lokalen artean trukatzean datza. Emakumeek 21 eguneko egonaldiak egiten dituzte lokaletan, hilekoaren aldiekin bat etorritz.

Horrek, oso zaila egiten du artatuak izaten diren emakumeen kopuru zehatza izatea, aurretik esandako beste trabekin batera, prostituzioetan jarduten duten pertsonak, askotan aldatzen baitute beraien bizilekua.


Araugintza

Prostituzio jarduerak Estatuan araudiaren aldetik duen hutsunearen ondorioz, prostituzioaren esparruan araudiak eta egitasmoak garatu dira azken urteetan, udalerrietan nagusiki eta autonomia erkidegoetan hein txikiagoan.

Gehienetan onartzen diren araudiak Bartzelonako Udalaren espazio publikoan hiritarren bizikidetzaren sustatzeko eta bermatzeko neurrien ordenantza (2005) «espazio publikoaren erabilera sexu zerbitzuak eskaintzeko eta eskatzeko» eredu izaten dute. Donostian, kale prostituziorik ematen ez denez, ez dago honen inguruko ordenantzarik.

³² Askabide, genero indarkeria eta prostituzioa. 2006.

4.2. Enplegua, Turismoa eta Erantzunkidetasuna



Donostia turismo- eta merkataritza-jarduera bizia duen zerbitzu-hiria da, baita ondo garatutako lurralde tertziario eta industrialarene.

Jarduera ekonomikoari dagokionez, hiriak 7.189 milioi euro inguruko aberastasuna sortzen du urtero (sortutako BPGd-a, *Donostiako Sustapenaren* estimazioa 2015erako). Azken hamarkadetako garapen ekonomikoa krisi

ekonomikoaren eraginez moteldu zen. Hala ere, azken urteetako BPGd-aren bilakaerari erreparatzen badiogu, susperraldia datorrela dirudi. Donostiako per capita BPGd-a (34.589 € pertsonako) estatuko handienetakoa eta gainerako euskal hiriburuen artean handiena da.

Ekonomia hori enpresa-sektore oso dibertsifikatuan oinarritzen da, batez ere, enpresa txiki eta ertainetan (jarduera ekonomikoa handia da; 2015ean 18.870 saltegi zeuden).³³

BPGd-aren sektorekako banaketaren arabera, zerbitzuen sektorea da jarduera ekonomikoaren eta enpleguaren euskarria (% 89), eta horrek ere dibertsifikazio-maila handia du.

Beste enpresa batzuei egindako zerbitzutzat hartzen diren jarduerak BPGd-aren % 27 dira, eta, ondoren, honako hauek daude: merkataritza eta konponketa (% 12), ostalaritza (% 5,7), osasun-jarduerak eta hezkuntza (% 12,8 eta % 8, hurrenez hurren), administrazio publikoa (% 8) eta gizarte-zerbitzuak (% 2,4). 2014an, industria-jarduera BPGd-aren % 5,7 inguru zen, eta sektore-dibertsifikazio handia zuen. Eraikuntzaren sektorearen ekarpena ere antzekoa da (% 5,5), eta azken hamarkadan gutxi aldatu da egitura hori. Bestalde, lehen sektorearen ekarpena oso txikia da.

5.grafika: Donostiako jarduera ekonomikoaren datuak



Iturria: Donostiako Udala

³³ Donostiako Estrategia Bulegoa E2020DSS_Gizarte Kontseilua – 2017ko Uztailaren 3an

Azkenaldian, kate handiei lotutako saltegiak ireki dira, eta horrek hainbat ondorio ditu: berezitasuna galtzea, zoruaren prezioak igotzea... Halaber, horren guztiaren eraginez, merkataritza-aniztasuna murrizten ari da (behar-beharrezkoa hurbileko merkataritzaren bizileku-beharrei dagokienez), eta, bestalde, inpaktua du itzulkinetan fiskaltasunari eta zerbitzu aurreratuei dagokienez, kate handi horiek egoitza nagusiak beste eskualde edo estatu batzuetan dituztelako.

4.2.1. Enplegua


2015ean, Donostiak 104.277 pertsonari ematen zien enplegua (Donostiako Sustapena, SEPEren arabera). 2015ean kontratatutako pertsonen kopurua eta 2008ko kopurua (104.276 pertsona kontratatu) antzekoak dira.

2015ean enplegua zutenen %92,9k aldi baterako kontratua zuten, % 6,9k kontratu finkoa eta % 41,2 emakumeak ziren. Azken hamarkadan egiaztatu ahal izan denez, krisiak eragina izan du kontratazio-bolumenaren beherakada progresiboan. Joera hori 2014an irauli zen eta enplegua suspertzen hasi zen. 2015eko datuen arabera, kontratazioaren hazkundera (% 17,7 hazi zen 2008-2015 aldian) emakumeen enpleguan oinarritu zen batik bat (% 40,8 gizonen dagokienez eta % 59,2 emakumeen dagokienez, 2015ean). Kontratazioa aldi baterakoa izan zen nagusiki (% 93,1) eta, batez ere, zerbitzuen sektorekoa (% 95,3).

Donostiako 9.216 langabeen (2017ko otsailean) karakterizazioak erakusten du %54,7 gizonak direla eta gainerako % 45,3a emakumeak. Halaber, emakumezkoen langabezi-tasa %12,3 eta gizonekoena %11,5.

Langabetuen % 6,4k 20 urte baino gutxiago ditu, % 42,1ek 20 eta 44 urte artean ditu, eta gainerako % 51,5ak 45 urte edo gehiago. Langabetuen % 8k ez du aldezturik enplegurik eduki, % 75,8k zerbitzuen sektorean lan egin du, % 8,7k industrian eta gainerako % 6,2ak eraikuntzan. Azkenik, luzaroko langabezia aipatu behar da; izan ere, langabetuen % 48,1i eragiten dio. Esan behar da, orobat, langabezia dauden biztanleen ia erdiek ez dutela langabezia-prestaziorik jasotzen (Gipuzkoa osoko informazioa).

6.grafikoa: Donostiakoa enplegua



Iturria: Donostiako Udala

Langabetuen tasak auzoen arabera aztertzen ditugunean Loiola, Intxaurren eta Altza dira langabetuen tasa handienak dituzten auzoak emakume eta gizonen datuak aztertzen baditugu, 15,4, 14,0 eta 14,6ko datak dira, bestetik, langabetu tasa txikiak Zubietan, Miramon-Zorroaga eta Aiete auzoetan daude, 7,0, 7,2 eta 9,7ko tasak.

Atzerritarren kasuan, langabezi tasak askoz handiagoak dira, Intxaurrendoko kasuan esate baterako 2,5 aldiz handiagoak. Intxaurrendoko, Loiola eta Altza dira langabezi tasa altuen dituzten auzoak, 35,1-32,3 eta 31,6. Miramon-Zorroaga, Igeldo eta Aiete dira tasa baxuen dituztenak, 6,3-11,8 eta 14,3.

Emakumeen kasuan, Altza, Loiola eta Intxaurrendoko dira langabezi tasa altuen dituzten auzoak, 15,8-15,5 eta 14,5. Miramon, Antiguoa eta Igeldoko auzoek dituzte tasa txikienak, 8,9-9,6 eta 10,5.

Adinari so, 49 urte baino gehiago dituztenak, Martutene, Altza eta Miracruz auzoek dituzte tasa handienak, Aiete, Miramon eta Zubieta txikienak. 16-49 urte bitartean, Loiola, Intxaurrendoko eta Alzako auzoek dituzte tasa handienak eta Igeldo, Miramon eta Zubieta txikienak.

24. Taula. 16 urteko biztanleria langabearen langabezi tasak Donostian, herritartasuna, sexu eta adinaren arabera.2016

	AUZOA	GUZTIRA	SEXUA		HERRITARTASUNA		ADINA		
			Gizonak	Emakumeak	Espainiar	Atzerritar	16-49	49-64	>=65
Donostia		12,0	11,7	12,3	11,0	22,4	13,1	10,2	3,7
	Loiola	15,4	15,3	15,5	13,6	32,3	16,5	13,0	11,1
	Intxaurrendoko	14,0	13,5	14,5	12,8	35,1	15,7	11,5	11,6
	Altza	14,6	13,4	15,8	13,0	31,6	14,9	13,9	9,5
	Miracruz-Bidebieta	13,6	13,5	13,7	13,0	19,2	13,4	13,9	13,0
	Martutene	13,4	12,6	14,2	12,6	23,5	12,3	15,9	0,0
	Gros	12,1	12,6	11,6	11,1	20,0	13,6	9,8	4,4
	Egia	12,0	12,1	12,0	11,2	20,4	13,2	9,7	9,8
	Amara Berri	11,9	11,5	12,2	10,6	21,8	13,0	10,0	0,7
	Centro	11,7	12,6	10,9	10,5	19,9	12,7	10,5	2,5
	Antorga	10,8	9,3	12,4	10,1	24,5	11,0	10,8	0,0
	Ategorrieta-Ulia	10,4	8,6	12,3	9,7	18,8	12,0	7,9	3,6
	Ibaeta	10,4	9,8	10,9	9,7	22,8	11,9	8,1	1,8
	Antiguoa	9,4	9,3	9,6	8,9	16,4	10,9	7,6	1,9
	Igeldo	9,8	9,2	10,5	9,7	11,8	10,7	8,4	0,0
	Aiete	9,7	8,8	10,7	9,5	14,3	11,1	7,5	1,9
	Miramon-Zorroaga	7,2	5,5	8,9	7,2	6,3	9,0	4,8	0,0
	Zubieta	7,0	2,9	10,8	7,2	0,0	8,3	4,3	0,0

Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta etxebizitzaren estatistika.

4.2.1.1. Ekintzailetasuna

Ekintzailetasunari arreta jartzen badiogu, Donostiako herritarren ustez, hiriak izaera ekintzailea du: halaxe adierazi dute hiru herritarretik bik, Donostiako Sustapena egindako azterlanaren arabera. Izan ere, sei biztanletik batek (16 eta 60 urte artekoak) datozen bost urteetan negozio bat garatzeko edo abian jartzeko asmoa du. Ekimen horiek, batez ere, zerbitzuen arlokoak dira, nagusiki merkataritzakoak eta ostalaritzakoak (Donostiako Sustapena. 2007ko Innbarometro Soziala). Hala ere, donostiarrentzat administrazio publikoko enplegua da lanbide-aukera nagusia, negozio bat garatzearen aurretik edo sektore pribatuan soldatapeko lan-jarduera izatearen aurretik.³⁴

EMEKIN negozio ideia bat duten emakumeei zuzendutako programa bat da. Gipuzkoako lurralde historikoan enplegua sortzeko xedea du, emakumeek sustatutako enpresa proiektuak bultzatuz. 2007-2017 urteen artean sortutako enpresen artetik % 55,59 zerbitzuen sektorean ari dira, % 35,55 merkataritzan, eta % 8,86 ostalaritzan. Emakume ekintzaileei buruzko datuei Gipuzkoako eskualdeen arabera begiratzuz gero, emakumezko ekintzaile gehien Donostialdean ikusten dira (% 38,08), ondoren Goierri (% 11,97) eta Beterri (% 11,21) datozela.

2016an, emakumeen ekintzailetza-tasa osoa 2011n erregistratutako balioa baino 3,2 puntu beherago zegoen, baina azken urtean datu positibo batekin: premiak eragindako ekintzailetza nabarmen murrizten da.

2016an emakumeak ziren ekintzailetzaren hastapeneko fasean zeuden pertsona guztien % 48,5. Horrela, gizonen jarduera ekintzailearekin alderatuz oreka adierazgarria agertzen da. Halaber, balizko ekintzaile gisa emakumeek duten presentzia adierazgarria da, datozen 3 urtetan, segmentu horretan nagusi direlarik (% 64,3). Ekintzailetza finkatuari dagokionez egoera apur bat negatiboagoa da (% 46,9 dira), baina 2011tik izandako bilakaera adierazgarria da. Azkenik, nabarmendu behar da erdia baino gehiago direla enpresa baten sorreran inbertitzen dutenak (inbertsio informala, % 57,5).

Jarduera ekintzailea eragozten duten faktoreen artean porrot egitearen beldurra dago. 2016an, emakumeek, hala ez ekintzaileek nola bereziki ekintzaileek, hein txikiagoan balioesten dute porrot egiteko beldurra ekiteko zailtasun gisa, eta gizonen kasuan kontrakoa gertatzen da.³⁵

³⁴http://www.donostiafutura.com/media/uploads/publicaciones/Actualizacion_Estrategia_E2020DSS.pdf

³⁵ Emakunde_zifrak 2017

4.2.1.2. Erantzunkidetasuna

Erantzunkidetasuna kontziliazioaren definiziotik haratago doa, etxeko lanen eta seme-alaben zein menpekotasuna duten pertsonen zaintzaren ardura gizonen eta emakumeen har dezatela esan nahi du.

Halaber, gizarte-erantzunkizuna etxeko eta familiako arduren banaketan pertsonen eta, bereziki, gizonen parte-hartzea areagotzeaz haratago doa, beste gizarte-eragileengan eta eremu publiko eta pribatura hedatzen baita.

Seme-alaben zaintzan ematen duten denbora da emakume eta gizonen artean alderik nabariena ematen duen jardueretako bat, eta horrek eragin nabarmena du lan merkatuan duten egoeran.

Zaintza horretan emakumeek eta gizonen duten inplikazioa dimentsio desberdinetan azaleratzen da. Dimentsio horiek dira horretan ematen duten batez besteko denbora eta emakume zein gizonen ordaindutako lanekin burutzen dituzten kontziliazio-neurrien erabilera-maila ezberdina.

Denboraren erabileraren datuak aztertzen ditugunean, alde handiak daude emakumeek eta gizonen eguneroko zereginetan erabiltzen dituzten denboren artean; emakumeek denbora gehiago jarduten dute miatutako jardura (ia) guztietan. Gizonen denbora gehiago eskaintzen diote joan-etorriari (12 minutu gehiago) eta gizarte harremanei (2 minutu). Alderik nabarmenak, etxeko lanetan, etxeko lagunez arduratzea eta helduekiko arduetan aurkitzen ditugu, jardura horietan emakumeek denbora gehiago eskaintzen baitiote, 1 ordu eta 17 minutu, 37 minutu eta 45 minutu jardura bakoitzean.

EAEko Denboraren Aurrekontuei buruzko datuek erakusten dutenez, gizonen denbora gehiago ematen dute aisia aktiboan. Hala, astean batez beste 3,37 ordu ematen dituzte kirolean eta txangoetan, eta emakumeek 2,12, Eustat erakundearen Aisia Aktiboko Denboraren Erabilerari buruzko 2013ko inkestaren arabera.

Etxeko lanak eta zainketa-lanak, nagusiki emakumeek egiten dituztenak, modu prekarioan edota trukean ordainsaririk jaso gabe, giltzarri dira jendarteak funtziona dezan. Banaketa desberdin hori gure gizartean oraindik dirauten estereotipo sendoen eta gizonen eta emakumeen berdintasuna erdiesteko oztopo handi direnen ondorioa da.

Denboraren erabilera: Partaide bakoitzaren batez besteko denbora, etxeko lan motaren, egun kopuruaren eta sexuaren arabera. Euskal AE. 2013³⁶

Bataz besteko gizarte-denbora, ekintzak

Lana eta prestakuntza: emakumezkoak 6:07 ordu eta gizonezkoak 6:59 ordu.

Etxeko lanak: emakumezkoak 3:14 ordu eta gizonezkoak 1:57 ordu.

Etxeko lagunez arduratzea: emakumezkoak 2:14 ordu eta gizonezkoak 1:37 ordu.

Gizarte-harremanak: emakumezkoak 1:30 ordu eta gizonezkoak 1:32 ordu.

Aisi aktiboa eta kirola: emakumezkoak 2:05 ordu eta gizonezkoak 2:31 ordu.

Aisi pasiboa: emakumezkoak 3:00 ordu eta gizonezkoak 3:14 ordu.

Joan-etorriak: emakumezkoak 1:24 ordu eta gizonezkoak 1:36 ordu.

Iturria: bizitza-baldintzei buruzko inkesta. EUSTAT. 2013

Bataz besteko gizarte-denbora etxeko lanetan, ekintzak.

Otorduak prestatzen: emakumezkoak 1:38 ordu eta gizonezkoak 1:03 ordu.

Garbiketa: emakumezkoak 1:11 ordu eta gizonezkoak 0:51 ordu.

Arropa: emakumezkoak 0:46 ordu eta gizonezkoak 0:32 ordu.

Bestelako konponketak: emakumezkoak 0:19 ordu eta gizonezkoak 0:30 ordu.

Erosketak: emakumezkoak 0:49 ordu eta gizonezkoak 0:45 ordu.

Kudeaketak: emakumezkoak 0:53 ordu eta gizonezkoak 0:55 ordu.

Erdi-aisiak: emakumezkoak 1:27 ordu eta gizonezkoak 2:02 ordu.

Iturria: bizitza-baldintzei buruzko inkesta. EUSTAT 2013

Bataz besteko gizarte-denbora pertsonentzako zaintze motan

Hurrekiko ardura: emakumezkoak 1:29 ordu eta gizonezkoak 1:10 ordu.

Jokoak eta irakastea: emakumezkoak 1:38 ordu eta gizonezkoak 1:14 ordu.

Helduekiko ardura: emakumezkoak 1:51 ordu eta gizonezkoak 1:06 ordu.

Iturria: bizitza-baldintzei buruzko inkesta. EUSTAT. 2013

³⁶ Eustatek 2019ko udan argitaratuko ditu datu eguneratuak.

EAEEn, 2016an, 13.819 izan dira amatasunagatiko prestazioak eskuratu dituzten emakumeak, gizonen kasuan 726 direlarik (guztien % 5). Nabarmendu behar da prestazio horien erabilera gizonen artean proportzioa zertxobait handiagoa dela Gipuzkoan. Erabilera mugatu hori hor badago ere, EAEEn prestazio horiek erabiltzen dituzten gizonen portzentajea bikoitza da Estatuko gainerako lurraldeekin alderatuz. 2002an prestazioa jasotzen zuten gizonen proportzioa (% 3,1) baxuagoa zen 2016an baino (% 5), eta badirudi bilakaerak joera positiboa erakusten duela, nahiz eta irismen mugatu batekin eta hazkunde linealik gabe, izan ere, zenbait urtetan, 2016an kasu, atzerakada arinak ikusten dira.³⁷

Amatasun eta aitatasun baimenak

Amatasun baimenaren iraupena etenik gabeko 16 astekoa da, eta bi aste luzatu daiteke bigarren jaioberritik aurrera, erditze aniztunaren kasuan 16 aste hauetatik, lehenengo 6ak amak hartu behar ditu nahitaez, eta gainerakoak aitari edo bikotekideari transferitu daitezke, aldi berean edo jarraian gozatzeko. Aukera hau badago ere, genero rolen ondorioz, emakumeak izan ohi dira baimen hau bere osotasunean erabiltzen dutenak.

2017ko urtarriletik aurrera, aitatasun baimenaren iraupena 4 astekoa da. 2018an baimen hau astebete gehiago luzatzea aurreikusita bazegoen ere, tramitazioa atzeratu egin da; hortaz, lan araudia bertan behera geratu da aitaren laguntzaile rola ezabatzean.

2018ko ekainetik aurrera aitatasun baimenaren iraupena 5 astekoa da, horietatik azkeneko astea independienteki gozatu daitekeelarik jaiotzaren ondorengo 9 hilabetetako epearen barruan.

Seme-alabak zaintzeko eszedentziak begiratzen baditugu, ohikoenak, 2016an EAEko 4.036 emakumek eta 342 gizonek eskuratu zituzten eszedentzia horiek. Zenbaki horiek erakusten dutenez, prestazio horiek gero eta gehiago erabiltzen dira, hala emakumeen artean, erabiltzen dutenen artean gehiago nabaria (% 92,2), nola gizonen artean (% 7,8).

2016an Eusko Jaurlaritzak familiaren inguruan egindako inkesta batean emakumeek nola gizonen adierazten dute amatasunak asko edo dezente oztokatzen duela emakumeen ibilbide profesionala (emakumeen % 73ak adierazten duenez asko edo dezente eragiten du garapen profesional horretan eta horrela pentsatzen dute gizonen %68ak). Bestalde, aitatasunak soilik asko edo dezente eragiten du gizonen ibilbide profesionalean gizonen % 15aren eta emakumeen % 10aren arabera. Ildo horretan kokatzen da amatasunaren eta aitatasunaren ostean lanean gora egiteko aukerei buruzko balioespena: ama izan ondoren lan arloan gora egiteko aukerak murriztu

³⁷ Emakunde zifrak_2017

zitzazkiela uste duten emakumeen portzentajea (asko edo apur bat, % 56) gizonena baino nabarmen handiagoa da (% 24) (Emakunde, 2017).

Senitartekoak zaintzeko eszedentziak gutxitu egin ziren zertxobait 2016an, izan ere, urte hartan 346 emakumek eta 92 gizonak eskatu zituzten. Jaitsiera hori gertatu da emakume gutxiago direlako eskatu dutenak, modu horretan, urte horretan prestazio horren erabileran zegoen aldea murriztu egin da. Halere, emakumeak dira oraindik eszedentzia horien eskatzaile nagusiak (% 79).³⁸

4.2.1.3. Berdintasunerako Lankidetzak Erakundeak Hiri mailan

Euskal Autonomia Erkidegoan Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzak Erakundearen aitortzea jaso duten entitateak 103 dira, horietako 23³⁹ Donostian kokatu daude, 2013an 17 enpresa ziren. Enpresa hauek gutxienez sistematizatu egin dituzte, maila batean bederen, berdintasun irizpideak beren antolakuntzetan, emakumeen eta gizonen berdintasunerako diagnostiko eta plan baten bitartez.

22 Aholkularitzako enpresa homologatuen artean 6⁴⁰ berdintasunerako aholkularitza homologatuek hirian dute egoitza.

Erantzunkide: Kontziliazio erantzunkidearen aldeko Gipuzkoako enpresen sareko 23 enpresetatik 11 enpresa Donostian daude kokatuta⁴¹

³⁸ Emakunde_zifrak 2017

³⁹ TRANSPORTES PESA, S.A., FUNDACIÓN IZAN, ASOCIACIÓN ARRATS, NUEVO FUTURO, ATE Asesores de Gestión, S.A., ASOCIACIÓN PARA LA REINSERCIÓN SOCIAL ERROAK, COMPAÑÍA DEL TRANVIA DE SAN SEBASTIAN, S.A., ASKORA PLUS, SL, DEUTSCHE SCHULE SAN ALBERTO MAGNO S. COOP., Daiteke-Careers&Jobs, S.L., CDE Consultoría, LURGOIEN S.A., DEITEL DIRECT SL, CONSTRUCCIONES ZUBIEDER, S.L., Construcciones, Mariezcurrena S.L., Construcciones Moyua S.L., BPG Coordinadores de Seguridad, Atzegi, Prospektiker, S.A., Ekia Intervención Psicosocial, Excavaciones y Transportes ORSA, SL, Gisma Asesoramiento S.L.U, Zubeldia Formacion Prestakuntza S.L

⁴⁰ CDE Consultoría, AVENTO CONSULTORIA, S.L., OREBE HEZKUNTZA, S.L., DAITEKE-Careers&Jobs, S.L., Eraberria Gunea, S.L., Kalaka, Koop. Elk. Txikia

⁴¹ #EtorikizunaEraikiz-en baitan sortutako ekimenak enpresetako kontziliazioaren eta parekidetasunaren aldeko pausu bat izan nahi du. Donostian kokatutako enpresen zerrenda: Askora, Uliazpi, Ikor, Bera-bera, Maramara*Taldea, Donostia Kultura, La Guipuzcoana, Matia Fundazioa, BPXport, Moyua

4.2.2.Turismoa

Turismo-sektorea da Donostiari ekarpen handiena egiten dion eremuetako bat. Hiriaren erronka da sektore turistikoaren hazkundera eredu jasangarri batekin bateratzea, herritarrekin bizikidetzatza egokia izan dadila ahalbidetzeko, gainezka egin gabe eta bereizgarri duen kalitate-estandarra mantenduz. Argi dago Donostiak huts egin duten ereduak saihesteko moduko estrategia behar duela eta mehatxuen kontra koordinazioz jardun behar duela. Halaber, aspalditik hiriaren nortasunaren ezaugarrien artean dagoen jardueraren garrantzia azpimarratu behar da. (Donostiako Estrategia Bulegoa-2017)

Honako hauek dira horren zergatiak: erakargarritasun gastronomikoa (galdetutakoen % 25ek adierazi du gastronomia dela Donostia helmuga turistiko gisa hautatzeko motibazio nagusia) "*city-break*" helmuga egokia dela (% 26), "eguzkia eta hondartza" (% 16) eta kultura-helmuga egokia dela (% 12).

Donostiako Turismo Bulegoko, 2017-2021 Planak argitaratu du, 2016an 15.000 enplegu sortu zituela eta hiriko BPGaren %13,4 dela.⁴²

⁴² https://www.sansebastianturismo.info/images/prensa_agentes/pdf/turismo-plana-visit-bizi.pdf

4.3. Gizarteratzea eta Migrazioa



Gizarte-baliabideen irisgarritasuna eta kontrola aztertuz, txirotasunaren eta oinarritzko premiei aurre egiteko diru-sarrera urrien dimentsioa barneratzea funtsezkoa da.

Emakumeen egoera gizonena baino okerragoa da aztertutako txirotasun mota guztietan.

4.3.1. Migrazioa

Hasieran aipatu bezala, Donostiako biztanleen ezaugarri garrantzitsu bat biztanle atzerritarren hazkundera da. Beste hiri eta lurralde batzuen ehunekoa baino txikiagoa bada ere, krisiak moteldutako hazkunde-aldi bizia izan du.

Biztanle etorkinen kopurua biztanleria osoaren % 1,7 zen 2001ean, eta % 9,5 izatera heldu zen 2015ean (2015ko urtarrilean, 17.742 atzerritar zeuden erroldatua, eta, generoari dagokionez, % 46,09 gizonak ziren eta % 53,91 emakumeak, EIN, Biztanleen erroldak).

Atzerritarrek biztanle guztien % 7 dira, eta 130 herrialdetatik etorriak dira. Honduras eta Nicaragua dira, gaur egun, jatorriko bi herrialde nagusiak, ondoren Marruecos, Italia eta Colombia daude.

25. Taula. Atzerriko biztanleria Gipuzkoan

GIPUZKOA	Guztira	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Lurralde	41.856	20.783	21.073
Europa	13.334	7.215	6.119
Afrika	9.515	5-991	3.534
Amerika	15.143	5.144	9.999
Asia	3.799	2.405	1.394
Ozeania	65	28	37

Iturria: EUSTAT. Gipuzkoan 16 urte eta gehiagoko atzerriko biztanleria nazionalitate-kontinente eta sexuaren arabera. 2016

26. Taula. Atzerriko biztanleria Donostian

Donostia	Guztira	Atzerritarrek Guztira
Sexu Biak	186.095	12.327
Gizonezkoak	87.532	5.681
Emakumeak	98.563	6.646

Iturria: EUSTAT. 2016

Desparekotasun-egoeretan sakonduta, talde ahulenen karakterizazioaren arabera (*Donostiako Inklusio Sozialaren Planerako Beharrei buruzko Diagnostikoa*, 2016), kalkulatzen da biztanle atzerritarrek daudela pobrezia-erregio ahulezia bereziko egoeran (pobrezia larria 6,2 handiagoa da talde horretan).

Halaber, haurrek pobrezia-egoera horretan sartzeko arrisku handiagoa dute (intzidentzia 1,6 aldiz handiagoa da), baita emakumeek edo 45 urte baino gutxiagoko kideak buru dituzten familiek ere (biztanleria osoarekin alderatuz gero, 1,24 eta 1,68 aldiz gehiago, hurrenez hurren).

Etxearen osaeraren ikuspegitik, pobrezia larriak guraso bakarreko familien etxeen % 7,9ri eragiten dio, biztanleria osoaren familien % 5,4ren aldean.⁴³

Kontuan izan, guraso bakarreko familien etxeak, bost familia gurasobakarretatik lautan familiaburu emakumezkoa dela.

- Gipuzkoako aita bakarreko familia kopurua 4.100 (%17)
- Gipuzkoako ama bakarreko familia kopurua 20.500 (%83)

Iturria: Eustat 2018

EAEko datuek erakusten digutenez, familiako batez besteko errenta hartzaile nagusia emakume bat denean 35.578 eurokoa da, hau da, hartzaile nagusia gizon bat duten familietan baino 9.602 euro baxuagoa.⁴⁴

4.3.2. Gizarteratzea

EAEko emakumeen batez besteko errenta pertsonala 2015ean 464 euro areagotu da aurreko epealdiarekin alderatuz (14.711 euro). Haatik, batez besteko 15.175 euroko errenta gizonen batez besteko errenta baino 10.000 euro baxuagoa da ia. Emakumeek gizonek baino batez besteko errenta baxuagoa jaso dute errenta mota guztietan.⁴⁵

4.3.2.1. Gizarte laguntzako baliabideak

Gizarte-arazo zehatzei heltzen dieten programak eta baliabideak hartzen dituen sistema osatzen dute Gizarte Zerbitzuek; gizarte-beharretaz arduratzen da gizarte-sustapenerako eta gizarte-ekintzarako zerbitzuen multzo hau.

⁴³http://www.donostiafutura.com/media/uploads/publicaciones/Estrategia_E2020DSSren_eguneratze_dokumentua.pdf

⁴⁴ Emakunde_zifrak2017

⁴⁵ Emakunde_zifrak 2017

Gizarte larrialdietarako laguntzak

Gizarte larrialdietarako laguntzak ekonomia eta laguntza izaera duten prestazio ez-aldizkakoak dira, ohiko edo ezohiko gastuei aurre egiteko nahikoa baliabiderik ez duten pertsonen laguntzeko, eta horren bidez, gizarte bazterkeriako egoerak prebenitu, saihestu edo arintzeko.

Donostian, 2017an, baliabide horretarako 2.826 eskabide izan ziren. Eskabide horietatik, 2.539 familiak jaso dituzte gizarte larrialdietarako laguntzak, eta 4.444 pertsona izan dira onuradunak guztira.

Sexuaren eta adinaren arabera aztertuz, 1.710 emakume (%67) izan dira laguntzen titularrak eta 829 gizon (%33). Emakumeen artean eskaera gehien egin dituzten emakumeak 65 urtetik gorakoak izan dira. Gizonen kasuan, 45-65 urte bitartekoak izan dira eskaera gehien egin dituztenak.

27. Taula. Sexuaren eta adinaren arabera, laguntzen titularrak banatuta.

Familiak	Emakumeak	Gizonak	GUZTIRA	%
25 urtetik beherakoak	33	28	61	% 2,4
25-45 urte	468	260	728	% 28,7
45-65 urte	518	350	868	% 34,2
65 urtetik gorakoak	691	191	882	% 34,7
GUZTIRA	1.710	829	2.539	100,0

Iturria: Gizarte Ongizate saila Donostiako Udala (2017)

Diru sarrerak bermatzeko laguntzak⁴⁶

Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) hileroko prestazio ekonomiko bat da, nahikoa baliabide ez duten pertsona eta familien oinarrizko premiak asetzeko. Eta Etxebizitzarako Prestazio Osagarriak (EPO), aldi berean, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren osagarri modura egituratzen dira, eta ohiko etxebizitza edo bizilekua

⁴⁶ DSBEa Euskal Autonomia Erkidegoko laguntza da. Bestalde, Donostian mailan, beste laguntza ekonomiko bat zegoen. Gipuzkoako Foru Aldundiak araututako laguntza ekonomikoa, baldintza jakin batzuk betetzen zituzten bizikidetzaren unitateen oinarrizko premiei aurre egiten laguntzeko: hots, Gipuzkoan bizitzea eta oinarrizko beharrei aurre egiteko diru sarrerarik ez izatea (edo nahikoa diru sarrerarik ez izatea). DSBEren oso antzeko laguntza zen, erroldatze epearen baldintzan izan ezik: laguntza hau jasotzeko, Gipuzkoan 6 hilabetez erroldatuta egotea eskatzen zen; DSBE jasotzeko, berriz, EAEn 3 urtezerroldatuta egon behar da. Laguntza hauek 2012an ezarri eta 2016an kendu ziren. Urte horretako uztailaren 1etik aurrera, ez dira eskaera gehiago onartu, seme-alabak edo mendeko pertsonak dituzten bizikidetzaren unitateenak izan ezik (abenduaren 30era arte egin ahal izan dira eskaerak). Data horretatik aurrera ez da eskaera gehiago onartu. Laguntza erabat desagertuko da 2018ko abenduaren 31n, azken familia onuradunen eskubidea iraungitzean. **Horregatik, Diagnostikoan DSBEa aztertuko da EAeko mailan.**

alokatzeko gastuak estaltzeko ematen dira, haren modalitate guztietan: errentamendua, azpi-errentamendua, errentamendu kidetza, ostatu hartzea eta logelen alokairua.

Guraso Bakarraren Prestazio Osagarria Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari batzen zaion osagarri bat da (hilean 45,5 eurokoa) guraso bakarreko bizikidetzaren unitateen kasuan, hau da, beren ardurapean adin txikiko seme-alabak dituen amak edo aitak soilik osatua. EAEn 2016an 35.951 emakumek jasotzen zuten Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta, hots, prestazio hori jasotzen zuten guztien % 56,3. Zenbaki hori aurreko urtekoarekin alderatuz ikus daitekeenez, 813 emakume gutxiago dago, hau da, beheranzko joerak jarraitu egiten du, murrizketak ia 1.000 emakume hartzaileari eragin zien urte baten ondotik.

Bestalde, Etxebizitzarako Prestazio Osagarrien banaketa oso parekoa da emakume eta gizonen artean, eta aurreko epealdian erregistratutako antzeko zenbakiekin. Guraso bakarraren prestazio osagarrian desberdintasuna oso handia da emakume eta gizonen artean, izan ere, prestazio hori jasotzen dutenen artean % 94,5 emakumeak dira. Horretatik ondorioztatzen denez, DSBE errenta jasotzen duten emakumeen % 15,3 guraso bakarreko familiez arduratzen dira.⁴⁷

DSBE errenta jasotzen duten pertsonen profila aztertzean ikus daitekeenez, emakume hartzaileen adin-tarte nagusia 65 urtetik gorakoa da (% 24). Hori erretiro pentsioekin edo alarguntza-pentsioekin lotuta dago, aurrez ikusi den moduan oso zenbateko urrikoak direnak (hori dela eta, 65 urte edo gehiago dituzten DSBE errentaren hartzaile diren gizonen segmentua % 8,6koa da).

2016an jaiotako 24.631 emakumek DSBE errenta jaso zuten. Horrek esanahi du emakume hartzaileen % 36 atzerritarrek direla. Gizon atzerritarrek guztien % 31,3 dira.

Horrek adierazten duenez, DSBE errentari erreparatuz gizon atzerritarren presentzia erlatiboa baxuagoa da emakume atzerritarrena baino. Emakume atzerritarren artean Hego-Amerikan jatorria dutenak gailentzen dira (% 16,9), eta gizon atzerritarren artean, aldiz, Magrebetik etorritakoak dira nagusi (% 16,5).

⁴⁷ Emakunde_zifrak 2017

4.3.2.2. Adinekoak

Adin nagusiko pertsonak eskuratzen dituzten baliabideei dagokienez, lehenik eta behin nabarmendu behar da emakumeen presentzia handiagoa dela egoitza zentroetan: egoitza-zentro horietan bizi diren hamar pertsonatik zazpi emakumeak dira.

Emakumeen bizi-luzetasun handiagoa dago errealitate horren oinarrian. Hori dela eta, adinak gora egin ahala, emakume eta gizonen arteko aldeak nabarmendu egiten dira, eta bereziki adierazgarriak dira 85 urtetik gora. Eguneko zentroetan ere emakumeen presentzia handiagoa da, eta erabiltzaile nagusiak 80-89 urte bitarteko emakumeak dira.

4.3.2.3. Pentsioak

EAEko emakume pentsiodunen segmentu ugariena alarguntza-pentsioa jasotzen duten 129.425 emakumeena da (% 46), eta gizonen artean % 82,1ak erretiro-pentsioa jasotzen du (220.950). 2016an erretiro-pentsioen portzentajeak gora egin du emakumeen artean, jasotzen dituzten pentsio guztien % 44,9ra iritsi arte. Aldaketa hori hor badago ere, emakume gehien-gehienek erretiro- eta alarguntza-prestazioak jasotzen dituzte (%90,9) eta gizonek ezgaitasun- eta erretiro-prestazioak jasotzen dituzte (% 93).

Batez besteko pentsioan alderdik handiena, hain zuzen, erretiro-pentsioetan gertatzen da: 126.525 emakumek, batez beste, 878,1 euroko pentsioa jasotzen dute, gizonek baino 693,10 euro gutxiago. Gainera, EAEn 65 urtetik gorako emakumeak gizonak baino gehiago badira ere, gizon gehiago dira, 94.425 gehiago, erretiro-pentsio bat jasotzen dutenak.

Bestalde, ezgaitasun iraunkorragatiko pentsioek berriz ere emakumeek eta gizonen lan-merkatuan duten egoera ezberdina islatzen dute: emakumeak hartzaile guztien % 33,7 baino ez dira eta, gainera, batez beste egoera berean diren gizonen baino % 28 gutxiago jasotzen dute.⁴⁸

4.3.2.4. Txirotasuna

Etxebizitzarekin lotutako arazoaren artean, are larriagoak dira etxebizitza-bazterketa larriko egoerak: Donostian, 2014an, 439 pertsona zeuden etxebizitza-bazterketa larriko egoeran, eta horietatik 89k kalean lo egiten zuen (Kale Gorrian, 2014). Hala ere, 2011n etxebizitzetarako konfort-indize orokorra 74 (100etik) izan arren, hainbat arazo hautematen dira etxebizitzaren arloan eta horren inguruan.

Izan ere, Donostiako biztanleen % 8 pertsona bakoitzeko 15 m²-ko azalera erabilgarria izatera iristen ez diren etxeetan bizi da, % 0,3 eraikin aurrituetako edo egoera txarrean dauden erakinetako etxebizitzetan, eta % 43,6 guztiz irisgarriak ez diren eraikinetan (horietatik, 17.115ek 65 urte baino gehiago ditu) (EIN, Biztanleen eta etxebizitzaren errolda).

⁴⁸ Emakunde_zifrak 2017

Energia-pobreziako egoerak Donostiako biztanleen % 11,4ri eragiten zion, neurri handiagoan edo txikiagoan, 2014an (% 16,4ri Gipuzkoan). Urte horretan bertan, hipoteka betearazteko prozesuan zeuden 49 etxebizitza zenbatu ziren hirian.

Mantenu-txirotasunak eta metatze-txirotasunak eta benetako ongizate-gabeziak 2008az geroztik izan duten bilakaerari begira ondoriozta dezakegunez, azken bi urtetan egoera apur bat hobetu egin da, benetako txirotasunari erreparatuz askoz ere arinagoa izan bada ere. Emakumeen egoera gizonena baino okerragoa da 2014az geroztik aztertutako txirotasun mota guztietan.⁴⁹

⁴⁹ Emakunde_zifrak 2017

4. 4. Hezkuntza arloa eta Gazteria



Neskato eta mutiko kopuruaren arteko oreka da derrigorrezko irakaskuntzaren ezaugarria (eta baita haur hezkuntzan). Aldeak DBH amaitu ondoren agertzen hasten dira, izan ere, une horretatik aurrera neskatoek partaidetza apur bat handiagoa agertzen dute Batxilergoan eta Unibertsitatean; mutikoak, aldiz, Lanbide Heziketan pilatzen dira neurri handiago batean.

Neska eta mutilen arteko ezberdintasun handienak Lanbide Heziketan topatzen ditugu, batetik kopuruan eta bestetik Lanbide Arloan Hautaketetan. EAeko neskatoek Lanbide Heziketan duten partaidetza baxua azken urte honetan ere mantendu egin da. 2015/2016 ikasturtean 4.841 emakume matrikulatu dira Erdi Mailako prestakuntzan, guztira 13.993 ikasle egonik (% 34,6 beraz). Emakumeen presentzia gero eta handiagoa da Goi Mailako Lanbide Heziketan, baina oraindik ez da orekatua, izan ere, ikasle guztien % 37,6 dira. Gainera, prestakuntza arloaren arabera banaketa mantendu egiten da, eta berriro arlo batzuetan emakumeen nagusitasuna erabatekoa da (Irudi pertsonalean, % 96,2, edo Ehungintzan, % 86,7 esaterako). Beste arlo batzuk, aldiz, gizonez osatuta daude ia erabat (Ibilgailuen garraioa eta mantenua, % 97,9, eta Elektrizitatea eta elektronika, % 96 kasu).

28. Taula. Gipuzkoako matrikulatutako ikasleak, titulartasun, maila, lurralde historiko eta sexuaren arabera. 2016-17

	Gipuzkoa		
	Guztira	Gizonezkoak	Emakumezkoak
IKASTETXEA GUZTIRA	160.048	82.336	77.712
Irakaskuntza ez-unibertsitarioak	132.045	69.694	62.351
Haur-hezkuntza	30.808	15.887	14.921
Hezkuntza berezia (haur hezkuntza)	46	24	22
Lehen hezkuntza	44.500	23.026	21.474
Hezkuntza berezia (Lehen Hezkuntza)	99	63	36
Derrigorrezko bigarren hezkuntza (DBH)	28.179	14.437	13.742
DBHko Hezkuntza Berezia	92	68	24
Oinarrizko lanbide heziketa (OLH)	1.160	823	337
Batxilergoa	10.596	4.902	5.694
Erdi mailako LH	4.640	3.138	1.502
Goimailako LH	7.576	4.994	2.582
Hezkuntza berezia zereginen ikaskuntza	187	112	75
Helduen hezkuntza (HH)	4.162	2.220	1.942
Unibertsitate-ikasketak	19.325	9.403	9.922
Graduko unibertsitateko ikasketak	17.543	8.436	9.107
Master ofizialak	1.508	792	716
Ikasketak doktoregoetan	273	174	99

Iturria: Eustat. Eskola-jardueraren estatistika 2016-2017

29. Taula. ikasleak, lanbide-erloaren eta sexuaren arabera.

	% EMAKUMEAK	%GIZONEZKOAK
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak	48,4	51,6
Irudi pertsonala goi mailako lanbide heziketan matrikulatutako	96,2	3,8
Elektrizitatea eta elektronika goi mailako lanbide heziketan matrikulatutako	6,3	93,7
Informatika ingeneritzan matrikulatutako	16,2	83,8
Psikologian matrikulatutako	75,9	24,1

Iturria: Emakunde(2017)

Donostiako Hiriak unibertsitate-ikasketen aukera handia du, eta tituluak lau unibertsitatetan eskuratzeko aukera ematen du (Euskal Herriko Unibertsitatea - UPV/EHU Deustuko Unibertsitatea, Nafarroako Unibertsitatea -Tecnun eta Basque Culinary Center, Mondragon Unibertsitateko Zientzia Gastronomikoen Unibertsitatea).

2016an Euskal Herriko Unibertsitatera sartzeko probetara 10.984 pertsona aurkeztu ziren, eta horietatik % 53,1 emakumeak ziren. Lurralde Historiko guztietan maila gainditu duten emakumeen portzentajea handiagoa izan da eta haien gainditze maila orokorraren tasa gizonena baino handiagoa da, hain justu, 1,6 puntu handiagoa. Halaber, emakumeen batez besteko nota altuagoa da gizonena baino hala EAEn (0,3 puntuko aldearekin) nola hiru lurraldeetan, Bizkaian dagoelarik alderik handiena (0,4 puntuko aldea).⁵⁰

Unibertsitateko Irakaskuntzan aldeak murriztu egiten dira emakumeen eta gizonen partaidetzari dagokionez, Lanbide Heziketan zegoena kontuan hartuz. Lanbide Heziketako matrikulazioek islatzen zutenaren aurka, hezkuntza-maila honetan emakumeen partaidetza handiagoa da gizonena baino, zehazki 5,4 puntu handiagoa. Haatik, oraindik ezberdintasunak daude ezagutza-eremuak hautatzerako orduan neskatoen eta mutikoen artean.

⁵⁰ Emakunde_zifrak 2017

4.4.1. Gazteria

Mutil eta neska nerabeen artean faktore bereizgarriak sortzen diren heinean, nerabeen biziko hainbat arlotan islatzen dira, aisian eta astialdian barne. Horren ondorioz, esan beharra dago ohikoagoa dela neska nerabeek astialdia bizikidetzarako espazio moduan ikustea, hau da, adiskidetasunerako eta ezagutzetarako; mutilek, berriz, astialdia jardueratzat jotzen dute. Askotan, emakumeentzat, astialdiaz gozatzea bigarren mailakoa da, eta beren parte hartzea ikusle izatera muga daiteke.

Dena den, ekipamenduak bezalako espazioek, tradiziozko genero eginkizunei loturiko ezberdintasunak islatzeaz gain, zeregin aktiboa ere eduki dezakete, emakumeen posizio baztertua irauraraziz ala aldatuz. Azken finean, astialdi espazioak, aldaketaren adierazle izateaz gain, aldaketa estrategia ere bihurtu daitezke.

Donostiako haur eta nerabeentzako udal ekipamenduak, Haurtxoko, Gazteleku eta Kontadores Gazte Zentroa dira. Jakina beste ekipamenduak badira hiri mailan baina hauek dira Gazteria sailetik kudeatzen direnak.

8 Haurtxoko daude Donostian eta 5 eta 11 urte bitarteko haurrak (HH5etik HHko 5. maila arteko haurrak) joan daitezke. 12 eta 17 urteko gazteei zuzenduta hirian 8 Gazteleku daude. Bestetik, 18 urtetatik 30era bitarteko gazteek Kontadores Gazte Zentroa dute, bertan, gazteek beren kultura kezka gauzatu eta garatzeko eta sorkuntza proiektuak partekatzeke aukera dute.

4.4.1.1. Udal Haurtxoko eta Gaztelekuko hezitzaileak

Ekipamenduetan 35 pertsonak dihardute lanean, 24 emakume eta 11 gizon, 35 langile horietatik, %68 emakumeak badira ere, koordinatzaile lanetan bakarrik gizonak daude, %100.

	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Haurtxokoak	14	2	16
Gaztelekuak	8	6	14
Antiguako HT eta GL	2	0	2
Kontadores	2	1	3
Koordinatzaileak	0	3	3
GUZTIRA	26 (%68)	12 (%32)	38 (%100)

Ekipamendu hauetan lan egiten duten begiraleei emakume eta gizonen arteko berdintasunerako formazioa eskaintzen diete Gazteria sailetik, formazioa honako hau izan da 2018an:

- Indarkeria matxistaren prebentzioan: "Indarkeria matxista nerabezaroan II Jardunaldia" (Urriaren 25a Kutxa Kultur Plazan – Tabakalera) Guztira 128 pertsona parte hartu zuten, horietatik 96 (%75) emakumeak ziren, 27 (%21) eta 5 (%4) ez binarioak. Jardunaldiko hizlariak, taileristak, klownklusioak, bideo grabaketa arduradunak denak (%100) emakumeak ziren.
- Gaztelekuetan eraso sexista eta indarkeria matxista kasuen aurreko jarraibide protokoloa diseinatu. ⁵¹

2019rako aurreikusitako formazioa:

- Autodefentsa ikastaroa + eraso sexisten inguruko protokoloari buruzko ikastaroa .
- "Maskulinitateak Lantzen" ikastaroa. Gizonezko hezitzaileak eta maskulinitateak: gizonak ikuspegi hezkidetzalea txertatzen.

4.4.1.2. Ekipamenduetako erabiltzaileak

Donostiako Haurtxokoetan 2109 haurrek parte hartu dute 2018.urtean, horietatik 1.105 neskak dira (%50,46) eta 1.085 (%49,54) mutilak, beraz, oso kopuru berdinean ibiltzen direla ondorioztatu dezakegu.

Gaztelekuetan aldiz, neska eta mutilen artean ezberdintasun handia ematen da, izan ere, 1790 erabiltzaileetatik 624 neskak (%34,86) dira eta 1.166 mutilak (%34,86).

Kontadores Gazte Zentroetako laborategietako partaide nagusiak emakumeak dira, 114 emakume (%76,51) eta 35 gizon (%23,49) lehenengo hiruhilekoan eta proportziotan antzeko joera bigarren hiruhilekoan, 67 emakume (%67,68) eta 32 gizon (%32,32). Guztira, 248 (%100) pertsonak parte hartu dute, 181 emakume (%72,98) eta 67 gizon (%27,02).

Gizonen artean laborategi arrakastatsuenak sukaldaritzarekin lotutakoak dira, emakumeek aldiz laborategi guztietan era orokor batean parte hartzen dute.

⁵¹ Ekimen honen helburua, Donostiako Gaztelekuetan hezitzaile eta erabiltzaileekin indarkeria matxistaren prebentzio eta esku-hartze protokolo bat sortzea eta horren bitartez gai honi buruzko sensibilizazio prozesu bat bultzatzea da. Donostiako Gaztelekuetan indarkeria matxistaren prebentzio eta esku-hartze protokolo sorreraren proposamena garatu dugu. Proposamen hau, esperientzia pilotu moduan, gazteleku batean garatzen ari da, 2019ko urtarriletik aurrera. Esperientzia honetatik informazioa atera eta beste gazteleku edo guneei batzuetara zabaltzea ahal izatea da asmoa.

BAZKIDEAK HAURTXOKOAK (2017/2018 IKASTURTEA)

	Neskak	Mutilak	Guztira
GUZTIRA	1105 (%50,46)	1085 (%49,54)	2190 (%100)

BAZKIDEAK GAZTELEKUAK (2017/2018 IKASTURTEA)

	Neskak	Mutilak	Guztira
GUZTIRA	624 (%34,86)	1166 (%65,14)	1790 (%100)

KONTADORES GAZTE ZENTROA

Laborategietako partaideak (2017/2018 ikasturtea)

GUZTIRA

KONTADORES LABORATEGIAK	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Azaroa-otsaila	114	35	149
Apirila-ekaina	67	32	99
GUZTIRA	181 (%72,98)	67 (%27,02)	248 (%100)

4.5. Hirigintza, Mugikortasuna eta Etxebizitza



4.5.1. Mugikortasuna

Hainbat azterlanek erakutsi dute mugikortasun iraunkorra lagungarria dela kontziliaziorako eta erantzunkidetasunerako.

Mugikortasun iraunkorra aurrera doa, eta hurbileko zerbitzuak behar ditu auzoetan (eskolak, haurtzaindegiak, osasun zentroak, dendak eta abar) jendeak joan-etorri laburrak egiteko, ahal dela, oinez.

Ikuspegi horretatik, oso interesgarria da Eskola Bidea, Mugikortasun Zuzendaritzak sustatutako programa; izan ere, neska-mutilen autonomia sustatzen du etxetik eskolara taldean joateko, boluntarioen laguntzaz.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentuaren arabera, Gipuzkoako lurraldeko bidegorri-sarean bizikletan ibiltzen diren herritarrak ikusita, generoari dagokionez, oraindik desoreka handia dagoela nabarmendu daiteke. Erabiltzaile guztietatik % 84 gizonezkoak diren bitartean, emakumezkoak % 16 dira.

Donostiako datuek beste egoera bat erakusten digute, izan ere, bizikletaren erabilerari buruzko datuei begiratuta, nolabaiteko oreka dago emakumeen eta gizonen artean.

2016an egindako azken kontaketek erakusten dutenez, hau da sexuen araberako banaketa: Kontxa (% 39 emakumeak, % 61 gizonak), Federico Garcia Lorcako igogailu ingurua eta Cristina Enea parkea (% 49 emakumeak, % 51 gizonak), Kurasaaleko zubia eta Zurriola hiribidea (% 41 emakumeak, % 59 gizonak), Santa Katalina zubia (% 36 emakumeak, % 64 gizonak); baina ez da beti hala, baldin eta guneei edo bizikleta zaleen adinari erreparatzen badiegu. Emakumeek nahiago dituzte erdialdeko gunek bizikletaz ibiltzeko, ez hainbeste kanpoko eremuak. Gainera, 60 urtetik gorako emakumeen artean bizikletaren erabilerak nabarmen egiten du behera.

Bizikletak alokatzeko DBizi sistema publikoan 2.632 pertsona daude izena emanda. Horietatik 1.214 emakumezkoak dira, eta 1.418, gizonezkoak. Ez daukagu zerbitzuaren erabilera errealari buruzko daturik.

Autobusaren erabilerari dagokionez, DBusen 2016ko bidaien zenbateko metatuak erakusten du bidaien % 67,46 emakumezkoek egiten dituztela, eta % 32,54, gizonak. Egunez egiten diren bidaietan, ehunekoak antzekoak dira: % 67,43 emakumeak eta % 32,57 gizonak. Gaueko lineen erabileran, berriz, gizonen ehunekoa handiagoa da: emakumeak % 57,39 dira, eta gizonak, % 42,61.

Hori guztia kontuan hartuta, baieztatu dezakegu emakumeen eta gizonen mugitzeko moduan desberdintasunak daudela, sexuaren arabera lan banaketatik eratorriak. Hala, adin ertaineko gizonak nagusiki ibilgailu pribatua erabiltzen dute ordaindutako lanarekin eta aisiarekin lotutako joan-etorrietarako, eta emakumeak, aldiz, batik bat oinez edo garraio publikoan mugitzen dira, gehiagotan eta bide laburragoetan, zaintzarekin, harreman pertsonalekin eta ordaindu gabeko lanarekin lotutako arrazoiengatik.

Sexu bakoitzak erabiltzen dituen garraio motei buruzko datuak aintzat hartuta, komeni da gogoan edukitzea garraio publikoko sarea hobetzera bideratutako gastuak onura handiagoa ekarriko diela emakumei eta horiek zaintzen dituzten pertsonari: adingabeei eta mendetasuna duten pertsonari.

Aldiz, aparkalekuetan edo ibilgailu pribatuen joan-etorriak hobetzeko proiektuetan inbertituz gero, onuradun nagusiak gizonak izango dira.

Era berean, kontuan hartu behar da espaloian eraikitako bidegorriek espazioa eta segurtasuna kentzen dizkietela oinezkoen, batez ere ahulenei (adinekoak eta haurrak), eta arazoak sortzen dituztela oinezkoen eta txirrindularien artean. Motordun trafikotik hurbil dauden babes gutxiko bidegorriak ez dira oso erakargarriak emakumeentzat, eta arriskutsuagoak dira txirrindulari guztientzat. Beraz, bidegorri seguruetan inbertitzea komeni da: trafikoaren abiadura moteltzen lagunduko duten eta oinezkoen pasabideetan ahalik eta eragozpen gutxien sortuko duten bidegorrietan. Era berean, interesgarria izango litzateke auto gidarientzako sentibilizazio kanpainak egitea autoen eta bizikleten arteko bizikidetzaren hobea sustatzeko, eta emakumeak, bereziki 60 urtetik gorakoak, bizikleta erabiltzera animatzea, bizikleta elektrikoaren alokairu publikoko sistemari buruzko ikastaroak eta erakustaldiak eginez.

Azkenik, eredu maskulinoa orokortzea eragotzi nahi bada (hau da, kasu honetan, emakumeek gizonen garraio ohiturak hartzea) eta mugikortasun iraunkorraren aldeko apustua egin nahi bada, aztertu behar da nola erakar daitezkeen gizonak garraio publikoaren sarera, eta, hortaz, sentibilizazio kanpainak, halakorik bada, gizonengana bideratuta egon beharko dute. Bestalde, hiriko trafikoari eta mugitzeko moduei buruzko edozein azterlanek kontuan hartu beharko luke genero ikuspegia, arlo horretan desberdintasun handiak baitaude, deskribatu dugunez.

4.5.2. Etxebizitza

3.4. puntuaren aipatu bezala, Hiritarren pertzepzioari buruzko inkestak (Donostia Futura) 10etik 8,75eko batez besteko nota ematen dio Donostian bizitzearen gogobetetze mailari. Inkestak, hirian gutxien baloratzen diren edo inkestari gehien arduratzen dieten zenbait alde agerian jartzen ditu: etxebizitza bat arrazoizko prezioan aurkitzeko ezintasuna eta bizitzeko hiri garestia dela agerian jartzen du inkesta honek.

2018an burututako galdetegian, etxebizitza bat arrazoizko prezioan aurkitzeko ezintasuna izan da parte hartu dutenen aldarrikapen argia.

18 eta 34 urte bitarteko EAEko soldatapeko emakumeek euren errentaren % 59 bideratu beharko lukete etxebizitza librea erostera, 2016ko datuen arabera, baita gaur egun ere, hipoteka-kostuen baldintzak hobek diren arren.⁵²

Erosteke egin beharreko ahalegina, atzeraldian izandako etxebizitzaren prezioen gainbeheraren ondorioz nabarmen gutxitu bada ere, ahalegin onargarriaren ohiko erreferentzia den % 30eko mailatik oso gora dago.

Soldatapeko emakumeentzat etxebizitza jabetzan hartzeak duen kostua gizonentzat duena baino hamar puntu handiagoa da. Soldatapeko emakumeentzat onargarria litzatekeen gehieneko prezioak ia ez du 100.000 euroko maila gainditzen, hau da, etxebizitza babestuaren prezioetik ere oso azpitik gelditzen da.

Esanguratsua da, halaber, soldatapeko emakumeek etxebizitza libre bat erosteko egin behar duten ahalegin ekonomikoa, soldatapeko gizonek egin beharrekoa (% 49,6koa) baino hamar puntu handiagoa baita. Era berean, EAEn etxebizitzak garestiagoak direnez, bertako emakumeek etxea erosteko soldata bidez egin behar duten ahalegina estatuko emakumeek egin behar dutena (% 50,5koa) baino bederatzi puntu handiagoa da.

Azken 6 urteetan etxebizitzaren prezioa jaitsi egin da metro koadroko. 2008ko urtarrilean 4.841,5 eurotan zegoen metro koadroa eta egun mila euro gutxiagoan (3.821,2 €/m²). Hala ere, 2014ko irailean, estatu mailako hiririk garestiena da, atzetik dituela Bartzelona (3115,7 €/m²), Bilbo (2.871,4 €/m²) eta Madril (2.701,9 €/m²).⁵³

4.5.2.1. Etxebizitzaren alokairu prezioa merkatuan

Etxebizitzaren prezioa bezala, alokairua ere jaitsi egin da Donostian azken urteetan. 2012ko abenduan 11,4 €/m²-ko zegoen ordaindu beharra, eta urtebete geroago ia euro bat merkeago dago (10,5 €/m²).

Prezioari dagokionez, jaitsiera 1.094 eurotik 1.040rako izan da. Jaitsiera hori kontuan izanik ere, Euskal Herriko hiririk garestiena izaten jarraitzen du alokairuari dagokionez, nahiz eta Bilborekin zuen aldea murriztu egin den eta egun antzeko prezioetan dauden.

⁵² [http://www.etxebide.euskadi.eus/x39-](http://www.etxebide.euskadi.eus/x39-ovpe02/eu/contenidos/informacion/ovv_mujer17/eu_ovv_ana/index.shtml)

[ovpe02/eu/contenidos/informacion/ovv_mujer17/eu_ovv_ana/index.shtml](http://www.etxebide.euskadi.eus/x39-ovpe02/eu/contenidos/informacion/ovv_mujer17/eu_ovv_ana/index.shtml)

⁵³ file:///C:/Users/Usuario/Downloads/DOKUMENTUA_DONOSTIA%20GAZTE%20%20DIAGNOSIA%202014.pdf

Bestetik, Estatu mailako bigarren hiririk garestiena da Donostia, Madrilen atzetik (1.226 €, 2014ko irailean).⁵⁴

18 eta 34 urte bitarteko emakumeentzat etxebizitza alokairuan eskuratzeak duen kostua goraka doa 2013tik, ez horrela etxebizitza jabetzan eskuratzeko kostua; izan ere, aldi horretan alokairu libreko errentek gora egin zuten EAEn. 2016an, EAEn, 18 eta 34 urte bitarteko soldatapeko emakumeek soldataren % 73 bideratu behar zuten alokairu libreko etxebizitza baten errenta ordaintzera.

Horrela, soldatapeko emakume batek bakarrik bizitzera joateko gehienez onar zezakeen errenta 362 eurokoa zen 2016an. Zenbateko horrek nabarmen egin du behera 2010etik, urte hartan batez bestekoa 396 eurokoa izan baitzen.

Gainera, batez besteko errenta hori soldatapeko gizonek onar dezaketan 438 euroko errentaren azpitik dago. Gehieneko bi errentak EAEn alokairuan eskainitako etxebizitza librean batez besteko errentatik oso urruti daude (2017an 944 eurokoa zen).

4.5.2.2. Alokabide zerbitzua

ALOKABIDE zerbitzutik, beren etxebizitza alokairuan eman nahi dutenen eta etxebizitza bat alokatu nahi dutenen artean bitartekaritza egiten duen zerbitzutik, lehentasuna ematen diote indarkeria matxistari aurre egin beharrean diren emakumeei ostatu emateari, gizarte zerbitzuek hala eskatuta.

Beste zerbitzuetako bat da 65 urtetik gorakoei apartamentuak alokairuan eskaintzea, 243 euroko errentaren truke, bi logelakoak, pertsona batek zaintzera joan behar badu ere, eta 35 urtetik beherako gazteei, logela batekoak, eta gehienez 5 urterako.

Beste kontu-sailtako bat da birgaitzeko diru laguntzena auzo elkarreentzat eta familientzat. Laguntza horien xedea da adineko pertsonen bizi kalitatea hobetzea: mugikortasuna, segurtasuna, eraginkortasun energetikoa.

⁵⁴file:///C:/Users/Usuario/Downloads/DOKUMENTUA_DONOSTIA%20GAZTE%20%20DIAGNOSIA%202014.pdf

4.6. Kultura, Euskara eta Kirola



Kultura, Euskara eta
Kirola

Kultura funtsezko eskubide bat da eta gizarte-eraldaketarako ezinbesteko tresna. Ez dago herririk kulturarik gabe, kultura bere zentzu zabalean ulertuta, herri baten ezaugarriak eta baloreak transmititzen dituen adierazpide modua baita. Gainera, kultura-jardueraren emaitzak jendarte nortasun eta kohesioaren iturri dira.

Kultur arloan emakume eta gizonen artean ezberdintasunak handiak dira: emakumeek presentzia adierazgarria dute publiko kontsumitzaile gisa, kulturaren sektoreko lanpostuetan ia paritatezko mailak ematen dira, eta, halere, lan-merkatuan duten pisua murriztagoa da ia sektore guztietan, bereziki erantzukizuneko eta erabakiak hartzeko postuetan. Are txikiagoa da oraindik sortzaile modura duten presentzia kultura hedatzeko zentroetan, esate baterako museo, antzoki edota zinema-aretotan.⁵⁵

Oso zaila da KULTURA definitzea eta mugatzea, barnean hiri baten jardunaren milaka adierazpen sartzen dira, artea, ikus-entzunezkoak, musika, literatura, jaialdiak.. Era berean, ezinezkoa da Donostian kultur alorrean gauzatzen diren ekimen guztiak aztertzea.

2016ko Kultura Ohituren Paneleko (Kulturaren Euskal Behatokia) datuen arabera, emakumeek gizonak baino kultura gehiago kontsumitzen dute. Urtean 8,75 liburu irakurtzen dituzte (gizonak 4,59) eta liburutegietara gehiago joaten dira (urtean 3,70 bider eta gizonak 2,48 bider). Ezberdintasunak ez dira horren nabariak zinemara (3,71 vs 3,63), ikuskizunetara (3,22 vs 2,89) edo erakusketetara (2,78 vs 2,65) joateari dagokionez, nahiz eta emakumeen presentzia handiagoa izan.

Bestalde, gizonak gehiago joaten dira kontzertuetara (3,68 vs 3,22), bideo-jokoetan emakumeak baino gehiago jokatzen dute (bikoitza) eta interneten film, telebista edo bideo gehiago ikusten dituzte (astean 5,10 eta emakumeek astean 4,84).

⁵⁵ "Generoaren araberrako eraginaren ebaluazioa Kulturaren esparruan". Emakunde. 2017

4.6.1. Kultura

Donostia Kultura -gaur egun Enpresa Erakunde Publikoa- hiriaren garapen eta proiektiorako kultur eragile nagusia da. Hainbat udal-ekipamendu eta -zerbitzu kudeatzeaz gain, kultura-diziplina guztietan programazioa eta jaialdiak antolatzen ditu eta, bereziki, hirian kultura-plataforma berriak sustatzen ditu ekimen publikoak eta pribatuak bateratuz.⁵⁶ 2013ko abenduan, Donostia Kulturako emakume eta gizonen I. Berdintasunerako Plana egin zuten.⁵⁷


Donostia Kulturaren Berdintasun Plana

Donostia Kulturak 2017an bukatu zuen langileentzako barneko I. Berdintasun Plana aplikatzen. 2018an emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko barne diagnostikoa eguneratu zuen, barnean hartuta haren jarduketa eremuaren analisia genero ikuspegitik, Donostia Kulturak 2019an egingo duen II. Berdintasun Plana egin aurretiko urrats gisa. Berdintasun plan espezifiko horrez gain, Donostiako Udalaren III. Berdintasun Planaren Koordinazio Batzorde Teknikoan ere hartzen du parte Donostia Kulturak.

Erakunde honek urtero memoria bat argitaratzen du aurrera eramandako ekitaldi guztiak batuz. Egia da, hirian badirela beste hainbat eragile kultur arloan aktiboak direnak, baina Donostia Kulturaren agintepean antolatzen diren jarduerak izango ditugu kontuan. Esan beharra dago, asko eta anitzak direla; urtean zehar 600dik gora ikastaro ematen dira hirian, liburutegietan 461.000 mailegu baino gehiago, Egia eta Intxaurrendoko Musikagela proba-saioterako gelak, Victoria Eugenia Antzokiko Master Classak, 20 lehiaketa baino gehiago eta horietan emandako sariak, Olatu Talkan ikusgai jarritako 174 jarduera amateurak... (Donostia Kultura. 2017ko Memoria).

Hona hemen 2016ko adierazle nagusiak:

7.grafikoa: Donostia Kultura adierazleak



Iturria: Donostiako Udala

⁵⁶ Nortzuk garen: Donostia Kulturaren web orriko informazioa.


⁵⁷ Barne Plana da, hau da, enpresa barruko antolaketan eragiten duen Plana baina ez ditu "kanpora begira" neurriak ezartzen.

4.6.1.1. Donostia Kulturako Bazkideak

2017ko urte amaieran, 100.461 bazkide zituen Donostia Kulturak (% 77, donostiarrak), hots, DK txartela, zutenak, 2017an egindako 4.566 bazkide berriei esker. Horietatik, ia % 60 emakumeak dira, eta Amara da bazkide gehien dituen auzoa, % 19,12rekin, eta ondoren, Gros (% 13,95), Antigua-Ibaeta (% 11,34) eta Intxaurreondo (% 11,22) datoz.

Guztira: 100.461 pertsona: 60.027 emakume (%60) eta 40.434 gizonak (%40)

8.grafikoa: Donostia Kulturako bazkideak



Iturria: Donostia Kultura 2017ko memoria

4.6.1.2. Formazioak/ Kultur Ekintza

Emakumeek kultur ekoizpenean presentzia eskasa badute ere eta kulturaren emakumeen ordezkaritza urria, beraiek dira kulturaren kontsumoan protagonismo nagusia dutenak.⁵⁸

Donostia Kulturak kultur etxeetan eskaintzen dituen ikastaroek harrera ezin hobea izan zuten 2017an. 2016-2017 ikasturtean, 10.378 lagunek baino gehiagok eman zuten izena 556 ikastarotan. 2017ko iraileko kanpainan, esaterako, %21 igo zen eskaintako ikastaro kopurua. Ikastaroak aspaldi eskaintzen dituzte kultur etxeek eta oso egonkortuta daude, baina kulturarekin loturako ikastaroak gero eta gehiago zabaltzen ari dira Donostia Kulturaren. (Donostia Kultura_2017ko Memoria)

⁵⁸ "Generoaren arabera eraginaren ebaluazioa Kulturaren esparruan". Emakunde. 2017: **Irakurketan eta liburutegietarako bisitetan ematen da, kultur jardueri dagokionez, alderik handiena generoaren arabera**. Irakurketa kontsumitzeari dagokionez, emakumeek ageri dute nagusitasunaren azalpena izan daiteke etxean, seme-alaben zaintzan nahiz senideen zaintzan denbora gehiago ematen dutela. Liburutegietarako bisitak, aldi berean, irakurketarekiko zaletasun handiagoarekin, liburuen mailegua doan izatearekin eta liburutegietako jarduerekin justifika daiteke, eta baita liburutegira joatea seme-alabak zaintzen diren bitartean egin daitekeen kultur jarduera bat delako ere.

Donostia Kulturako ikastaroen eskaintza askotarikoa da, bai formatuei dagokienez (ikasturte osokoak, lau hilekoak, autore-ikastaroak, haurrentzako eta gazteentzako ikastaroak...), bai edukiei dagokienez (arte plastikoak, komunikazioa, arte eszenikoak, literatura...) kulturaren inguruko trebakuntzaren arlo ia guztiak hartzen ditu.

Formazioetan parte hartzen dutenen kopuru handiena EMAKUMEAK dira. 2016/17/18 ikasturteko formazioetan 7.253 emakume (%70) eta 3.125 gizon (%30) parte hartu zuten.

8.grafikoa: Kultur Ekintza_ 2017ko datuak

Prestakuntza EMAKUMEAK						
	GUZTIRA		EUSKERAZ		GAZTELANIAZ	
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	556	7.253	136	1.262	420	5.760
2016/17 Ikastaroak	258	3.470	58	594	200	2.797
2017/18 Ikastaroak	298	3.783	78	668	220	2.963

Prestakuntza GIZONAK						
	GUZTIRA		EUSKERAZ		GAZTELANIAZ	
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	556	3.125	136	393	420	1.810
2016/17 Ikastaroak	258	1.517	58	191	200	869
2017/18 Ikastaroak	298	1.608	78	202	220	941

Iturria: Donostia Kultura 2017ko memoria

4.6.1.3.Kultur Ekitaldiak

ZINEMALDIA

Zinemagintzaren esparruan ez dago film luzeen ekoizpenari buruzko datu zehatzik EAEn. Baina, adibide gisa, Estatu mailako datuei erreparatu badiugu, 2017ko Goya sarietarako hautagaitzetan aurkeztutako filmen artean % 20 baino gutxiago ziren emakumeek zuzendutakoak. Eusko Jaurlaritzak jaialdi eta sariketetan aurkezteko eratzten duen Kimuak film laburren katalogoan, 2014 eta 2016 bitartean hautatutako 21 piezetatik soilik 5 izan ziren emakumeek zuzendutakoak, % 24. (Emakunde, 2018)

Donostia Zinemaldiko hautespen batzordea parekidea izango da 2019. urtean, izan ere Parekidetasunaren eta Emakumeen Inklusioaren aldeko gutuna sinatu du 2018ko irailean.

Zinemaldiak hainbat konpromiso hartu ditu: generoaren arabera banatutako estatistikak konpilatzeko lanean ari da, bai hautagai izan diren filmi buruzkoak, bai hautatutako eta programatutako filmi dagozkienak, emakumeek zuzendutako proiektuen presentziari

buruzko datu fidagarri eta egiazkoak biltzeko; hautespen- eta programazio-batzordeetako kideen zerrenda zabalduko du (Zinemaldiko webgunean kontsulta daiteke).

SANTELMO MUSEOA

2015ean EAEko Museoek antolatutako 24 erakusketetatik, 7 baino ez ziren izan (% 18,4) artista emakumeei modu eskusiboan eskainiak. (Emakunde, 2018)

Museo eta arte-zentroetan bi sexuek duten presentziari dagokionez ematen den ezberdintasunak eragin nabaria du emakumeen lana eta obra erakusterako orduan. “Emakumeen presentzia ikusizko eta ikus-entzunezko arteetan” izeneko 2016ko ikerketaren arabera, emakumeen erakusketen ekoizpenaren batez besteko kostua 18.360 eurokoa zen, eta gizonena 29.880 eurokoa, ia bikoitza.

Donostiako San Telmo museoak, 136.000 bisitari izan zituen 2017.urtean, horietatik 110.000 erakusketetan parte hartu zuten eta 25.600 jardueratan.

4.6.1.4. Festak

Desberdintzak are nabariagoak dira kultura herrikoiaren esparruan: badirudi tradizioaren pisua oztopo bat dela. Alor honetan aurrerapausoak eman badira ere oraindik; festak, jendartearen adierazpen diren heinean, egunerokoan ematen diren zapalkuntza eta diskriminazio sexisten isla ere badira eta ezinbestekoa da jaiak parte-hartzaileago eta parekideago egiteko lanetan jarraitzea.

Hurrengo lerroetan Donostiako festatan parte hartutako pertsona kopurua jaso da:

. ERREGE MAGOAK

600 parte-hartzaile baino gehiago: %60 emakumeak⁵⁹ eta %20 gizonak.

. HAUR DANBORRADA

4997 parte-hartzaile (7.697 parte-hartzaile, kontuan izanik ikastetxeek auzoetan egindako haur-danborradak) baino gehiago: %51 neska eta %49 mutilak.

. HELDUEN DANBORRADAK

17.366 parte-hartzaile: 140 Danborrada

6 Berri (mistoak) / % 92,8 mistoak / %0,7 emakumezkoenak / % 6,4 gizonzkoenak

⁵⁹ Emakume gehienak boluntario lanetan dihardute.

- KALDEREROAK

398 parte-hartzaile: % 57 emakumeak

- INAUTERIAK

2.208 parte-hartzaile (% 84,24 emakumeak)

921 neska/122 mutil eta 939 emakume/226 gizon

- ASTE NAGUSIA

Aste Nagusiko sariak

Guztira: 3 emakume / 9 gizon

- Herri-kirolak: 2 gizon (urrezko kopa eta Igeldo harria)
- Aste Nagusiko X. Marmitako Lehiaketa: 2 gizon
- Bertako produktuak erabiliz egindako Gazteentzako VI. Lehiaketa Gastronomikoa: bikote irabazlea 2 emakume
- Aste Nagusiko I. Ajoarriero Lehiaketa Bikote irabazlea: bikote irabazlea 2 gizon
- Aste Nagusiko Valentziar Paellaren I. Lehiaketa: Bikote irabazlea 1 emakume eta 1 gizona
- Aste Nagusiko I. Arkume Menestra Lehiaketa: Bikote irabazlea 2 gizon.

- ESTROPADAK

(...) 2017an zenbait gauza lortu ziren, hala nola Kontxako Banderaren lehen hamar urteak bete izana emakumeen sailean, gizonen eta emakumeen estropaden sarietan berdintasuna ezartzea Bi banderak, emakumeen eta gizonezkoena, parte-hartze baldintza berdinetan egin ziren (Donostia Kultura 2017ko Memoria).

Oraindik bidea geratzen da benetako baldintza berdina izateko, emakumeen protagonismoa, komunikabideek eskaintzen dieten denbora, ez baita berdina.

4.6.1.5. Musika

Musikan ere emakumeen partaidetza, kasu honetan, instrumentista modura, txikiagoa da; % 20 ingurukoa da Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren eta Bilboko Orkestra Sinfonikoaren kasuan, eta portzentaje hori mantendu egin da azken bi hamarkadetan.

Txosten batzuetan adierazten denaren arabera, Donostiako Orfeoia paritatearen kuotak betetzen dituen erakunde bat da, emakumeen portzentajea % 50tik gorakoa baita. Hori, oro har, musika bokal osoari dagokion errealitate bat da, izan ere,

emakumeen ahotsak gehiago dira, ahotsen tonuari dagokionez oreka bat eskuratzeko xedez.

Hiri musika herrikoiari dagokionez, arazoa antzekoa da. Sarrerak online saltzeko Ticketea plataformak 2017ko martxoan adierazten zuenez, Espainiako musika-jaialdi garrantzitsuenetako programazioan soilik % 15 dago emakumez osatutako talde batekin edo buruan emakume bat duen talde batekin osatua, eta Gasteizen ospatzen den Azkena Rock jaialdiaren adibide zehatza adierazten zen; izan ere, jaialdi horren programazioan emakume bakarra ageri zen, Buck and Evans taldeko abeslaria, hain zuzen. (Emakunde 2017)

HEINEKEN JAZZALDIA, programaturiko 16 kontzertutan, emakume bat edo batzuk izan ziren protagonistak. Gainera, Heineken Jazzaldian, 13 kontzertutan behinik behin, emakumeak izan ziren buru (Donostia Kultura 2017ko Memoria).

MUSIKAGELAKO erabiltzaileak

MUSIKAGELA, Donostiako musika aplikatua egiten duten taldeei zuzendutako zerbitzu publikoa da. Hiriko musika-jarduera sustatzeko eta dinamizatzeko proiektu bat da, entsegurako lokalak, kontzertuak, ikastaroak, aholkularitza eta beste ekimen batzuk barne hartzen dituena. Intxaurren eta Egia Kultur Etxeetan kokatuta dago.

Gizonezkoak dira zerbitzu honen erabiltzaile nagusiak, bi auzoetako Kultur Etxeetan, emakumeen partaidetza %14 inguru eta gizonena aldiz, %86 ingurukoa da.

30. Taula Musikagelako erabiltzaileen kopurua, sexuaren eta auzoaren arabera banatuta (2018)

MG INTXAURRONDO		
Emakumeak	11	%16,67
Gizonak	55	%83,33
Guztira	66	%100
MG EGIA		
Emakumeak	18	%12,68
Gizonak	124	%87,32
Guztira	142	%100
MG ERABILTZAILE GUZTIAK		
Emakumeak	29	%13,94
Gizonak	179	%86,06
Guztira	208	%100

Iturria: Donostia Kultura

Emakumeen artean, erabiltzaile gehienak 30-39 urte dituzte baina Kultur Etxearen arabera ezberdintasunak ematen dira. Egiako Musikagelan, 30-39 urte eta 40-49 urte bitarteko emakumeak dira zerbitzua gehiago erabiltzen dutenak eta Intxaurren aldiz, 20-29 urte eta 30-39 bitartekoak.

Gizonen artean, oreka handiago dago, Egian adibidez 40-49 urte bitartean dago talde bisitari handiena eta Intxaurren doko Kultur Etxeetan 30-39 urte bitartean.

31. Taula: Musikageletako erabiltzaileak, adinaren, sexuaren eta auzoaren arabera (2018)

EGIA	>20 urte	20-29 urte	30-39urte	40-49 urte	50-59 urte	+60 urte
MG EMAKUMEAK	%11,11	%5,56	%44,44	%27,48	%5,56	%5,56
MG GIZONAK	%8,06	%16,13	%16,94	%37,10	%15,32	%6,45
GUZTIRA	%8,45	%14,79	%20,42	%35,92	%14,08	%6,34
INTXAURRONDO	>20 urte	20-29 urte	30-39urte	40-49 urte	50-59 urte	+60 urte
MG EMAKUMEAK	%0,00	%45,45	%54,55	%0,00	%0,00	%0,00
MG GIZONAK	%0,00	%12,73	%30,91	%34,55	%21,82	%0,00
GUZTIRA	%0,00	%18,18	%34,85	%28,79	%18,18	%0,00
MG GUZTIRA	>20 urte	20-29 urte	30-39urte	40-49 urte	50-59 urte	+60 urte
	%5,77	%15,87	%25,00	%33,65	%15,38	%4,33

Iturria: Donostia Kultura

Musika eta Dantza Eskolako ikasleak

Musika eta Dantza Eskola udalaren erakunde autonomoa da. Irakaskuntza ez-arautuaren helburuak bere egiten ditu kulturaren sorkuntzari, kritikari eta hedapenari begira, musika eta dantza diziplinen alor espezifikoan, lehentasunezko hartuta.

Haren eginkizunak dira ikasketa antolatzea, irakaskuntza bideratzea eta Ikasketa Planean sartutako diziplinen ikerketa garatzea, baita bere alorreko zerbitzu publikoa emateari berez dagokion administrazio kudeaketa ere.

2017/2018 ikasturtean, eskolak 1.888 ikasle zituen, horietatik % 52,7, emakumeak.

Mailei dagokienez, 1. mailakoen % 56,3 dira emakumezkoak; 2. mailakoen ("Hastapena") % 52,7; 3. Mailakoen ("Finkatzea") % 48,8; eta 4. mailakoen ("Lehentasunezko jarduera") % 54,4.

Espezialitateei dagokienez, aldaketak egon diren arren, generoaren araberako hautu estereotipatuak mantentzen dira: gehienak emakumezkoak dantza klasikoan (% 92,1), biolan (% 90,3), koru kantuan (% 73,6), oboean (% 72,7); pianoan (% 72,2) eta abar; eta gizonezkoak dira nagusi tuban (% 100), perkusioan (% 84,4), baxu elektrikoan (% 83,3), tronpan (% 80,8), tronpetan (% 80,0), baterian (% 79,6), gitarra elektrikoan (% 79,3), tronboian (% 75) eta abar.

Musika eta Dantza Eskolak Udalaren III. Berdintasun Plana ezartzeko sail arteko Batzorde Teknikoan parte hartzen du. Barruko Berdintasun Talde bat eratu dute, berdintasunari transbertsalitatez heltzeko beren kudeaketan eta zerbitzu ematean. Antolakuntza eta funtzionamendu araudia ere genero ikuspegitik eratu dute.

4.6.1.6. Beste Batzuk

· URREZKO DANBORRA

Urrezko danborrak emakume kopurua: 2016ra arte 7 emakume.

Emakumezko: 7
Gizonezko: 67
Bestelako erakundeak, tokiak: 7
Eman gabe: 2

Iturria: <http://www.donostiasansebastian.com/tamborrada/oro.htm>

1977tik ematen da sari hau eta 2018ko azaroan erabaki da 2019ko Urrezko Danborra izateko hautagaien zerrenda soilik emakumez osaturik egotea.

Behin betiko zerrenda osatuko duten hiru, lau, edo bost pertsonen izenak adosteko bileran, hautagai guztiak emakumeak izan zitezela proposatu zuen EH Bilduk, eta PSE-EE eta Irabaziren bozkek babesa eman zioten egitasmoari.

Alderdi independentistak sariaren historia orekatzeko asmoz aurkeztu zuen proposamena, izan ere, 1967an lehen aldiz eskaini zenetik, Urrezko Danborrak soilik zazpi aldiz amaitu du emakume baten eskuetan. Eneko Goia alkateak 10:30ean adieraziko du zein den hautagaien behin betiko zerrenda.⁶⁰

GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN EBALUAZIOA KULTURAN

EMAKUNDE; 2018

Kulturaren kontsumoan, hein handi batean, aldeak oso txikiak badira ere, berriro aipatu behar dugu emakumeak desabantaila bikoitz batetik abiatzen direla. Alde batetik, aisialdirako denbora gutxiago dute gizonak baino. Eta beste alde batetik, ekonomikoki baliabide gutxiago dituzte soldata-arrakalaren ondorioz. Beraz, agerikoa da emakumeek kultura kontsumitzeko prestutasun eta interes handiagoa dutela. Eta kontsumitzaile gisa gehiengoa badira ere, deigarria da gizonak izatea kultur arloko programazioak erabakitzen dituztenak eta adierazpide gehienetan protagonista eta ekoizle izaten direnak. Horrenbestez, argi dago emakumeei ez zaiela uzten erabakitzen zer kontsumitzen duten eta zer-nola ordezkatuak izan nahi duten.

⁶⁰ <http://irutxulo.hitza.eus/2018/11/30/urrezko-danborra-hautagai-guztiak-emakumeak-izango-dira/>

4.6.2. Gastronomía

Kultura gastronomikoa oso sustraituta dago gure jendearen eguneroko bizitzan, eta oso lotuta dago gure historiarekin, gure ohiturekin eta gure aisia-moduekin. Donostiako gastronomiaren garrantzia eta ospea hiriaren kulturaren eta nortasunaren zati garrantzitsua dira, nazioarteko aitortpena dute eta mundu osoan duen erakargarritasuna finkatzen laguntzen dute.

Donostiak, biztanleko Michelin izar gehien (16) dituen hiria da (hiru izar dituzten hiru jatetxe daude) eta *Basque Culinary Center* unibertsitatea ere (Espainiako Zientzia Gastronomikoen lehen unibertsitatea) bertan dago.

2015ean 1.157 sukaldaritzak-establezimendu zeuden eta 5.076 langile ziharduen horietan; 2008aren eta 2015aren artean, % 6,5 murriztu ziren. Bestalde, jatetxeen eta janari-postuen kopurua (445 saltegi eta 2.927 langile 2015ean) % 17,1 handitu da denbora-tarte horretan.

Espainian, 2018an Michelin izarra duten 195 jatetxeetatik, 18k daukate sukaldari emakume *agintzen*.

Donostiako gastronomiaren aurpegia gizonezkoena da batik bat. Hona hemen 2018ko adibide bat, Nazioarteko kongresu gastronomiko nagusia den Donostia Gastronomika izenekoan, mundu osoko milaka chef eta sukaldaritzako aditu biltzen dira sukaldaritzaren esparruko nobedadeak aurkezteko:

10.grafikoa: San Sebastian Gastronomika



Iturria: sansebastiangastronomika.com

Datuak begiratzan ditugunean, emakume eta gizonen arteko erabateko partaidetza desorekatua ematen da, 2018ko hizlari gailenduen artean emakume bakar bat zegoen eta hizlari guztien %3 bakarrik emakumeak ziren %93ren aurrean.

HIZLARI GAILENAK 2018

15 gizon

1 emakume

HIZLARIEN ARTEAN

67 gizon

5 emakume (hauetatik 2 beste gizon batekin batera aurkezten dira).

San Sebastian Gastronomika 2017 kopurutan: India, Espezien sukaldaritza

- 567 biltzarkide
- Nazionalitate partaideak: 37
- Erakusketariak: 160
- Pertsonak lanean: 410
- Feriako bisitariak: 13.252
- Kazetari akreditatuak: 412
- Eskolen eta prestakuntzaren presentzia: 600 ikasle
- 10'5 milioiko irismena Twitterren
- 12,600 bider ikusitako bideoak Facebooken
- 146,500 inpresio Instagramen

4.6.3. Kirola

Kirol-arloan, emakumearen presentzia eta parte hartzea berandu eta zailtasun handiak gaudituta etorri da. Egun ere, beren presentzia gizonena baino txikiagoa da, bai jolasezko nahiz lehiatzeko kirolean, bai kirol profesionalean. Halaber emakumeen presentzia kirol sistemaren egituretan da txikiagoa. Beste esparru batzuetan bezala, kirolean ere hainbat traba esplizitu eta implizitu gaudituta behar izan dituzte emakumeek; alegia, desberdintasuna sorrarazi duten gizarte eta kultura estereotipoen ondoriozko aurreiritziak (Emakunde 2012).

Kirol praktika aztertzen dugunean, 4 esparru nagusi bereizi dezakegu:⁶¹

- Goi mailako kirola
- Kirol federatua
- Eskola kirola
- Aisialdi kirola

⁶¹ 2011.urtean, Donostiako Berdintasun Bulegoak, <<Emakume eta gizonen egoeraren diagnostika>> burutu zuen, dokumentu hura zaharkituta geratu denez, interesgarria izango zen berriz aztertzea, izan ere, kirola esparru zabala da dokumentu honetan osotasunean aztertu ahal izateko.

Kirola, lehen esan bezala, esparru maskulinoa izan da, emakumeak geldiro baina etengabe heldu direna. Hori bai, oro har, emakumeen presentzia oraindik ere txikiagoa da gizonena baino, batez ere, kirol federatu eta profesionaletan.

Kirol jarduna areagotu egin da Euskadiko herritarren artean azken bost urtetan. Jarduera hori asko areagotu dela ikus daiteke, batez ere, emakumeen artean, izan ere, beren portzentajea ia bikoiztu egin da, nahiz eta portzentajezko 8,3 puntuko aldea dagoen gizonetik kirol jardunean.

Eskola-adinean ziren 161 emakumek parte hartu zuten kirol txapelketetan 2016an, hau da, txapelketa horietan parte hartu zuten EAEko kirolari guztien % 50,5. Estatu mailan ere emakume gazteek gehiago parte hartzen dute gizon gazteek baino.


Donostiarren %73,84k (16 urtetiko gorakoek) kirol mota edo kirol jardueraren bat egiten du⁶², gutxienez astean behin, eta saio bakoitzari gutxienez ordu-erdia dedikatzen dio. Portzentaje hori %73koa da emakumeen artean eta gizonen artean, berriz, %75era iristen da.

32. taula: % Kirola egiten duten Donostiarrak, sexuaren arabera

	2011	2014	2017
Emakumeak	69,4	69,65	72,95
Gizonak	74,3	76,5	75,35

Iturria: Kirol Patronatua

9.grafikoa: % Kirola egiten duten Donostiarrak, sexuaren arabera



Iturria: Kirol Patronatua

⁶² KIROL PRAKTIKA DONOSTIAN (KIROL OHITUREI BURUZKO IKERKETA-2017)

Azken urteetan kirola egiten duten emakumeen kopurua gora egin du, 2011.urtean emakumeen %69,4a praktikatzen zuen kirola eta 2017.urtean %72,95ak. Gizonek ordea, azken urteetan antzera praktikatzen dute kirola hirian. Kopuruari begiratzen badiogu bien arteko ezberdintasunak murrizten doaz, baina, praktikatzen duten kirol mota begiratzen dugunean, aurkitzen ditugu ezberdintasunak. Aisialdiko kirol jardueran segregazio horizontala gertatzen da; izan ere, gizonek gehien egiten duten kirola korrika eta txirrindularitza dira eta emakumeek gehien egiten dutena ibiltzea eta aretoko jarduerak dira.

Partaidetza kirola egin nahi duten pertsonak modu ugarian egin dezakete Donostian. Aukera nagusiak aire librean oinez ibiltzea, bizikletan ibiltzea, korrika egitea, surfean aritzea, patinatzea, piraguismoa, eskalada ... dira. Gainerakoa, Kiroletako Udal Patronatuaren kirol instalazioetan edo gimnasio pribatuan egin daiteke.

Azkenengo jarduera hauek, aretoko jarduerak, ordutegi malgutasun bat daukate eta errazagoa izan liteke bititza pertsonala eta zaintza ardurekin kontziliatzeko. Interesgarria izango zen, kirol instalakuntzen erabiltzaileen ordutegiak sexu aldagaiarekin gurutzatzea, ezagutzeko adibidez, zeintzuk diren emakumeek erabiltzen dituzten ordutegiak eskaintza egokia egiteko. Aretoko jarduerak eta bertan burutzen diren jarduera fisikoak, askotan itxura estetikoa hobetzera bideratuta daude eta leku itxi batean izateak, segurtasunarekin lotuta egon daiteke. Donostiako datuak begiratzen baditugu, gizonek gehien praktikatzen duten kirola korrika egitea da baina ez emakumeena.

Halaber, aipagarria da 1990ean Donostiako Koordinadora Feministak emakumeentzat Lilaton, 5 km tako lasterketa antolatu zuenetik 30 urte igaro direla eta gaur egun, lasterketa sendoa eta ezaguna bihurtu dela. Emakume askorentzat, kirolean lehen urratsak emateko erreferentzia bilakatuz.


33.taula: Donostian gehien praktikatzen diren kirol jarduerak, sexuaren arabera

EMAKUMEAK		GIZONAK	
Ibiltzea	38,75%	Running	24,36%
Areto jarduerak	35,96%	Bizikleta	17,76%
Gimnasioa	13,33%	Gimnasioa	17,76%
Bizikleta	10,88%	Ibiltzea	16,82%
Igeriketa	9,55%	Igeriketa	16,82%
Running	8,43%	Futbola	12,15%

Iturria: Kirol UdalPatronatua

Kirolletako Udal Patronatua Udalaren erakunde autonomoa da, udalerrian kirola garatzea xede duena, kirola pertsonen oinarrizko eskubidea dela iritzita, kirolaren alderdi hezigarria, jolas alderdia eta alderdi lehiakorra aintzat hartuta, bai eta kirola ikuskizun gisa hartuta ere. Donostiak kirol azpiegitura zabala du eta ingurune naturalek ere aukera ugari eskaintzen dituzte jarduera fisiko eta kirol jardueren praktikorako.

10.grafikoa:Donostiako Kirol Patronatuaren datuak




Iturria: Donostiako Udala

Kirol Udal Patronatuak, hurrengo kirol instalakuntzak kudeatzen ditu zuzenean: (Belodromoa, Gasca-Atano, Yoldi, Bidebieta, SS Arena, Intxaurren, Altza, Egia, Benta Berri, Etxadi) eta zeharka (Zuhaizti kiroldegia, Martutene FK, Berio FK, Matigoxotegi FK, Cesar Benito FK, Puio FK, Herrera FK, Loiolako Erriberak KK).


Bestetik, Kirol Txartela eta kirol kanpainak kudeatzen ditu. Kirol Txarteleko abonatuak kopurua 47.837 pertsonakoa zen 2017an; horietatik % 45,7, emakumeak ziren. 2018an kopurua oso antzekoa izan da, harpidedunen %46 emakumeak izan dira eta %54 gizonak.

11.grafikoa: KIROK TXARTELAKO HARPIDEDUNAK – 2018



Iturria: Kirol Udal Patronatua

Ezberdintasunak erabilpenean aurkitzen ditugu; emakumeek joera handiago dute antolatutako jardueretan izena emateko eta gizonek erabilera libreko instalazioak erabiltzeko. 2017/18ko kirol ekintzen kanpainako ikastaroetan %69 emakumeak izan dira eta %31 gizonak, aitzitik, instalazioen erabilpenean, ezberdintasunak txikiagoak dira, erabiltzaileen %59 gizonak izan dira eta %41 emakumeak.

12.grafikoa: KIROL EKINTZAK KANPAINAKO IKASTAROETAKO PARTAIDETZA 2017/18⁶³

Iturria: Kirol Udal Patronatua

13.grafikoa: INSTALAZIOEN ERABILERA - 2018⁶⁴

Iturria: Kirol Udal Patronatua

⁶³ Bakarrik zuzenean kudeatzen diren instalazioetako ikastaroak (Yoldi, Bidebieta, Etxadi, Gasca, Egia, Belodromoa, Intxaurren eta Bentaberri)

⁶⁴ Bakarrik zuzenean kudeatzen diren instalazioak eta sarrera kontrola daukatenak (Yoldi, Bidebieta, Etxadi, Gasca, Egia, Belodromoa, Intxaurren eta Bentaberri)

4.6.3.1. Lizentzia Federatuak


Egun hirian, 10.032 lizentzia federatu daude, horietatik emakumeenak %33 dira eta %67 gizonenak. Azken urteen emakumeen lizentzia federatuen gorakada bat egon bada ere, oraindik bien artean ezberdintasunak handiak dira.

34. taula: Lizentzia federatuen kopurua (kadete / jubenila/heldua)

	2015	2016	2017	2018
Gizonak	%75,5	%70,35	%68	%67
Emakumeak	%24,50	%29,65	%32	%33
Guztira	10.555	10.416	10.008	10.032

Iturria: Kirol Udal Patronatua

14.grafikoa: Lizentzia federatuen kopurua (kadete / jubenila/heldua)



Iturria: Kirol Udal Patronatua


4.6.4. Euskara

Donostiako euskararen erabileraren datu orokorrak jasotako datuen arabera, erabilerak gora egin zuen arian-arian 1989tik 2006ra, baina 2006tik 2016ra behera egin du. Adin tarteei erreparatuz gero, oro har, haurrak aritzen dira gehien euskaraz, eta adinekoak gutxien. Esate baterako, 2016an haurren % 26,9k egiten du euskaraz, eta adinekoen % 6,9k. Generoari dagokionez, gaur egun Donostiako emakumeek eta gizonek berdintsu egiten dute euskaraz (% 15 batez beste), eta hiru puntu inguru egin du behera erabilerak 2006tik 2016ra (% 18tik % 15era, alegia).

Lehen Euskaraldia 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra gauzatu zen, Euskal Herri guztiko ehunka herritako milaka parte hartzaileekin. Ekimen hau, euskara ulertzen duten hiztunen arteko ahozko hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketa sozial masiboa izan zen⁶⁵, gizartearen gune guztietara zabaldua eta denborari dagokionez mugatua.

Donostiako datuek erakusten digute, parte hartzaileen artean, 11.155 (%63) emakumeak zirela, 6.345 (%36) gizonak eta 152 (%1) ez binarioak. Parta hartzaileen artean *ahobizi* ⁶⁶gehiago zeuden (%73), emakume, gizonak edo ez binarioak.

15.grafikoa: 2018ko Donostiako Euskaraldian parte hartzaileen datuak:



Iturria: Donostiako Euskara Zerbitzua

35.taula: 2018ko Donostiako Euskaraldian parte hartzaileen datuak.

	Ahobizi	Belarriprest	Guztira
Emakumezkoa	8.174	2.982	11.155
Gizonezkoa	4.557	1.789	6.345
Ez binarioa	121	32	152
Guztira	12.852	4.803	17.652

Iturria: Donostiako Euskara Zerbitzua

⁶⁵ <https://euskaraldia.eus/aurkezpena/>

⁶⁶ Ahobizi: euskaraz ongi moldatzen dena_Belarriprest: Euskaraz gutxi gorabehera hitz egin dezakeena baina ez dena ausartzen edo euskaraz ulertzen duena baina ez dena hitz egiteko gai sentitzen.

4.7. Parte Hartzea eta Elkartegintza



Jendarte-partaidetzaren azterketan emakumeek eta gizonek elkarrekin eta sozietateetako gai publikoetan duten partaidetzari buruzko informazioa bildu da.

Emakumeen presentzia eta parte-hartzea bultzatzea eta finkatzea gutxiegi ordezkaturik dauden esparruetan, ezinbesteko xedea izan behar du.

Eustat (2014) Gipuzkoako biztanleria soziedade eta elkarrekin eskaintako laguntza boluntario elkarrekin motaren arabera:

- Gazteria elkarrekin: % 9,9 emakumeak eta % 8,6 gizonak.
- Kirol elkarrekin: % 24,6 emakumeak eta % 55,4 gizonak.
- Kontzesioa erlijiosuak: % 18,1 emakumeak eta % 6,6 gizonak.
- Erakunde profesional, sindikalak eta politikoak: % 12,9 emakumeak eta 20,7 gizonak.
- Gizarte garapenerako lankidetzak erakundeak: % 11,5 emakumeak eta % 5,4 gizonak.
- Gizarte laguntza erakundeak: % 18,8 emakumeak eta %10,7 gizonak.
- Ingurugiro erakundeak: %3,1 emakumeak eta % 5,8 gizonak.
- Giza eskubideen erakundeak: % 6,1 emakumeak eta % 7 gizonak.
- Bizilagunen elkarrekin: %8,1 emakumeak eta % 15,9 gizonak.
- Arte, folklore edo dibertimenduzko elkarrekin: % 12,7 emakumeak eta %16,5 gizonak.
- Hezkuntza erakundeak: % 7,9 emakumeak eta %6,3 gizonak.

Antzeman daitekeen bezala gizonen pertenezia maila handiagoa da orokorrean emakumeekin alderatuta elkarrekin mota gehienetan. Hala ere, desberdintasun nabariena kirol elkarrekin aurki daiteke, non, gizonen pertenezia 30,8 puntu altuagoa den. Erakunde, politiko, sindikal eta profesionaletan (7,8), bizilagun elkarrekin (7,8), arte, folklore eta dibertimenduzko elkarrekin (3,8), ingurugiro erakundeetan (2,7) eta giza eskubideen erakundeetan (0,9) gizonen eskaintzen duten laguntza boluntarioa handiagoa da.

Emakumeen parte hartzea laguntza boluntarioari dagokionez handiagoa da kontzesio erlijiosuetan (11,5), gizarte laguntza erakundeetan (8,1), gizarte garapenerako lankidetzak erakundeetan (6,1), hezkuntza erakundeetan (1,6) eta gazteria erakundeetan (1,3).


Hona hemen bizitza erlazonala ekintza motaren arabarera, Eustatek (2013) Gipuzkoan eskaintze dituen datuen arabera:

- Irabazi asmorik gabeko parte hartze zibil eta laguntza: emakumeak 1,39 ordu eta gizonak 1,46 ordu.
- Irabazi asmorik gabeko parte hartzea erakundeetan: emakumeak 0,50 ordu eta gizonak 1,30 ordu.
- Erakundeen bitartez eginiko lana: emakumeak 2 ordu eta gizonak 1,40 ordu.
- Laguntza informala beste etxe batzuetan: emakumeak 1,28 ordu eta gizonak 1,50 ordu

Gizonek erakundeetan irabazi asmorik gabeko duten parte hartzea emakumeena baino 40 minutu gehiago da. Beste etxe batzuetan eskainitako laguntzak ere 22 minututan gainditzen du emakumeek egindakoa. Bukatzeko gizonen parte hartze zibila eta laguntza ere 7 minutu altuagoa da.

Emakumeen kasuan erakundeen bitartez osatutako lanak 20 minututan gainditzen du gizonek egindakoa.

36. taula: (2014) Gipuzkoako biztanleria soziedade eta elkarteetan eskainitako laguntza boluntario elkarte motaren arabera:



Iturria: Eustat

Atal honetan elkarte zein udaletzeko inizatiba ezberdinen bitartez biztanleriaren parte hartzearen ikerketa osatuko da.

Era guztietako 1166 elkarte daude inskribatuta Donostiako hirian. Horien artean 39 emakumeenak edo elkarte feministak lirarteke, alegia, emakumearen eskubideen defentsa edo beste gai batzuk lantzeko emakumeak biltzea bilatzen duten elkarteak. Donostiako elkarte guztietatik % 3,34 suposatzen dute mota honetako elkarteak.

Hona hemen Donostian auki daitezkeen emakumeen elkarteak, edo elkarte feministak:

37.taula: Donostiako emakumeen elkarteak eta elkarte feministen zerrrenda.

1. ALARGUNAK: alargunen Gipuzkoako elkarte	2. EMAKUME - LA MUJER
3. ASEDE: etxez etxeko laguntzaileen elkarte sindikala	4. EMAKUMEEN ETXEA ELKARTEA
5. Emakume bananduen Gipuzkoako erakundea	6. ESNATU emakumeen elkarte (Loiola)
7. ASPEGI-emakume profesional eta enpresarien Gipuzkoako elkarte	8. GARAI PEN
9. ZENTROA - prostituzioan diharduenarentzako orientazio eta laguntza zerbitzua	10. INTXAURRONDO BERRI (INTXAURRONDO)
11. DANDAI (EGIA)	12. KATXALIN bularreko minbizi ginekologikoak eragindako emakumeen elkarte.
13. DONOSTIAKO BILGUNE FEMINISTA - MARTITZ	14. EUSKADIKO ESNEAREN LIGA
15. ELKARTE BERRI: emakumearen gizarte eta kultur zentroa	16. LAGUNAK - etxekoandreen elkarte (INTXAURRONDO)
17. MUJERES DEL MUNDO UNIDAS	18. OSTADAR (LARRATXO)
19. PLAZANDREOK	20. UZTAI BELAR (ALTZA)
21. LANBERRIKO EMAKUMEAK	22. BOZAK ELKARTEA emakumeen komunikatzeko eskubideren alde
23. MEDINA EMAKUME MUSLMANDARREN ELKARTE KULTURALA	24. MOCHILAS ROJAS emakume elkarte
25. ROMI BIDEAN emakume ijito eta payen elkarte	26. (Damas Salesianas) LAGUNTZA, GARAPEN ETA ELKARTASUNA LAGAEL EMAKUMEEN ELKARTEA
27. LAS ZAMBRANAS emakumeen elkarte	28. A.M.C sormenaren sustapenerako emakumeen elkarte
29. HEGALDI emakumeen elkarte	30. EUSKAL HERRIKO EMAKUMEEN AHOTSAK emakumeen elkarte
31. HELORAN elkarte	32. BIRTARGI
33. JADANIK emakumeen elkarte	34. FEMUPE Euskadiko Emakume Progresistak
35. EMAKIN gizon eta emakumeen arteko berdintasunerako elkarte	36. REDAGI Gipuzkako emakume elkarte sarearen federazioa.
37. "GRUPO DE MUJERES INDEPENDIENTES G.M.I."	38. "MIA ES LA LUCHA" Emakume atzerritar artisauak borrokan.
39. EMAKUME AUSARTAK elkarte	

Iturria: Donostiako Udala

4.7.1. Aurrekontu parte hartzaileak genero ikuspegitik


Hiritarren parte hartze zuzenari dagokionez, genero ikuspegidun aurrekontu parte hartzaileetan jarriko da begirada. 2013. urtean Donostiko Udalak, aurrekontuak generoarekiko neutroak ez direnaren ideiatik abiatuta metodologia propio bat lantzea proposatu zuen, gizonen eta emakumeen gain eragin bereizgarria duten aurrekontu programak identifikatzeko. Azken urte hauetan herritarren partaidetzarekin bat egin da genero ikuspegia aurrekontu parte hartzaileen ekimenean txertatzeko.

Hau honela, “2019 Aurrekontu Parte hartzaileak. Donostia guztion Artean” proiektua martxan jarri da herritarrek proposamenak aurkeztu ditzaten 2019ko udal aurrekontuko 3.250.000,00 euro bideratzeko. Guztira 725 proposamen egin dira eta hauetatik 109 balioetsi dira bozkatze fasera pasatzeko. Hala ere, kontuan hartu beharra dago guzti hauek ez dutela genero ikuspegia barneratuta.

Jasotako proposamenak guztira egileen arabera:

- Elkarteak: % 39,7.
- Emakumeak: % 33.
- Gizonak: % 26,9.
- Beste batzuk: % 0,4.

17.grafikoa: jasotako proposamenak sexuaren arabera banatuta




Iturria: Donostiako Berdintasun Bulegoa

Ikus daitekeen moduan elkarteak izan dira proposamen gehiago aurkeztu dituztenak (288 proposamen). Indibidualki emakumeak izan dira proposamen gehien egin dituztenak (239) gizonekin alderatuta (195). Beren burua beste batzuk bezala identifikatzen dutenen artean 3 proposamen aurki daitezke.

Bozketa fasera pasatu diren proposamenak egileen arabera:

- Elkarateak: % 45,9
- Emakumeak: %31,2.
- Gizonak: %22,9.
- Beste batzuk: %0

18.grafikoa: bozketa fasera heldu diren proposamenak



Iturria: Donostiako Berdintasun Bulegoa

Ikus daitekeen moduan bozkatzeko fasera pasatu diren proposamen gehienak elkarateek eginikoak dira (50 proposamen guztira). Kasu honetan ez daukagu elkaratea osatzen duten pertsonen sexuaren inguruko daturik. Hala ere, kontuan hartzekoa da proposamenak egin dituzten 50 elkarateen artean 6 elkarate feministak zirela (%12).


Parte hartze prozesuaren puntu honetan emakumeek (34) eginiko proposamen gehiago aurki ditzakegu gizonekin (25) alderatu ezker. Hala ere, nahiko orekatua dago aurreko fasean aurkeztutako proposamenak kontuan hartzen badira.

Aurretik adierazi den moduan bozkatzeko fasera iritzi diren proposamenak ez dute zergatik genero ikuspegia txertatuta eduki behar. Kasu honetan 109 proposamen horietatik 8 dute genero ikuspegia barneratuta % 7,3 alegia.

Hona hemen bozkatze fasera igaro eta genero ikuspegia barneratu duten proposamenak egileen arabera:

- Elkartek: %10
- Emakumeak: %9.
- Gizonak %0.
- Beste batzuk %0.

19.grafikoa: genero ikuspegia barneratu duten proposamenak egileen arabera.



Iturria: Donostiako Berdintasun Bulegoa


Bozkatze fasera igaro diren proposamenen artean elkarteek egin dituzte genero ikuspegia barneratzen duten proposamen kopururik handiena (50 proposamenetik 5). Emakumeen kasuan 34 proposamenetik 3k barneratu dute genero ikuspegia. Gizonen kasuan eginiko proposamenen artean (25) ez dago genero ikuspegia barneratu duenik.

Beren burua beste batzuk bezala identifikatzen duten pertsonak aurkeztutako proposamenei dagokionez, ezin dugu jakin genero perspektiba barneratzen zuten hala ez, ez zirelako bozkatze fasera pasa.

Proposamenak aukeratzeko bozkatze fasean parte hartu duen pertsona kopurua sexuaren arabera:

- Emakumeak: 2.069 (%58,1).
- Gizonak: 1.491 (%41,9).

20.grafikoa: bozkatze fasean parte hartu duen pertsona kopurua sexuaren arabera.




Iturria: Donostiako Berdintasun Bulegoa

3.560 bozkatzaileen artean emakumeak gehiago dira (% 58,1) gizonekin alderatu ezker (%41,9). Hala ere, parte hartze prozesuko fase guztietan zehar egon den proportzioa mantentzen da.

Bozkatze fase ostean aurrera emango diren proiektuen zenbatekoa genero perspektiba kontuan hartuta:

- Genero ikuspegirik ez duten proiektuak: 22
- Genero ikuspegia barneratzen dutenak: 1

21.grafikoa: Bozkatze fase ostean aurrera emango diren proiektuen zenbatekoa genero perspektiba kontuan hartuta.



Iturria: Donostiako Berdintasun Bulegoa

Ikus daitekeen bezala aurrera eramango diren proiektuen artean 1ek izango du genero ikuspegia(% 4,5) *“Amara Berri ikastolako patioak birbanatzea eta formulatzea”* proiektuak alegia.

5. Informazio iturriak

Arloa	Dokumentazioa
DONOSTIAKO UDALA	
Berdintasun saila	<ul style="list-style-type: none"> • Donostiako Emakume eta Gizonen egoerari buruzko Diagnostikoa. 2013 • Diagnostikoaren ondorioen laburpena • Emakume eta gizonen egoeraren diagnosis Donostiako kirol esparruan. 2011 • Diagnosiaren ondorio batzuk jasotzen dituen triptikoa. Triptikoa 1, Triptikoa 2 • Emakumeen Etxearen Memoriak.
E2020DSS; Estrategia Bulegoa	<ul style="list-style-type: none"> • E2020DSS Plan estrategikoa. • E2020DSS Estrategiaren eguneratzea. • Hiritarren Pertzepzioari buruzko inkesta 2017 Lehen zatia. • Hiritarren Pertzepzioari buruzko inkesta 2017 Bigarren zatia.
Euskarako zerbitzua	<ul style="list-style-type: none"> • Donostiaeuskaraz.eus
Gazteria saila	<ul style="list-style-type: none"> • Donostiako Haur, nerabe eta Gazteen Diagnostikoa 2014.
Gizarte Ongizatea	<ul style="list-style-type: none"> • Urteko memoriak.
Kultur Aniztasunaren Bulegoa (Hezkuntza eta Giza Sustapenaren Zerbitzuaren atal bat)	<ul style="list-style-type: none"> • Donostiako biztanleriaren jaiolekuaren mapa eta bilakaera, 2012. • Jatorri aniztasuna eta elkarbizitza Donostian: iritziak eta hautemateak, 2013. • Jatorri aniztasuna eta elkarbizitza: emaitzen txostena.
Kultura saila	<ul style="list-style-type: none"> • Urteko memoriak.
Udaleko Datuen Behatokia	<ul style="list-style-type: none"> • Estudio de la Movilidad de la Comunidad Autónoma Vasca. 2016.
EMAKUNDE	
<ul style="list-style-type: none"> • ZIFRAK 2017. EMAKUMEAK ETA GIZONAK EUSKADIN. • Soldata arrakala Euskal Autonomia Erkidegoan 2018. • Emakumeen prostituzioa Euskal Autonomia Erkidegoan. • Generoaren araberako eraginaren ebaluazioa kulturaren. 	
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA	
<ul style="list-style-type: none"> • Gipuzkoan bizikleta garraibide gisa erabiltzeari buruzko ikerketa soziologikoa, 2014 	



Jarraitu den bide orria



Azaroaren 27, 28 eta 29an izan ziren Donostiako berdintasun diagnostikoa hiriko hainbat eragileekin kontrastatzeko bilera. Hiru lan talde hauek egin ahal izateko hainbat prospekzio lanak burutu dira. Lan saio hauen ordutegia: 18:00etatik 20:00ak arte izan zen.

Lan taldeak osatzeko burututako prospekzio lanak:



- . 1. lantaldea: 42 eragile identifikatuta eta 61 dei eginda.
 - . 2. lantaldea: 24 eragile identifikatuta eta 46 dei eginda.
 - . 3. lantaldea: 26 eragile identifikatuta eta 29 dei eginda.
- Guztira: 92 eragile identifikatuta eta 136 dei egin ziren.

Lan talde bakoitzean landutako gaiak:

Lan-ildoak:	Zer landu da?
<p>TALDE 1</p> <ul style="list-style-type: none"> • Berdintasuna eta Emakumeen aurkako Indarkeria. • Gizarteratzea eta Migrazioa. • Parte Hartzea eta Elkartegintza. 	<ul style="list-style-type: none"> • Herritar etorkinak, egoera legala, lan egoera, egoera familiarra, beraien arteko laguntza sareak. • Errenta, pobrezia arriskua, zerbitzuei sarbidea, gizarte bazterkeria arriskua. • Biztanleria autoktonoak dituzten aurreiritzi eta estereotipoak; pertsona migratzaileen kolektibo eta jatorriari buruz. • Erakunde publikoetan parte hartzea, partiduak, sindikatuak. • Erabaki guneetan parte hartze prozesuak, mugimendu asoziatiboa, mugimendu feminista.
<p>TALDE 2</p> <ul style="list-style-type: none"> • Hirigintza, Mugikortasuna eta Etxebizitza. • Enplegua, Turismoa eta Erantzunkidetasuna. 	<ul style="list-style-type: none"> • Lan merkatura sarbidea, lan merkatuaren aukerak, baldintzak, krisiaren eragina, ezkutuko ekonomia, langabezia tasa. • Turismoaren inpaktua emakumeen bizitzan. • Haur eta gazteen zaintza eta arretara bideratutako zerbitzuak. Menpekotasuna duten pertsonen zaintza. • Emakumeek eta gizonek eguneroko zereginetan erabiltzen duten denbora. • Lana eta familia bateratzeko lan arloko neurriak eta estrategiak. • Emakumeek hirian duten segurtasuna; pertzepzioa, eragina eta segurtasuna. Emakumeen presentzia sinbolikoa. • Garraio publikoaren erabilera, garraiobideak, joan-etorriak.
<p>TALDE 3</p> <ul style="list-style-type: none"> • Kultura, Euskara eta Kirola. • Hezkuntza arloa eta Gazteria. 	<ul style="list-style-type: none"> • Hezkuntza ez formalean, neskei zuzendutako jarduerak, hauen partaidetza, azpiegituren erabilera. • Haurtxoko eta Gaztelekuko langileen Berdintasun formazioa. • Kultur jarduera eta baliabideak, hiriko festa eta ospakizunak, jaialdiak, festibalak. • Kirol instalakuntzen erabilera.

LABURPENA: EZTABAIDA TALDEAK

1. lan- ildoko lan taldea (2018-11-27)

Berdintasuna eta Emakumeen aurkako indarkeria

Gizarteratzea eta Migrazioa

Partehartze eta Elkartegintza

PARTEHARTZAILEAK	
ERAKUNDEA/ELKARTEA	ORDEZKARIA
ACABE - Asoc. Contra Anorexia y Bulimia	Emakumea
ACABE - Asoc. Contra Anorexia y Bulimia	Emakumea
SOS RACISMO	Emakumea
Cruz Roja	Emakumea
PROYECTO HOMBRE	Gizona
NORBERA Fundazioa	Emakumea
Donostia Berdintasuna	Emakumea
Daiteke	Emakumea
Daiteke	Emakumea
Daiteke	Emakumea
GUZTIRA	9 emakume /gizon 1

1. eztabaida-gaia: Berdintasunaren bidean aurrera-pausuak. Gero eta ikerketa gehiago egiten ari dira erakundeetan, hori adierazgarria da, maila guztietan desberdintasunei arreta jartzen ari baitaie.

2. eztabaida-gaia: Non ikusten dituzue generoen arteko ezberdintasunak?

- Jokabideak ezberdin baloratzen dira, gizonezko batek edo emakumezko batek egin duen arabera. Askotan, profesionalen beraien begirada baldintzatuta egoten da inkontzienteki, Adibidez, *Gizakia helburu*-n ikusten dute judizialki ondo baloratua dagoela gizonezkoen kasuan beraien programetan partehartzea, baina ez emakumezkoenengan. Emakumezkoek ezkutuan eraman ohi dute arazoa, eta gehiago esku-hartzen da gizonezkoekin.
- Unibertsiate arloan (psikologia sozialean konkretuki) irakasleek patroiz estigmatizatuak jarraitzen dituztela ikusten da. Alde handia dago ikasleekin konparatuz, hauen artean guztiz normalizatuta baitago genero aniztasuna. Asko dugu ikasteko haiengandik.

- Hainbat zerbitzutara ez dira gerturatzen emakumeak, ez dituztelako testuinguru segurutzat bizitzen. Hori ikusten dute, adibidez, *Gurutze Gorrian*; gizezkoen kantitateagatik eta horien jatorri kulturalagatik, emakumezkoek ez direla gerturatzen gosari zerbitzua jasotzera. Bartzelonan, METZINERES proiektu bat dute egoera horri aurre egiteko, emakumezkoentzat soilik diren espazio eta jantokiak dituzte, non emakumezkoen segurtasuna bermatua dagoen.
- Familia askotan, desberdintasunaren eraikuntza orokorragoa da, generoa eta etnia hartzen ditu.
- *Acaben* batez ere amekin egin izan dute lan orain arte. Orain aldatzen ari da, eta zerikusi handia dauka gurasoen adinak.

3. eztabaida-gaia: Emakumeen etxea ezagutzen zenuten? Zein zen zuen ideia erakundeari buruz?

- Erantzun ezberdinak egon dira: *Gizakia Helburu-k*, adibidez, ez zuen ezagutzen. *Gurutze Gorriak*, aldiz, bai, bertara bideratzen dituzte pertsonak batzuetan.
- Lan garrantzitsua egin da Emakumeen etxetik, ikuspegiak aldatzen lagundu du, espazio berriak eskaini ditu, etab. Baina feminismoaren eraikuntzan ez dira kontuan hartzen emakumezko etorkinak. Ez dira ongietorriak sentitzen espazio hauetan.
- Badago interseksionalitate erreala, oso anitza dena (LGTB, ...). Baina xehetasun asko ditu eta oso zaila da praktikan jartzea.
- Lan gehiago egin behar da begiradak zabaltzean, uneoro norbere burua aztertzen joatea da oinarria.

4. eztabaida-gaia: zein dira Emakumeen etxearen erronkak?

- Baliabide bat gehiago izan behar da, biztanleen integrazioarako laguntza eskaintzen duena. Ikusgarritasun handiagoa eman behar zaio, etxeari berari zein bertako inizatibei.
- Elkarte guztiekin erlazioa izatea, elkarlanean, elkartrukean aritzea. Esaterako, *Norbera*-rekin.
- Emakume etorkinak erakarri behar ditu modu funtzionalago batean, gonbidapena eginez.
- Indar handiagoa egin behar luke genero aniztasunaren eta askotariko identitateen inguruan.

5. eztabaida-gaia: Nolako Donostia nahi duzue 2023rako? Udalari eskaerak.

- Ideia ezberdinak atera dira "Urrezko danborra" sariaren inguruan, Proposamenetako bat izan da saria urtero txandakatzen joatea (urte baten emakumezkoari eta hurrengoan gizezkoari). Beste proposamen bat: etxean lan egiten duen emakume migratzaile bati ematea, horiek direlako gure bizitza eusten dutenak, eta ez daukatelako batere errekonozimendurik.

Sariaren izaera bera zalantzan jarri beharra aipatu da. Zalantzan jarri behar da zer den saritzen dena, merituak eta arrakastak irudipen maskulinoa izateari uzteko.

- Umeen hazkuntzan babes gehiago eskaintzea. Pertsona askok ez dute inguruan sarerik beren garapena bultzatzeko. Ondo legoke laguntza gehiago egotea seme-alabak haurreskolara eramateko (0-2 urte bitartean). Horrez gain, baita emakumezkoen sozializazio-gune bat ere, non babes emozionala eskaintzeko laguntasuna aurkituko duten, behar-beharrezkoa zailtasun-garaiei aurre egiteko.
- Hiriko eskaintza ludiko-kulturala zabaldu igandeetara. Beharrezkoa dute gazteek eta etxeetako langileek, jai duten eguna baita.
- Diskriminazio eta ekintza positiboetarako politikak bultzatzea. Emakumezkoak botere-postuetara iristea. Alkatetza femeninoa eredu ona litzateke hasteko.



1.saioko argazkia

2. lan- ildoko lan taldea (2018-11-28)

Hirigintza, Mugikortasuna eta Etxebizitza
Enplegua, Turismoa eta Erantzunkidetasuna

PARTEHARTZAILEAK	
ELKARTEA	ORDEZKARIA
AGIPASE	Emakumea
SARTU	Emakumea
BIZILAGUNAK	Emakumea
BIZILAGUNAK	Gizona
Donostia Sustapena.	Emakumea
Donostia Sustapena.	Emakumea
EPA ZULOAGA	Emakumea
EPA ZULOAGA	Emakumea
Donostia Berdintasuna	Emakumea
ELKARTU	Emakumea
Daiteke	Emakumea
Daiteke	Emakumea
GUZTIRA	10 emakume/gizon 1

1. eztabaida-gaia: non ikusten dituzue genero-desberdintasunak?

- Datuek dena esaten dute: langabezia dauden pertsonen erdia baino gehiago emakumezkoa da, baina zaila da beraiengana iristea. Estereotipo asko daude lanpostuen inguruan, askotan emakumezkoek ez dute beren burua ikusten postu batzuetan. *Sartuk* eskaintzen dituen tailer prelaboraletan ez dago emakumezkorik, nahiz eta lehentasuna ematen zaien.
- Helduen heziketan, hiru perfiletako emakumezkoekin egiten da lan: alde batetik, zailtasun akademiko handiak dituztenak, ikasketarik izan ez dutenak. Bestalde, etorkinak (baina gizonezko etorkinek jarraikortasun handiagoa dute emakumezkoek baino, hauek zailtasun handiagoa dutelako ikasketak uztartzeko bestelako konpromisoekin). Eta azkenik, goi zikloetara edo unibertsitatera sarbidea. Azken arlo hau da berdinduena dagoena, baina ikasketak aukeratzeko orduan, generoen arabera joerak daude oraindik.
- Hirian mugitzeko modua ezberdina da. Emakumezkoek gehiago erabiltzen dute garraio publikoa. Beren ibilbideak buelta gehiago ematen ditu, gizonezkoena zuzenagoa da. Duela gutxi arte ez zen mugitzeko modu hori aintzat hartzen, eta auzoak ez daude elkartuta. Guztia dago baldintzatuta, etxeen diseinua, sukaldeena. Aipagarria da, gainera, hiriko kale eta eraikinetatik %6k soilik duela emakumezko baten izena, eta hori erregina, birjina edo santua izaten da.

- Gero eta zonalde gehiago peatonalizatzen dira, baina helburua kontsumismoa eta merkataritza bultzatzea da. Horrek frankiziak erakartzen ditu, lan-baldintza txarretako postuak eskaintzen dituztenak, eta langile gehienak emakumezkoak dira.
- Zailtasunak are handiagoak dira desgaitasunak dituzten emakumezkoen kasuan. Ez zaie bultzadarik ematen formakuntzetara, eta ez da imaginatzen desgaitasuna duen amarik.
- Adibide garbia da *Kelly langileena*, beraien lan-baldintzena, sostengarria ez den turismoaren ondorio dira. Alde Zaharreko bizilagunen elkarteak denbora darama auzoko adineko pertsonen isolamenduarekin lanean. Isolamendua batez ere hirugarren adineko emakumezkoengan gertatzen da.
- Azken urteotan asko egin da berdintasunaren alde, gizartearen presioaren ondorioz, ez Udalaren ekimenez. Adierazgarria da Udal Berdintasun Sailak urteko aurrekontuaren %0,10 jasotzen duela. Ez luke sail isolatua izan behar, zeharlerrokoa baizik, sail guztietan kontuan hartua.

2. eztabaida-gaia: nolako Emakumeen etxea irudikatzen duzue etorkizunerako?

- Dinamikoa, irisgarria, handiagoa eta beste leku batean kokatua, elkargunea, baliabide/osagarria.
- Bertan egiten dena ezagutarazi behar da. Ez dauka oihartzunik, nahiz eta 1.000 bazkide izan. Komunikabideen babesa behar dugu, zabalkunderako baliabideak.

3. eztabaida-gaia: Nolako Donostia nahi duzue 2023rako? Udalari eskaerak.

- Gizarte politika gehiago, interes ekonomikorik gabe. Bizitza-kalitatea interes ekonomikoen gaintik jartzea.
- Berdintasun sailera diru gehiago bideratzea. Berdintasuna zeharlerroko ekintza izatea, ez sailaren ardura.
- Baldintzak erraztea emakumezkoek Donostian lan egiteaz gain, hirian bizi ahal izan daitezen.
- Kontsumorik gabeko sozializazioa bultzatzea.
- Soldata eta lan-baldintzetan berdintasuna.
- Emakume gehiago erakartzea formakuntza jasotzera, eta mantendu ahal izatea.
- Kontu handiagoa izatea profesionalen inguruan ematen den irudiarekin.
- Hiriko zonalde beltzak egokitzea, inork ez dezan beldurrik pasa etxera bidean.
- Espazioak, publikoak behintzat, pertsonen beharretara egokitzea, desgaitasunak dituzten emakumezkoenentara ere bai. Adibidez, beraiek ere parte-hartzea diseinuan.

- Emakumeen etxeak irisgarritasun gehiago izatea, ekipamendu handiagoa, hartzaindegia, hirugarren adinekoentzat zentroak, bizitza zaintzeko zentro gehiago.



2.saioko argazkia

3. lan- ildoko lan taldea (2018-11-29)

Kultura, Euskara eta Kirola

Hezkuntza arloa eta Gazteria

PARTEHARTZAILEAK	
ELKARTEA	ORDEZKARIA
Donostia Berdintasuna	Emakumea
ELKARTU	Emakumea
Irutxuloko hitza	Emakumea
Donostiako Kirol patronatua	Emakumea
Donostiako Euskara zerbitzua	Emakumea
Donostiako Gazteria saila	Gizona
Dantza eta musika eskola	Gizona
Daiteke	Emakumea
Daiteke	Emakumea
GUZTIRA	7 emakume eta 2 gizonezko

1. eztabaida-gaia: berdin tratatzen al dira neskek eta mutilak Donostian?

- Neskek eta mutilak EZ dira berdin tratatzen Donostian, badaudelako rol-estereotipo batzuk, eta horien arabera jokatzeko gizarreak. Adibidez, musika eskola barruan, dantzan emakumezkoak bakarrik apuntatzen dira, eta animatzen diren mutil gutxiak segituan uzten dute. Presio sozial handia egiten zaie estereotipoak hausten dituzten pertsonari. Musika eskolako beste adibidea da musika modernoan mutilak bakarrik apuntatzen direla. Neskaren bat apuntatzen bada, abeslari izaten da, musika-tresnak jotzen beti mutilak.
- Eztabaida sortu da ea botere politikoek nahikoa saiakera egiten al duten berdintasunaren alde. Zalantza dago ea kasu konkretuei laguntza eta jarraipena eskaintzen zaien, askotan politika orokorrak egon arren, hori ez delako nahikoa egunerokotasunean sortzen diren hainbat egoera konpontzeko. Partaide batek adibidea jarri du, gimnasia erritmikoa egin nahi duen mutil bat dagoenean, bere inguruko pertsona guztiak elkartu behar direla (ikastetxeko langileak, haurraren eta gelakideen gurasoak, gimnasia erritmikoko irakaslea....), eta guztien artean hausnartu nola egin baztertua ez sentitzeko.
- Ikasketak eta lanbideak banatuta daude generoaren arabera. Adibidez, Donostiako Udalekuetan begirale gehienak neskek dira. Gainera, lan-esparru feminizatuetan ere, posturik altuenak gizonezkoek dituzte. Donostiako haurtxoko eta gazteleketako zerbitzuetan, hezitzaile gehienak neskek dira, baina koordinatzaileak mutilak.
- Diskriminazio bikoitza jasotzen duten egoerak daude, esaterako, emakumeak eta desgaitasuna dutenak.
- Indarkeria matxista. Lan handia dago egiteko nerabe eta gazteekin. Jokabide eta

pentsaera kezkarriak dituzte.

- Kirolean desberdintasuna dago. Federatuta daudenen %70 gizonezkoa da, eta %30 emakumezkoa. Sarietan, komunikabideetako presentzian, kirola egiteko espazio eta baliabideetan ere nabaritzen dira aldeak. Txikitan kirol-taldeak mistoak dira, erronka handia dago horri jarraipena emateko. Emakume erreferenteak falta dira.

Emakumezkoek “*zuzendutako jarduerak*” (pilates, aerobic...) gehiago egiten dituzte. Kirol-txartelean izen-ematea emakumeena gizonezkoena bestekoa da.

- Partaideei harrigarria iruditu zaie inkestaren arabera hiritarrentzat Donostia segurua izatea. Adibidez, kirola egiterako orduan, nabari da emakumezkoen kirol-praktikak mugatzen dituela beldurrak.
- Soldata-arrakala dago. Esaterako, tokiko komunikabideetan soldata baxuagoa da hedabide handietan baino. Eta tokiko komunikabideetako langile gehienak emakumezkoak dira, gizonezkoek handiagoetan egiten dute lan. Udalean ere, feminizatutako lanbideetan soldata baxuagoak daude.

2. eztabaida-gaia: zer behar da berdintasuna lortzeko?

- Emakumezko ereduak behar dira, ikusgarri egin behar dira egindako lanak, aurrerapenak, lorpenak... Adibidez, kultura arloan, nesken sorkuntza bultzatu beharra dago; zientziarekin lotutako edo maskulinizatutako lanbideetan, nesken papera azpimarratu behar da. Txikitatik jaso behar dituzte ereduak, generoaren araberako sailkapena ekiditeko.
- Askotan zailtasunak egoten dira neskentzat bakarrik sortzen diren ekimenak gauzatzeko. Jendeari kosta egiten zaio ulertzea diskriminazio positiboaren zentzua. Askok espazio mistoak eskatzen dituzte, ohartu gabe emakumezkoak desabantaila egoeran jartzen direla.
- Aurrerapausoak egon dira hainbat espazio mistotan, adibidez, kaldereroetan edo danborradan. Hala ere, kontuan izan behar da emakumezkoen presentzia handia dela lana dohainik egiten denean (antolakuntzan), eta gizonezkoena saria dagoenean nabarmentzen dela.

3. eztabaida-gaia: Zein da emakumeen etxearekin duzuen erlazioa? Nolakoa irudikatzen duzue etorkizunean?

- Emakumeen etxean egiten den lanaren zati handi bat ez da ezagutzen Donostian.
- Etorkizunean handia, irisgarria, diru-gehiagorekin, erreferentziala irudikatzen dute bertaratutakoek.

4. eztabaida-gaia: Zeintzuk dira aurrerantzean eman beharreko pausuak?

- Lanean jarraitu eta desgaitasuna zeharlerrotasunez landu.

- Behetik hasi lanean, hezkuntzaren esparru guztietatik, hezkuntza ez-formala da ez nahikoa berdintasuna lortzeko.
- Aldatu egin behar dira hedabideek kirola tratatzeko modua eta klub en antolaketa.
- Hedabideetan erabakiak kontzienteki hartu (adibidez, irudiak edo elkarrizketatutako pertsonak aukeratzean), jendearengan eragiteko asmoz jardun.
- Gauza batzuetan eskutik joan behar dute euskarak eta berdintasunak (ekintza positiboetan, adibidez).



3. saioko argazkia



II. ERANSKINA

Galdetegiari
buruzko datu
nagusiak

Inkesta on line herritarrekin

Prozesu honen helburuak bi ziren, batetik herritarren iritzia jasotzea, baina bestetik, diagnostikoaren prozesuaren berri ematea. Horretarako galdetegi digital eta elebiduna sortu zen. Galdetegia *on line* izatearen abantaila nagusia hedatzeko erraztasuna da, izan ere, sare sozialen bitartez dohainik zabaldu liteke. Baina oztopoen artean, erantzunen fideragarritasuna eta eten digitala dago (galdetegia erantzuteko mugikorra edo ordenagailua izatea beharrezkoa baita).

Galdetegia, Berdintasun Bulegoaren sare sozialen bitartez zabaldu zen eta baita hainbat elkarteei bidali egin zitzaion (Donostiako Emakumeen Etxeko bazkideei, talde feministak, aisialdi taldeak, etab).

Bestalde, Donostiako komunikabideetan ere zabaldu egin zen (Irutxuloko Hitza..) eta 1000 ale inprimatu ziren galdetegiaren esteka eta QR kodea txertaturik zituela. Ale hauek hiriko kultur etxeetan, liburutegietan, tabernetan, unibertsitatean.. banatu ziren.

Honekin batera eta partaidetza motibatu aldera, partaideen artean zozketa bat egin da. Saria 3 kultur bonoak izan dira, komertzio lokala bultzatzeko asmoz, 3 liburu-denda aukeratu eta bertan emakume euskaldun egile baten obra erosteko bonoa izan dute irabazleek.

Guztira 129 pertsona parte hartu dute galdetegian, 101 emakume, 24 gizon eta 4 pertsona ez binarioak.

Ondorioak

- . Galdetegiaren erantzun nagusiena emakumezkoa (%78) izan da gizonen (%18) gaineko balioa hirukoiztuta hain zuzen ere. Ez binario (%2).
- . Adinari dagokionez tarterik handiena 30-49ra bitartekoa izan da (%53). Erantzun duten hurrengoak 50-70ra bitartekoak (%25) eta jarraian 40 urtetik beherakoak (%21). 70 urtetik gorakoen erantzuna oso gutxi izan da, %2koa besterik ez.
- . Erantzun dutenen artean gehiengoak unibertsitarioak izan dira (%77). Horietatik, %78 emakume eta %20 gizon. Hurrengoak Lanbide Heziketako ikasketak dituztenak (%15). Horietatik %85 emakume, %5 gizon eta %5 ez binario. Portzentai txiki batean lehen hezkuntza (%5ekoa) eta bigarren hezkuntza (%2) ikasi dutenak. Lehen hezkuntza eta bigarren hezkuntza ikasi dutenen artean, %67 emakume eta %33 gizon.
- . %72k Donostian egiten dute lan. %24k berriz beste nonbait lan egiten dute. Eta ia %4k ez dute erantzunik ematen.
- . Erantzun dutenen artean %86 Donostian bizi da. %13, berriz, ez da bertan bizi. Eta 0,08k ez dute erantzunik eman.

BERDINTASUNA ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

- . %32k emakume eta gizonak, Donostian berdin tratatzen direla pentsatzen dute. Horietatik %77 emakume eta %22 gizon. Eta erantzun dutenen artean batek ez du sexua zehaztu. %70k trataeran ez dagoela berdintasunik uste dute. Horietatik %79 emakume, %18 gizon eta %3 ez binario. Ia %2k ez du inolako erantzunik ematen.
- . Erantzun dutenen artean % 57k emakumeentzako hiri segurua dela uste du. Portzentaje horretatik, %76 emakumeak dira, %22 gizonak eta %3 ez binarioak.
- . %43k hiri segurua ez dela pentsatzen du. Horietatik, %82 emakume, %14 gizon, %2 ez binario eta batek %1ek ez du sexua zehaztu.
- . %60ek Donostian sexu orientazio aniztasuna onartuta dagoela pentsatzen dute. %40k berriz LGTBIQ identitate anitzak errespetatzen ez direla uste du. Baiezkoen artean, %77 emakume eta %22 gizon. Ezezkoen artean, %80 emakumezko, %14 gizon eta % 6 ez binario.
- . Galdetegia egin dutenen artean %54k eraso homotranslesfobikoak daudela uste du. %45ek, berriz, kolektibo honetan erasorik ez dagoela pentsatzen du. Erantzunik ematen ez duen kopuru txikia ere badago: %2ra iristen ez dena hain zuzen ere.
- . Gehiengoak, %75ek LGTIBQ pertsonentzako hiri segurua dela pentsatzen du. Halere %24k kontrakoa uste du, ez dela hiri segurua. Eta ia %2 batek ez du erantzunik ematen..
- . LGTIBQ pertsonentzako hiri segurua dela pentsatzen dutenen artean, %75a emakumeak dira eta %24a gizonak . Segurua ez dela esaten dutenen artean %87 emakumeak dira, %10a gizonak eta %3a ez binarioa.
- . LGTIBQ kolektiboekiko dagoen tolerantzia hiri mailan 1etik 10era, baloratzera, puntuaketa onenak 7 (%28) eta 8 (%23) izan dira. Ondorengoak 6 (%23) eta 5 (%16). Balorerik baxuenak 4 (%6), 9 (%3) eta 2 (%1,6).

BERDINTASUNERAKO UDAL POLITIKA

- . %33k udalak nahikoa egiten duela berdintasuna lortzeko pentsatzen du. Horietatik %74 emakumek horrela pentsatzen dute eta %24 gizonak.
- . % 64k, berriz, nahikorik ez dela egiten uste du. Eta %3ek ez du inolako erantzunik ematen. Ezezkoen artean, %79 emakumezkoak dira, %17 gizonak eta %4 ez binarioak.
- . %84k Emakumeen Etxea ezagutzen du. Horietatik %79 emakumeak dira, %17 gizonak, %3 ez binarioak eta %1ek ez du sexua zehaztu. %16k, berriz, ez du ezagutzen. %76 emakumek eta %24 gizonak.

- . Erantzun dutenen artean, %92k horrelako baliabidea beharrezkoa dela uste du. Horrela pentsatzen dutenen artean %80 emakumeak dira eta %17 gizonak. Hortaz gain %2 ez binarioa eta %1ek ez du sexua zehaztu. %7k, berriz, kontrakoa pentsatzen du, beharrezkoa ez dela. %67 emakume eta %33 gizon.
- . Erantzun dutenen %81ek azken 5 urteetan aurrerapausoak eman direla Donostian berdintasunaren alorrean uste du. Horietatik %76 emakumezkoak dira, %20 gizonak, %3 ez binarioa eta %1ek ez du sexua jarri.
- . % 17k berriz, aurrerapausu nahikorik ez dela eman, uste du. Kopuru horretatik %86 emakumek eta %14 gizonak horrela pentsatzen dute. Oso kopuru txikiak ez du erantzunik eman, %1.6k hain zuzen ere,

ENPLEGU ETA TURISMOA

- . Diru sarrerei dagokienez %25ek 1000€ baino gutxiago izaten du. %76 emakume, %15 gizon, %3 ez binario. %6ak ez du sexua jarri.
- . %13k 1200€ baino gutxiago, %76 emakume, %18 gizon eta %6 ez binario.
- . %14k 1500€ baino gutxiago. %83 emakume eta %17 gizon.
- . Kopururik handiena, 1500€ baino gehiago ia biztanleriaren %43k izaten du. %76 emakume, %22 gizon eta %2 ez binario.
- . %5ek ez du inolako erantzunik ematen.
- . Galdetegia egin zaien artean ia %43k hilabete amaierako inoiz ez duela zailtasun ekonomikorik izaten dio. %34k batzuetan baino ez duela izaten komentatzen du. Beti izaten duela ia %12k aipatzen du eta ia beti %6k izaten duela dio. %5ek ez du inolako erantzunik ematen.
- . Donostiako 3 leku edo toki esanguratsuak aipatzerakoan, osotasunaren gainean hauek dira portzentaiak:
 - . Hondartzak: %24
 - . Haizearen orrazia: %13
 - . Alde zaharra: %12
 - . Bulebarra eta Emakumeen Etxean beste aldiz aipatu izan dira. Kasu bitan %2,17

HIRIGINTZA; MUGIKORTASUNA ETA ETXEBIZITZA

. Beldurgarri edo arriskutsu hiriko jotzen dituzten leku asko eta ezberdinak aipatu dituzte. Errepikatzen diren adierazgarrienak honako bi dira: Osotasunaren gainean kopuru txikia da.

- Alde zaharra: ia %7
 - Altza: ia %5
- Hainbat ezaugarri azpimarratzea interesgarria litzateke
- (...) inguruneak, parranda tokiak izateagatik.
 - (...) argitasun egokia ez dagoen lekutan: parkek,
 - (...) argitasun gutxiko eta ezkutatzeko txokoak dituzten edoizen toki.
 - (...) autobusak gertu gelditzen ez diren lekuak.
 - (...) auzo guztiak gaez (erdigunea ez diren auzoak).
 - (...) edozein hiritan zentrotik urrun dagoen edozein lekutan, gaur egun gaez arriskutsuak izan daitezke (...).
 - (...) igogailuak, garajeak, parkinak, hainbat kale edo parke.
 - (...) iluminazio txarrekoak, fabrika zaharrak, pasabide estuak...
 - (...Tren eta autobus geltokiko lekuetan.
- Beldurgarri edo arriskutsu jotzearen zergatia, gehien emandako erantzunak (10 lagun baino gehiagok) holakoak izan dira:
- Agresioak gertatu izan direlako. (%11)
 - Agresioak gertatu izan direlako. Espazio horren inguruko komentarioak entzun izan ditudalako betidanik (zerbait gertatu dela, arriskutsua dela...), Bertatik igaroz gero eta erasoren bat gertatuz gero, nire burua defendatzeko eragozpenak daudelako (argi falta, irteerarik ez, jenderik ez inguruan laguntza eskatzeko...). (%11)
 - Bertatik igaroz gero eta erasoren bat gertatuz gero, nire burua defendatzeko eragozpenak daudelako (argi falta, irteerarik ez, jenderik ez inguruan laguntza eskatzeko...). (%37)
 - Erantzun gabe (%18)
- Inoiz ez dutela segurtasun eza bizi izan ia biztanleriaren %22k pentsatzen dute. Eta baiezkoen artean bi toki hauek nabarmendu dira: kalean (%34ek) eta portalean eta kalean (%10ek).
- Nagusiki eta alde handiarekin, arrazoi hauek nabarmendu dira:
- Emakumea izateagatik 44 (%34)
 - Emakumea izateagatik, Argitasun faltagatik 21 (%16)
 - Erantzunik gabe 25 (%19)
- Donostiako segurtasuna batz bestea ez dago gaizki baloratuta. Biztanleriaren %33k zazpi bat eman dio. Baliorik handiena 6 (%19) eta 8 (%18,) puntuaketaekin jaso izan dira. 1 eta 2 puntu ez dio inork eman Donostiako segurtasunari.

KULTURA; EUSKARA ETA KIROLA

- . Gehien erabiltzen diren hornikuntzak honako hauek dira:
 - . Aisialdi guneak (zinemak, antzokiak, kontzertu guneak..) (%4)
 - . Kiroldegiak, Aisialdi guneak (zinemak, antzokiak, kontzertu guneak..) (%5)
 - . Kiroldegiak, Aisialdi guneak (zinemak, antzokiak, kontzertu guneak..) (%5)
 - . Kultur Etxeak, Kiroldegiak, Aisialdi guneak (zinemak, antzokiak, kontzertu guneak..) (%6)
 - . Liburutegiak, Kiroldegiak, Aisialdi guneak (zinemak, antzokiak, kontzertu guneak..) (%4)
 - . Liburutegiak, Kultur Etxeak, Aisialdi guneak (zinemak, antzokiak, kontzertu guneak..) (%9)
 - . Liburutegiak, Kultur Etxeak, Aisialdi guneak (zinemak, antzokiak, kontzertu guneak..), Museoak (%4)
 - . Liburutegiak, Kultur Etxeak, Emakumeen Etxea, Aisialdi guneak (zinemak, antzokiak, kontzertu guneak..) (%4)
 - . Liburutegiak, Kultur Etxeak, Kiroldegiak, Aisialdi guneak (zinemak, antzokiak, kontzertu guneak..) (%5)
 - . Liburutegiak, Kultur Etxeak, Kiroldegiak, Aisialdi guneak (zinemak, antzokiak, kontzertu guneak..), Museoak (%6,)

- . Gehiengoak ondorengo puntuaketa eman dio hiriko hornikuntzari: Biztanleriaren % 33ek 8 puntu eman dio. %26k 7 puntu eta, azkenik (%17k 10 puntu.

- . %35ek hirian ikastarorik egin ez duela erantzun du. Eta egin dituztenen artean banaketa eta ikastaro moten gehiengoa honakoa izan da:

- . Ia %9k kirolaren ikastaroak egin bitu eta beste horrenbeste kopuruk kulturalen ikastaroak. Donostia kulturaren ikastaroak, kudeaketa pribatuko ikastaroak %10 batek egin ditu (ez dakit hau nola sailkatu ze deskribapen biak azaltzen dira eta. Ez dakit nola zenbatu). Eta kudeaketa pribatuko ikastaroetan %17k hartu duela parte dio.

- . Kirola hiriko leku ezberdinetan % 97a praktikatzen dute ezezkoa erantzuten dutenen artean %3 aurkitzen dugu.

- . 10 lagun baino gehiagok praktikatzen duten tokiak:
 - . Kirol gune itxi batean (%12)
 - . Erantzungabe (%9)

- . Gehiengoak, %38k inoiz ez dela kirol ekitaldiak ikustera joaten aipatzen du. Eta joaten direnen artean, %26k gutxitan joaten dela eta %21ek batzuetan diote. Kirol ekitaldiak ikustera askotan joaten den biztanleriaren %11 baino ez omen da. Eta erantzun gabeko portzentaia % 4 koa izan da.

- . Kirol ekitaldi aipatuena honakoak izan dira:
 - . Futbola: %31
 - . Estropada: %8
 - . Lasterketak: %14
 - . Saskibaloiak: %12

- . Hirian antolatzen diren kirol ekitaldiak, oro har ondo baloratuta daude. Baliorik handiena 10 puntuaketa dagokiona da: %15ek 10 puntu ematen baitie hirian antolatutako ekitaldiei. Ondorengo beste bi puntuaketa hauexek izan dira: %14k 5 puntu egokitu die kirol ekitaldiei. Et beste horrenbeste kopuruk, %14k 7 puntu.

- . Gehiengoak, %46k batzuetan joaten dela musika ekitaldietara dio. Askotan %20 eta gutxitan %26 joan ohi da. Beraz esan dezakegu biztanleriaren %90 baino apur bat gehiago noiz edo noiz musika ekitaldietara joaten dela. Inoiz joaten ez direnen portzentaia %5ekoa baino ez eta erantzun gabekoak %2koa.
- . Kirol ekitaldiak eta musika ekitaldiak ikustera joaten direnen protzentaia alderatuta, hau ikus dezakegu:
 - . Kirol ekitaldietara: %42
 - . Musika ekitaldietara: %8
 - . Noiz edo noiz: %58

- . Hirian antolatzen diren musika ekitaldiak, puntuaketei dagokienez, 1etik 10era, baliorik handienak 5 (%18), 6 (%15,) eta 7 (%20) izan dira. Hirian antolatutako kirol eta musika ekitaldiak alderatuta, balorapen hobea lortzen dute lehenengoek, kirol ekitaldiek, musikakoek baino.

PARTE HARTZEA ETA ELKARTEGINTZA

- . Biztanleriaren %5ek emakumeen elkarteetan hartzen dute parte. %8k GKG batzuetan Sindikatuetan %5ek eta Politika mailako elkartetan beste horrenbeste. Eta LGTBko elkartetan %2ra ez da iristen.

- . Biztanleriaren %23rak ez daude inon afiliaturik eta kopururik handiena erantzuten ez dutenena da, la %46.

- . 8 lagun baino gehiagok parte hartzen duten ekitaldiak ondorengoak dira:
 - . Danborrada (%7)
 - . Giza mugimendua (%10)
 - . Erantzun gabe (%32)

- . Orokorrean, emakume eta gizonen berdintasuna ardatz izanik (partaidetza, jaien giroa) hiriko jaialdiak ondo daude baloratuta. Biztanle gehienek 5-9 bitarteko puntuaketa ematen diete Donostiako jaialdiei. Portzentai onenak handiagotik txikira horrelakoak izan dira:

- . 7 puntu: % 22k eman die
 - . 6 puntu: % 16k eman die
 - . 8 puntu: % 13k eman die
 - . 5 puntu: % 12,6k eman die
 - . 9 puntu: % 8k eman die
- . Gehiengoek, ia biztanleriaren %57k emakume eta gizonek hiriko ekitaldietan ez dutela berdin parte hartzen pentsatzen dute. %37k, berriz baietz uste dute eta %6k ez dute honen inguruko erantzunik ematen.

Taula 1. Sexua

	Zenbatekoa
Emakumea	101
Gizona	24
Ez binarioa	3
Hutsik	1
Guztira	129

Taula 2. Ikasketa maila

	Zenbatekoa	Emakumea	Gizona	Ez binarioa	Hutsik
Unibertsitatekoak	100 (%100)	78 (%78)	20 (%20)	2(%2)	
Lanbide Heziketa	19 (%100)	16 (%85)	1 (%5)	1 (%5)	1 (%5)
Bigarren Hezkuntza	6 (%100)	4 (%67)	2 (%33)		
Lehen Hezkuntza	3 (%100)	2 (%67)	1 (%33)		
Hutsik	1 (%100)				

BERDINTASUNA ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

Taula 3. Zure ustez, Donostian emakume eta gizonak berdin tratatzen al dira?

	Zenbatekoa	Emakumea	Gizona	Ez binarioa	Hutsik
Bai	42 (%100)	32 (%77)	9 (%22)	0 (%0)	1 (%1)
Ez	85 (%100)	67 (%79)	15 (%18)	3 (%3)	
Ez dago erantzunik	2 (%100)	2 (%100)			


Zure erantzuna "ez" bada, zer edo non sumatzen dituzu ezberdintasunak?

- . Oro har gizartearenak, ez Donostikoa bereziki.
- . Lanerako garapenean, kirol-munduan, aukera profesioaletan, segurtasunean ...
- . Eroste-mailan , botere gunetan, dependenzian eta zaintzetan.
- . Edozein eremu sozial edo profesioaletan emakumeak eta gizonak tratatzeko orduan desberdintasunak aurkitzen dira, baina badago erabat anakronikoa eta emakumeen kontra dijoan tradizioa edo ez dakit nola deitu: gastronomia-elkarteak. Ezin uler dezaket 21. mendean oraindik sarrera emakumei debekatzen zaien ghettoak egotea.
- . Adibidez, soilik emakumeen komunetan haurtxoak aldatzeko mahaiak egotea.
- . Emakumeek lan bera eginez soldatan ehuneko 25 gutxiago kobratzen dute..
- . Berdintasun formalak bai, baina errealak ez.
- . Oro har ezaugarri matxista asko duen gizarte batean emakumeak tratatzen diren ezberdintasun berdinekin: soldatak, ordezkariak...
- . Gurasoen eskubideetan ez dago berdintasunik.
- . Uda honetan hainbat sexu-erasoak bizi izan dugu. Ostalaritzan eta bereziki aisia-gauean, desberdintasunak daude: Zerbitzariak oraindik ere mutilei ardo-karta ematen jarraitzen dute, edo herritarren gaitasunak , hau da, emakumeok "kontuz" joan behar dugu eta haiek, mutilek, askeago.
- . Hiri hau beste batzuk baino tolerantetagoa izan arren, emakumeok, heteronormarekin aritzen diren gizonek tratatzen duten errespetu berarekin , ez gaituzte tratatzen.
- . Eremu askotan: enpleguan, hizkuntzaren erabileran, kirolean...
- . Oraindik emakume alkaterik ez izatetik, egunerokoan aurkitzen diren mikromatxismoak arte.
- . Zaila da berdin tratatzen gaituztela esatea. Adibide bezela nesken kirolari ematen zaion garrantzia edo gizonezkoei ez zait parekoa iruditzen.
- . Hainbat lekutan (kalean, tabernatan...) Emakume izate hutsagatik tonu ezberdinarekin tratatzen nautela sumatzen dut.
- . Kirol profesionalaren arloan (Anoeta gizonezkoentzat, Zubietako emakumezkoentzat), danborradan, gauez kaletik lasai ibiltzeko orduan...
- . Gizarteko estruktura arazoa bada ezin esan Donostian ez denik pasatzen?
- . Gizonak lasai ibil daitezke gauean, emakumeak beti tentsio puntu batekin.

- . Arlo guztietan da nabari. Profesionalean: ekitaldietan emakumeek "azafata" lanak egiten dituzte eta gizonak agintariak/dinamizatzaileak izaten dira, saltokietan kontzesionarioetan emakumeei aztean umeak eramateko eskaintzen dizkigute autoak, gizonezkoei berriz, potentzia handikoak; kalean eskali bati entzun nion gizoni 'jefe' ta emakumei 'guapa' esaten...
- . Ezinezkoa da hiri bat, jarrera matxista globalizatuaz kanpo egotea. Sexu, adin, jatorri etabarreko diskriminazio motak ematen dira egunero lan, toki/garraio publiko, taberna batzutan zein beste gune askotan.
- . Nire ustez Udalak badu berdintasunerako plangintza bat eta ekintzak egiten ditu, gizarte mugimenduek ere dinamika indartsua dute, eta herritar asko kontzientziatuta daude... baina aurrera goazen arren oraindik ere lan baldintzetan emakumeak prekaritate handiagoan daude, kontziliatzaioa eta zaintzak ez dira berdin partekatzen, emakume eta gizon eredu anitzak bizitzen saiatzea ez da erraza, sexismoak eragina du haur eta gazteen bizitzan... Beraz egoera hobetzen ari den arren ez dago berdintasunik.


	Zenbatekoa	Emakumea	Gizona	Ez binarioa	Hutsik
Bai	74 (%100)	56 (%76)	16 (%22)	2 (%3)	0 (%0)
Ez	55 (%100)	45 (%82)	8 (%14)	1 (%2)	1 (%2)
Ez dago erantzunik					

Emakumeentzako hiri segurua dela esango zenuke?




	Zenbatekoa	Emakumea	Gizona	Ez binarioa	Hutsik
Bai	78 (%100)	60 (%77)	17 (%22)		1 (%1)
Ez	51 (%100)	41 (%80)	7 (%14)	3 (%6)	
Ez dago erantzunik					

Zure iritziz, Donostian sexu orientazio aniztasuna onartuta dago?




	Zenbatekoa	Emakumea	Gizona	Ez binarioa	Hutsik
Bai	98 (%100)	73 (%75)	24 (%24)		1 (%1)
Ez	31 (%100)	27 (%87)	3 (%10)	1 (%3)	
Ez dago erantzunik					

LGTIBQ pertsonentzako hiri segurua dela esango zenuke?



	Zenbatekoa	Emakumea	Gizona	Ez binarioa	Hutsik
Bai	42 (%100)	31 (%74)	10 (%24)		1 (%2)
Ez	83 (%100)	66 (%79)	14 (%17)	3 (%4)	
Ez dago erantzunik	4 (%100)	4 (%100)			


Uste duzu, Udalak nahikoa egiten duela berdintasuna lortzeko?



	Zenbatekoa	Emakumea	Gizona	Ez binarioa	Hutsik
Bai	108 (%100)	85 (%79)	19 (%17)	3 (%3)	1 (%1)
Ez	21 (%100)	16 (%76)	5 (%24)		
Ez dago erantzunik					


	Zenbatekoa	Emakumea	Gizona	Ez binarioa	Hutsik
Bai	118 (%100)	94 (%80)	20 (%17)	3 (%2)	1 (%1)
Ez	9 (%100)	6 (%67)	3 (%33)		
Ez dago erantzunik	2 (%100)	1 (%50)	1 (%50)		

Horrela:




	Zenbatekoa	Emakumea	Gizona	Ez binarioa	Hutsik
Bai	105 (%100)	80 (%76)	21 (%20)	3 (%3)	1 (%1)
Ez	22 (%100)	19 (%86)	3 (%14)		
Ez dago erantzunik	2 (%100)				

azken 5 urteetan aurrerapausoak eman dira Donostian berdintasunaren alorrean?



	Zenbatekoa	Emakumea	Gizona	Ez binarioa	Hutsik
1000€ baino gutxiago	33 (%100)	25 (%76)	5 (%15)	1 (%3)	2 (%6)
1200€ baino gutxiago	17 (%100)	13 (%76)	3 (%18)	1 (%6)	
1500€ baino gutxiago	18 (%100)	15 (%83)	3 (%17)		
1500€ baino gehiago	55 (%100)	42 (%76)	12 (%22)	1 (%2)	
Ez dago daturik	7 (%100)	6 (%86)	1 (%14)		

Hilero nire diru sarrerak honakoak izaten dira



- . Jai ezberdinak begi bistan daude hirian.
- . Estropada-ordutegietan, kirolean jasotzen duten diru-laguntzak erabat desorekatuta daude.
- . Gizonak ordezkatuago daude.
- . Oraindik "bretxa" / tarte bat dago. Ekitaldi batzuk bertsio femeninoan ez dute bertsio maskulinoan apeu bera (adibidez: futbola, estropadak-a); eta halako jarduera batzuetan emakumeak parte hartuz ikusterakoan harritzen den gizartearen zati bat oraindik ere badago.
- . Danborradan eta kirol-ekitaldietako parte-hartze femenino txikiagoa, adibidez.
- . Egoera aldatzen ari dela uste dut eta emakumeak gero eta gehiago ari direla parte hartzen baina beti neurri txikiago batean. Danborrada mundu guztirako emakumeen eta gizonen arteko kotziliazio adibide bat izaten ari dela ere uste dut. Baina oraindik estropadek lotsa ematen jarraitzen dute, neskak arraunean aritzen badira ere bigarren mailakoak dirudite...

- . Emakumezkoak bigarren mailan eta salbuespen bezala. Ez daude maila berean.
 - . Pixkanaka pixkanaka joera aldatuz doa eta etorkizunean zuzena izango da.
 - . Kirolean, erabakiak hartzean, Morlanseko danborradan adibidez.
 - . Emakumea edo gizona izanez ez da modu berean parte hartzen. Bereziki jaietan, ez dituzu jarduera zehaztuak egiten ziurtasunik ezagatik (bakarrik ez joatea, lagunduta alde egitea e.a...)
 - . Emakumeek gizonak baino parte hartzen handiago dutela esan nahi nuen nik.
 - . Emakumeen agerpena debekatzen duten klubak (Eguzki, geztelubide-a, etab.). Gainera, Eguzki udal-ematea da
 - . Adibidez, oraindik badira sozietate eta danborradak non (emakumeek) ezin parterik hartu.
 - . Emakumeak askotan bigarren mailan jartzen dira, gizonen aurretik gisara.
 - . Nahiz eta deialdi gehienetan erantzuten duten gehiengoak emakumeak izan, "ikusitako" beti, gehiago ikusten dira gizonak.
 - . Normalean gizonen gehiago egon ohi dira, eta gainera, bozeramailea edota kargu garrantzitsuena duena ere gizonenak izaten da.
 - . gizonen presentzia handiagoa oholtza gainean (danborrada, kontzertuak..)
 - . Zuzendariak gehienetan gizonenak dira eta badirudi eurek ahalmen gehiago dutenaren sinesmena dutela askok, oraindik ere.
- . Adibidez, Kontxako adibidea hartuta, aurten arte emakumeen saria txikiagoa zen. Eta estropadaren ordua ere okerragoa da gizonena baino. Futboleko zer esanik ez... Neskek Zubietan jokatu behar dute, Anoeta soilik mutilentzat delarik...
 - . Danborradan nahiz eta parte hartu, parte-hartzearen kalitatea ez da gizonen bezainbestekoa
 - . Normalean, kaleko gizonen aldetik dator, balio zaharrak dituzten pertsonak. Mutil eta neska gazteek ere balore diskriminatorioak azaltzen dituzte.
 - . Kaleko giroan, ekintzen antolaketan: gizonak erdian emakumeak periferian, Donostiako elkarte gastronomikoen kultura patriarkala, emakumeen prekarietate ekonomikoa eta saintza nahiz lan domestikoaren ondorengo denbora libre falta...
 - . Aurrera eraman beharreko zaintza lanek, gurasoek duten beldurragatik neska gazteei jartzen jizkieten traba eta ordutegi restriktzioa, Parte hartzeko deialdi murrizak, gune askoren segurtasun eta sustengu falta, kontzertu batzuen abesti sexistak, etab... Dena den esan beharra dago, herri mugimenduek, gazte erakundeek zein, talde feministek, emakumearen etxeak berak ere, kriston lana egiten daude egoera eraldatu nahian!

- . Emakumeak gutxiagotuak dira maiz(adibidez aurten arte kontxako estropadetako sariak ez dira berdinak izan. Horrelakoak askotan gertatzen dira oraindik ere. Aste nagusian eraso asko egoten dira eta emakumeek askotan ezin izaten dugu nahi dugun parte hartzea eduki).
- . Emakumeok ez dugu hain aukera zabala ekitaldi batzuetan parte hartzeko, edo parte hartzeko baldintzak edo/eta sariak ez dira berdinak.
- . Elkartan bozeramaileak, hitzaldietan lehen hitza hartzen dutenak, ponenteak (gaiaren arabera gai batzuetan orekatuago eta besteetan desorekatuago)...gizonak dira gehienetan.